

Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
DEPARTAMENTO DE INTERIOR,
JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA





Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR,
JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Dirección de Atención a las Víctimas de
la Violencia de Género

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2012ko abendua

Ale-kopurua:

1.000 ale



Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saila

Internet:

www.euskadi.net

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egileak:

EDE Fundazioa. Ikerketa Sozialeko Zerbitzua

Itzulpena:

HORI HORI Itzulpenak

Azala:

Obraren izenburua: *Arlequin veneciano*
Blanca Pérez de Unzueta Arrieta
(Egileak dohainik lagatzen ditu azaleko irudia,
liburu hau argitaratzeko bakar-bakarrik)

Maketazioa:

SACAL

Inprimaketa:

SACAL

ISBN:

978-84-457-3269-4

L.G.:

VI 290-2012

Aurkibidea

1. Sarrera	7
2. Helburuak	11
3. Erreferentzia-esparrua	15
4. Aztergaiaren mugaketa	29
5. Metodologia	33
6. Emaidza nagusiak	37
6.1. EAE-ko herritarrek genero-indarkeriari buruz duten pertzepzioa eta iritzia	39
6.2. Genero-indarkeriaren eragina Euskal Autonomia Erkidegoan	81
6.2. EAE-ko herritarrek segurtasunari buruz duten iritzi edo pertzepzioa	131
7. Konklusioak	147
8. Bibliografia	159
9. Eranskina	165

1

SARRERA

Ikerketa-proiektu handi bat abiarazi du *Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak* 2011. urteko bigarren seihilekoan, eta haren asmoa izan da *euskal gizarteak genero-indarkeriari buruz duen pertzepzioa, hau da, hura nola hautematen duen aztertzea, eta emakumeen aurkako indarkeria matxistako egoerek Euskal Autonomia Erkidegoan duten eragin kuantitatiboa ikertzea. Horrez gain, proiektuak jakin nahi izan du herritarrek, eta, bereziki, emakumeek nola ikusten edo hautematen duten beren segurtasun-egoera.*

Proiektu horren azken txostena adierazten du agiri honek, eta haren langintza teknikoaren arduradun izan da *EDE Fundazioko Gizarte Ikerketako Zerbitzua*.

Ikerketa-proiektuaren egiturari erreparatuta, haren helburuak azaltzen dira agiri honen bigarren atalean, abiapuntutzat hartu den esparru teorikoaren azalpen labur bat egiten da hirugarren atalean, eta horrez gain, proiektuak aztertzen duen gaiaren egungo testuingurua adierazten da. Laugarren atalean, ikertuko den gaiaren mugaketa operatiboa zehazten da. Horren ondoren, baliatutako metodologia zehazten da bosgarren atalean.

Ikerketaren emaitza adierazgarrienak erakusten dituzte hurrengo hiru atalek, hiru ardatz hauen baitan sailkatuta: herritarrek nola ikusten duten genero-indarkeria edo hari buruz duten pertzepzioa; emakumeek nola hautematen duten beren segurtasuna, eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpenek Euskal Autonomia Erkidegoan duten eragina.

Azkenik, emaitza eta konklusio nagusiak laburtzen dira azkenaurreko atalean, eta bibliografia-erreferentziak ematen ditu azken atalak.

Eranskinetan, taula eta grafikoen aurkibidea, ikerketaren unibertsoari eta ikerketa-laginari buruzko datu nagusien laburpena, emaitzak adierazteko atalean jaso ez diren zenbait taula, eta kontsultan baliatu den galdetegia aurkezten dira.

Komeni da hasiera-hasieratik argi izatea zeri esango zaion genero-indarkeria lan honetan, nahiz eta, hurrengo ataletan, horri buruzko argibide zehatzak emango diren kontzeptu horri zedarritzeko. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak honelaxe definitzen du genero-indarkeria: “Emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman desberdinen markoan emakumeek emakume izateagatik jasaten duten indarkeria”. Definizio hori zehaztasun handiagok adierazia ageri da Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak 2009an onartu zuen Adierazpen Instituzionalean: “bitzitza publikoan zein pribatuan gertatzen den edozein indarkeria-ekintza, emakumeek emakume izateagatik pairatzen dutena eta min fisiko, sexual edo psikologikoa eragin dezakeena, horien artean sartzen direlarik mehatxuak, derrigortzeak eta askatasunaren gabetze arbitrarioak”.¹

¹ Eusko Jaurlaritzak. Herrizaingo Saila. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak. *Genero-indarkeriaren aurka egiteko Jaurlaritzaren I. Jarduera Plana 2011-2013*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. Herrizaingo Saila. 2011.

2

HELBURUAK

Hiru xede nagusitan laburbil daitezke ikerketa honen helburuak: alde batetik, bidea egitea jakiteko zer *irizten eta pentsatzen* duen euskal gizarteak genero-indarkeriaz, gizarte-gertakari nabarmena den aldetik. Bestetik, emakumeen aurkako indarkeria matxistak (zentzu zabalean) Euskal Autonomia Erkidegoan duen *eraginaren* azterketa kuantitatiboa egitea. Eta, azkenik, informazioa biltzea, jakiteko herritarrek, eta, batik bat, emakumeek nola ikusten duten beren *segurtasun-egoera*.

Azterlan honen helburu espezifikoak hauek dira:

Gizartearen pertzepzio
eta iritziak genero-
indarkeriari buruz

1. EAEko gizarteak genero-indarkeriari buruz duen pertzepzioa ezagutzea.
2. Berariaz aztertzea EAEko gazteek errotuen dituzten iritziak genero-indarkeriaren alorrean.

Emakumeen aurkako
indarkeria matxistaren
eragina

3. Genero-indarkeriaren adierazpenak neurtzeko adierazleak zehaztea, indarkeria zentzu zabalean hartuko duen diagnostiko baten esparruan.
4. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpenek EAEan duten eragina kuantifikatzea.

Segurtasunari buruzko
iritzia edo pertzepzioa

5. EAEko emakumeek beren segurtasunari buruz duten pertzepzioari buruzko informazio biltzea.
6. EAEko udalerriek segurtasunaren alorrean dituzten “puntu beltzak” zehaztea eta egin daitezkeen hobekuntzei buruzko gogoeta egitea.

Finean, ikerlan honen azken helburua da genero-indarkeriaren errealitatea ikusaraztea, eta, lan horren bidez, indarkeria-mota hori prebenitzen laguntzea.

3

ERREFERENTZIA- ESPARRUA

“Genero-indarkeriak ahuldu edo eragotzi egiten du askatasunen erabilera eta arriskuan jartzen ditu emakumeen giza eskubideak, norbanakoen askatasuna eta emakumeen osotasun fisikoa”
Nazio Batuen Batzar Nagusia (1993)

Garai batean, gizarte-desoreka handien arrazoiak nagitasuna, zoria, patua, bizioak eta antzeko arrazoiak izan zitezkeela pentsatzen bazen ere, aspaldi baztertu zen ikuspegi hori, eta, gaur egun, onartu beharrekoa da gizarte-desorekak botere politiko eta sozialek egindako jardueren ondorio direla. Hori horrela, gizarte-antolamenduak sortzen, zabaltzen eta iraunarazten ditu desberdintasun eta desorekak.

Teoria feministak adierazten du antolamendu ekonomiko kapitalistak eta neoliberalak bermatzen duela gaur egun patriarkatua² (gizonezkoen menderakuntzako kultura-ereduetan oinarritutako harremanen inguruan eratutako gizarte-egitura), eta hura dela emakumeak, emakume izate hutsagatik, gutxiegitasun-egoeran (opresio eta esplotazioko egoeran) jartzen dituen eta gizonen kolektiboarekiko pobrearazten.

Egoera orokor horren baitan, bada alderik emakumetik emakumera (Afrikako emakumeak, Asiakoak, Hegoamerikakoak, Europakoak, neskatoak, gazteak, emakume helduak, adinekoak, lan egiten duenak, lanik gabeak...), baina guztiek bizi dute mendetasun-egoera bat gizonen kolektiboarekiko, nahiz eta egoera horrek adierazpen anitz izan. Mendetasun-egoera horren atzean hierarkia-egitura historikoa eta unibertsala dagoela adierazten dute teoriagile feministek (haien esanetan, produkzio-moduek iraunarazi egin dute eredu hori: esklabotasunaren bidezkoak, asiarak, feudalak, kapitalistak, etab.), eta egitura hori lanaren banaketa sexualean oinarritzen dela³.

Gizarteak antolamendu sexista du, emakumeei atxikitzen zaielako ugaltze-rola eta haien esku uzten delako etxeko lanak egiteko ardura (hala, bigarren mailako garrantzia ematen zaio biziraupen-sistemari, haren balioa gutxietsiz). Bestalde, gizonak izan ohi dira produkzioko edo ekoizpeneko lanen arduradun (lehentasuna ematen zaie lan horiei eta “kontrola” dakarte maila guztietan). Gizarteak, historian zehar, sexuaren arabera esleitu izan ditu rolak eta balioak (famiaren bidez eman zaio instituzio-izaera jokamolde horri), eta jokabide hori kulturarekin, jokabide naturalarekin eta tradizioarekin nahastu izan da.

Egiturazko indarkeria da genero-indarkeria, hau da, gizarte-egituraren baitan antolatu eta ezarria da, eta, horrenbestez, gizartearen baitan ulertu behar da, nahiz eta indarkeriazko jokabideak pertsona konkretuek egiten dituzten harreman pribatuetan.

Horren guztiaren harian, uler daiteke genero-indarkeria beste tresna bat dela emakumeen kolektiboak gizonen kolektiboarekiko bizi duen mendetasun-egoera iraunarazteko; izan ere, genero-indarkeriak mugatu egiten ditu emakumeen askatasuna, hautatze-eremua eta aukerak, eta, ondorioz, indartu egiten du gizonetikiko duten mendetasuna.

2 Teoria feministak gizarte-ordenari buruzko ikerlan serioak egin zituen 70eko hamarkadan, eta “gizarte patriarkala” erabili zuen kontzeptu gisa, adieraziz gizonen emakumeei boterea eta gailentasunean oinarritutako gizarte-antolamenduen eredu gisa ulertzen zuela Patriarkatua.

3 Falcón, L. (1994). *La razón feminista*. Vindicación Feminista, Madril. Hala dio Lidia Falcón autoreak bere liburuan: “talde handi bat da emakumea, gizarte-klaseen artean ugariena, eta egiteko jakin bat betetzen du historian lanaren sexuaren arabera banaketaren ondorioz”.

Horrez gainera, jokabide horrek normalizazio-maila handia duenez, jokabide naturala dela uste izan da, eta gizarteak ez du jokabide hori zalantzan jarrai orain gutxi arte. Gizon batzuek uste dute emakumeen bizitza kontrolatzeko eskubidea dutela (kontrol-modu anitz erabilita), eta kontrol hori zilegitzeko, arrazoi erlijioso eta soziologikoak ematen dituzte. Horren aurrean, onargarria den zerbaiten moduan ikusten dute egoera hori emakume batzuek, eta beste batzuek, berriz, konpondu ezina den zerbaiten aurrean izaten den inpotentziarekin pairatzen dute egoera.

Finean, gizonen eta emakumeen arteko desoreka sozial eta ekonomikoak azaltzen du emakumeen aurkako indarkeria. Eskema hori, dudarik gabe, egokitzen joan da “gizarte demokratiko modernoan” eskakizunetara, baina azterlan ugari, hala nola, pobreziaren feminizazioari buruzkoak⁴, egiaztatu dute sexuaren arabeko diskriminazioa dagoela oraindik ere egungo egituren atzean.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak hone-laxe definitzen du *genero-indarkeria*: “Emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman desberdinen markoan emakumeek emakume izateagatik jasaten duten indarkeria. Indarkeria-mota ugari daude gizon edo emakume izatearekin inolako loturarik ez dutenak; kasu honetan, aldiz, gizonek erabiltzen duten indarkeriaz ari gara, emakumeak kontrolatzeko eta horien gainetik egoteko erabiltzen duten indarkeriaz”.⁵

Genero-indarkeriaren adierazpideak

Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak erabiltzen duen definizioa erabiliko du ikerlan honek genero-indarkeriaz hitz egitean, hau da, *kontzeptu zabal bat erabiliko da, etxeko tratatu txarretatik eta sexu-erasoetatik haragoko errealitate bat adierazteko*. Indarkeria-modu asko sartzen dira kontzeptu horren baitan, baliatutako indarkeriaren nolakotasun-osagaiei erreparatuta (indarkeria ekonomikoa, sexuala, psikologikoa, sinbolikoa, etab.) eta indarkeria baliatzen duenaren eta haren biktimaren arteko harremanari erreparatuta.

Genero-indarkeriaren definizio horrek indarkeria-mota hauek biltzen ditu:

- *Fisikoa*: emakumeen aurkako indarkeria oro, haren biziaren edo osotasun fisikoaren aurka egiten duena edo xede hori duena. Min fisikoa eragiten duen edo eragin dezakeen ekintza ez akzidentalak. Horietako batzuk dira bultzakadak eta kolpeak ematea, gauzak jaurtitzea eta antzekoak, baldin eta emakume bati heriotza, lesio larriak, tratamendu medikua edo kirurgikoa behar duten lesioak edo klinikako zaintza behar ez duten lesioak eragin badiezaiokete. Tratu txar fisikoekin parekatzen dira erasoen ondoriozko gaixotasunak eta lesioak zaintzeko laguntza ez ematea. Tratu txarren modu hori da bikotearen edo bikote ohiaren aurka erabiltzen den indarkeriaren adierazpen ezagunena, indarkeria horren eragina emakumeen gorputzean nabarmentzen baita maiz.
- *Psikologikoa*: min edo sufrimendu psikologikoa edo emozionala sortzen edo sorrarazi nahi duen indarkeria, bai eta emakume biktimaren duintasuna ukatzea, hari segurtasun eza eragitea, emakumeak bere buruari errespetua ez izatea, mendekotasun emozionala sortzea, gizartetik isolatzea eta askatasunaz gabetzeko bestelako moduak baliatzea ere, horretarako mehatxuak, laidoak eta umiliatze-saioak baliatzen badira. Baldintzarik gabeko mendetasuna edo etengabeko zaintza bat ezarraztea. Horren baitan sartzen dira behartzea xede duten hitzezko jokabideak (esaterako, irainak) edo hitz gabeko jokabide behartzaileak, nahiz eta haien xedea bikotekidearen gorputza ez izan (esaterako, ateak kolpatzea edo objektuak suntsitzea). Tratu txar psikologikoak borondatez egindako jokabideak dira, min psikologikoa eta sufrimendua eragiten dutenak edo pertsonen balioa kentzeko egiten direnak, eta jokabide horien artean daude irainak, isekak, oihuak, isiltasun-uneak, mehatxuak, akusazioak edo

4 EDE fundazioa. Gizarte-azterketarako zerbitzua. EAEn bakarrik dauden emakumeen gizarte-bazterketako prozesuak. Bilbao: Emakunde, 2004.

5 Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila. Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritza. *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak EAEn* Vitoria-Gasteiz, 2010.

beste pertsonaren ideiak kritikatzeari. Jokabide horiek jendearen aurrean edo pribatuan egin daitezke, eta, azken kasu horretan, hau da, pribatuan egiten badira, oso zailak izaten dira hautematen.

- *Sexuala*: emakume bati inposatutako ekintzak dira, izaera sexualekoak. Horien artean dira sexu-erasoak, sexu-abusuak, sexu-jazarpenak, exhibizionismoa, sexu-probokazioak, adingabeak galbideratzea, behartutako prostituzioa, eta adingabeen pornografia. Indarkeria-mota hori ez da indarkeria gisa ikusten bikoteetan, naturalizatuta dagoelako egoera. Izan ere, gizonek eta emakumeek uste dute senarraren eskubidea dela, eta emaztearen betebeharra, sexu-harremanak izatea ezkontzaren baitan. Oro har, emakumeek ez dute aitortzen sexualitate behartua bortxaketa-modu bat denik.

Hauek dira eraso, gehiegikeria eta jazarpen sexualaren arteko diferentziak:

- *Sexu-erasoa*: onespentik gabeko sexu-harreman bat da, indarkeria erabiliz edo emakumea beldurraraziz egiten dena. Kasurik argiena bortxaketa da, bortxaketaren forma guztiak, hain zuzen.
- *Sexu-gehiegikeria*: sexu-izaerako jokabideak egitean datza, baina indarkeria erabili gabe edo emakumea beldurrarazi gabe. Zigor-kodeak bereizi egiten ditu onespentik gabeko gehiegikeriak eta engainuz edo nagusitasun-egoera bat baliatuz egindako gehiegikeriak.
- *Sexu-jazarpena*: lan-harremaneko, irakaskuntza-harremaneko edo zerbitzuak emateko esparru batean, norberarentzat edo beste pertsona batentzat usu eta modu jarraitu batean sexu-mesedeak egiteko eskatzea da; horren ondorioz, biktima larderia larriko egoera iraingarri edo umilgarrian aurkitzen da. Horren ondorioz, aldatu egin daiteke biktimak lan-esparruan duen jokabidea, jazarlearekin bakarrik ez suertatzeko ahaleginak egin baititzake, janzkera jakin bat eraman, etab. Horrez gain, gerta daiteke, lan-esparruan, biktima lanetik kaleratzea, mailaz ez igotzea edo mehatxatua izatea ekintza horien bidez.
- *Ekonomiko edo finantzarioa*: emakume baten ongizate fisikoa edo psikologikoa borondatez eta arrazoirik gabe urratzeko ekintzek osatzen dute genero-indarkeria ekonomikoa, bai eta, halakorik bada, emakumearen seme-alabena edo ekonomikoki haren mende dauden pertsonena. Horren baitan sartzen da, halaber, norberaren baliabide ekonomikoa, familiakoak edo bikotekoak xedatzeko aukerak mugatzea. Tratu txar ekonomikoa lotura handiagoa du baliabide ekonomikoa erabiltzeko lehentasunekin, baliabiderik ez izatearekin baino. Kontrol hori ezartzen da, emakumeek lan ordaindua izan edo ez izan.
- *Soziala*: tratu txar mota hau emakumea isolatzen denean gertatzen da; hau da, bere senideengandik eta lagunengandik urrunarazi, jendaurrean gaizki utzi edo baztertzen denean. Min psikologikoa egiten duten jokabideak dira.

Ikerlan honetan, aintzat hartzen da, halaber, izaera sinbolikoa edo zeharkakoa duen indarkeria, biktimek beraiek ere barneratuta izan ditzaketena; izan ere, bada gizonezkoen menderakuntza adierazten duten sinesmenik eta gizarte-rolak, bai eta aurreko atalean adierazi diren indarkeria-motak justifikatzen edo garrantzia kentzen duen ildorik ere.

Indarkeria sotila edo mikromatxismoak

Adierazi den moduan, botere-harreman desorekatuak daude emakumeen aurkako indarkeriaren atzean, eta botere horien azken xedea ez da emakumeak zauritzea, menderakuntza eta harremaneko botereari eta autoritateari eustea baizik. Indarkeria-motak modu ziklikoan eman ohi dira, eta ziklo horiek, sarri askotan, hautemanezinak edo isilean egindakoak izaten dira. Ildo horretatik, "indarkeria-kate bateko beste kate-begi bat"⁶ bezala ikusi behar da eraso bakoitza.

6 Alberdi, I.; Matas, N. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. La Caixa fundazioa. Gizarte Azterlanen Bilduma. 10. zk, 303. or.

Luis Bonino⁷ autoreak gogoeta egiten du ikustean gaur egun ere ugari direla “intentsitate apaleko” kontrol-eta menderakuntza-jokabideak, naturalizatuta eta legitimatuta daudenak eta agerian jartzen ez direnak. Jokabide horiek ematen dira gaur egun ere, eta lasai asko egiten dira, horren kontziente izanda edo izan gabe. Jokabide sexistak dira horiek, gizon gehienek emakumeekiko beren gain hartzen duten “autoritate” zaharrean oinarritzen dena, uste horrek ez baitu oraindik erabat galdu garai batean zuen legitimazioa. Eguneroko bizitzan oztopo eta eragozpen horiek gaingitu behar dira emakumeek berdintasuna lortzeko egiten ari diren bidean, gizonen eguneroko kontrolak, inposaketak eta botere-gehiegikeriak dira, bikote-harremanetan ematen direnak, eta autoreak “mikromatxismo” kontzeptuaren bidez adierazi nahi izan dituenak. Jokabide horiek ikusezinak eta ezkutukoak izaten dira haiek pairatzen dituzten emakumeentzat.

Autoreak dio mikromatxismoak “menderatze «arineko» edo «intentsitate oso apaleko» jarrerak direla, abusuzko eta inposiziozko jokabide eta jokamolde ezkutukoak eguneroko bizitzan. Berariaz, menderatze-jokamolde trebeak dira, jokabide sotil edo amarrutsuak, errepikakorrek eta ia ikusezinak, gizonen etengabe egiten dituztenak”.

Gizartean agerikoena den indarkeriarekin gertatzen den moduan, indarkeria-adierazpenak dira mikromatxismoak ere, emakumeenganako abusu-jokabideak baitira, emakume izate hutsagatik eginak. Abusu horiek egiten dituzte gizonen, emakumeak baino gehiago direla uste dutelako, eta pentsatzen dutelako emakumeek prest izan behar dutela beti, beren nahikunde, plazer eta arrazoien zerbitzura. Jarrera hori hartu ostean, posizio horri eusteko, zilegi deritzote kontroleko eta inposaketako zenbait prozedura erabiltzea.

Manipulazio-jokabideak dira mikromatxismo guztiak, eta, oinarrian, beren helburua da, nahiz eta hitzez ez den halakorik adierazten, emakumeak genero-rol tradizionalak betetzen jarraitzea eta gizonen mendekotasunezko posizio gailenari eustea, gizonentzat gero eta abantaila, erosotasun eta eskubide gehiago eskuratzen saiatzeko (askatasun gehiago izateko, denboraren eta espazioen erabilera handiagoa egiteko, zainduak izateko, edo etxeko lanetatik askatzeko). Hala, jokabide horien bidez, bigarren maila batean jarraiazi nahi dira emakumeak.

Gure gizartean gero eta arbuio sozial handiagoko jarduerak dira indarkeria-adierazpen handiak eta gizonen indarkeria, baina, ziur asko, mikromatxismoak dira, gaur egun, gizonen gehien erabiltzen dituzten armak, azpijokoak, jukutriak eta tranpak, emakumeekiko “autoritatea” betearazteko, gizartearentzat hain *larriak* ez diren jokabideak baliatuz.

Egile horrentzat, hala ere, mikromatxismoak ez dira beti kontzienteak izaten, baina, aldeztu edo moldez, gizonen trebeak dira halako jokabideak egiten, beren generoaren sozializazioaren harian. Gizonezkoen jokamolde ohikoaren adierazpenak dira, munduan egotea eta beren buruak azaltzeko moduak, maskulinotasun hegemonikoaren gizarte-ereduak proposatzen duen bizi-proiektuarekin bat datozenak. Buruko eta gorputzeko jokamoldeak dira, “gizon egiteko” prozesuan ikasten eta automatizatzen direnak, hariak eta emakumeekin jokatzeko ohitura izan arte.

Harremanak berdintasunezkoak eta osasungarriak izango badira, beharrezkoa da gizonezkoen jokabide horiek baztertzea. Jokabide horien oinarri diren ideologia eta ereduak zalantzan jartzea ez da nahikoa; horrez gain, eguneroko bizitzan ikusarazi behar dira, haiei legitimazioa kendu eta, azkenik, desagerrarazi.

Bestalde, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren jokabide anitzak eremu hauetan ematen dira⁸:

- *Bikoteen edo bikote ohien artean*: besteak beste, indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa baliatzen du emakumearen aurka haren bikotekideak, haren bikotekide izan denak edo emakumearekin antzeko lotura afektiboa duen edo izan duen gizonezkoak.

7 Bonino, Luis (2004). “Los micromachismos”. Madrilgo Udaren *La Cibeles* aldizkari 2. zenbakian argitaratutako artikulua.

8 Gatazka armatuak zerrenda horretan sartzen dira (eta, horien baitan, besteak beste, emakumeen giza eskubideen urraketa, eta bereziki, haiek gaitu hartzea, lekuz aldatzera behartzea, modu sistematikoan bortxatzea, sexu-esklabutza, behartutako haurdunaldiak eta emakumeen salerosketa sexu-esplotaziorako eta ustiapen ekonomikorako), baina azterlanaren mugetatik kanpo geratzen dira kasu honetan.

- *Generoko familia-eremuan* (bikotekidea edo bikotekide ohia ez direnak)⁹: besteak beste, indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa baliatzen du emakumearen aurka bizikidetzak unitateko edo familiako kideren batek, aurreko puntuan adierazitakoren bat ez dena, aintzat hartu gabe emakumearekin bizi diren ala ez eta indarkeria-adierazpena zer eremutan gertatzen den.
- *Lanean edo irakaskuntza-eremuan*: besteak beste, indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa baliatzen da emakumearen kontra lanean edo irakaskuntza-eremuan, sexu-jazarpenaren bidez edo sexu-arrazoien ondorioz. Indarkeria, eremu horietan, lan-orduetan eta eskola-orduetan edo ordu horietatik kanpo eman daiteke, lantokian edo ikastegian nahiz eremu horietatik kanpo.
- *Gizarte-eremuetan, komunitatean eta eremu publikoetan*: eremu horietan gertatzen dira, besteak beste, indarkeria fisiko, sexual eta psikologikoko jokabideak emakumeen aurka, gizarte-harremanen esparruan. Botere edo nagusitasunezko posizioak baliatzen dira indarkeria-ekintza horiek egiteko, hala nola, sexu-erasoak eta -gehiegikeriak, sexu-jazarpenak eta sexu-arrazoiagatik jazarpenak, emakume eta neskatoen salerosketak eta ezkontza behartuak; eta emakumeen osasunaren aurkako eta haien ugaltze-eskubide eta eskubide sexualen aurkako indarkeria, hala nola, fetu femeninoen abortu selektiboak, esterilizatze behartuak eta emakumeen genitalen mutilazioa.

Genero-indarkeriaren datuak eta errealitatea

Genero-indarkeriaren gaineko datuak dagoen genero-indarkeriaren zati txikitzat hartu behar dira, emakumeek salaketa jartzeari esker zenbatu daitekeena, hain zuzen; baina erakunde ofizialen kalkuluetatik at gertatzen dira salaketarik egiten ez den, eta beraz, ezkutatuta geratzen diren emakumeen aurkako hainbat indarkeria-egoera.

Zenbait datu asaldagarri

Nekez adieraz daitezke datuen bidez emakumeen aurkako tratatu txarrak eta indarkeria matxistako egoerak. Indarkeria-egoeren % 10 eta % 30 bitartean soilik salatzen dira, ez da adostu datuak bildu eta estatistika fidagarriak egiteko modurik eta emakumeak beraiek ez dira jabetzen, sarri, indarkeria-egoerak pairatzen ari direnik. Horren ondorioz, datu ezberdinak topa ditzakegu, bai erakunde ofizialek egindakoak, bai emakumeen elkarteek egindakoak, bai gizarte-interbentzioetan espezializatutako erakundeek beraiek egindakoak. Jarraian, errealitate horri buruzko zenbait datu azalduko ditugu, emakumeen aurkako indarkeriaren arazoaren errealitatearen ikuspegi bat izateko.

Azken 50 urteotan, emakumeek urratsak eman dituzte berdintasunerako bidean, baina Amnesty International erakundeak 2011. urtean egindako txostenak erakusten du oraindik asko dagoela egiteko hainbat herrialdetan. Emakumeek eta neskatoek diskriminazioko, indarkeriazko eta eskubideez gabetuak izateko egoerak bizi dituzte: "Emakumeek eta neskatoek bereziki pairatzen dituzte indarkeria-egoerak: bake-egoeretan eta gerrateetan, Estatuak, komunitateak eta familiak baliatutakoa haien aurka (...) Sarritan, ez da aintzat hartzen emakumeen aurka baliatutako indarkeria, eta oso gutxitan zigortzen dira egoera horiek."

Emakumeen aurkako indarkeriaren Estatuko Behatokiaren¹⁰ datuen arabera, *73 emakume hil zituzten 2010. urtean, eta 2003. urtetik 2010. urtera 545 emakume hil zituzte*. Epe horretan Espainian hil zituzten emakumeen erdia baino gehiago bikotekideak edo bikotekide ohiak baliatutako indarkeriaren ondorioz hil dira.

⁹ Adierazi behar da azterlan batzuek batera aztertzen dituztela bikotekidearen edo bikotekide ohiaren esparrua eta familia barruko genero-indarkeria, eta esparru horri familia-esparrua edo etxeko esparrua esaten diotela.

¹⁰ Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokia. *IV Informe Anual del Observatorio estatal de violencia sobre la mujer*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Berdintasunerako Estatu Idazkaritza. Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza, 2011.

Euskal Autonomia Erkidegora etorrira, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritzak¹¹ emandako datuen arabera, *5 emakume hil zituzten 2010. urtean genero-indarkeriaren ondorioz*: bikotekideak edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktima izan ziren horietatik bi, eta beste hiru biktimak familiako genero-indarkeriaren ondorioz hil ziren. *2002ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra bitarteko epean* hil zituzten emakumeak 27 dira. Epe horretan hildako emakumeen % 74 naziotasun espainiarrekoak ziren eta beren bikotekideak edo bikotekide ohiak hil zituzten, eta % 66,6 hiltzailearekin bizi ziren.

Genero-indarkeriak goranzko joera erakutsi du azken urteetan, eta *genero-indarkeriaren biktimen kopurua bikoiztu egin da*: 2002. urtean 2.477 indarkeria-kasu izan ziren, eta 2009. urtean, berriz, 4.660 kasu izan ziren. Hala ere, 2010. urtean, zertxobait jaitsi da kopuru hori, 4.285 kasu izan baitira guztira.

Iturri horrek berak esaten du 19 emakumek zutela, 2010eko abenduaren 31n, bizkartzainen bidezko etengabeko babes-zaintza; 10 pertsonak zuten jarrita beren kokapena kontrolatzeko eskuturretakoren bat (erasotzaileek eta biktimek eramandakoak kontatzen dira); eta, horrez gain, 166 emakumek zuten Ertzaintzak emandako eskuko telefono bat babes-lanak errazteko. *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei 24 orduz telefono bidezko arreta emateko Zerbitzuak* 3.369 dei jaso zituen urte horretan.

Genero-indarkeria eta legedia

Espainiako ordenamendu juridikoan, Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko Legea eman zen 2004an¹², eta haren zio-azalpenean aitortzen da zer-nolako gizarte-arazo handia den emakumeen aurkako indarkeria: "Genero-indarkeria ez da eremu pribatuari dagokion arazoa. Aitzitik, gure gizartean dagoen desorekaren adierazgarri lazgarriena da. Emakumeen aurka eta emakume izate hutsagatik egiten den indarkeria da, erasotzaileek uste dutelako emakumeek ez dutela gutxieneko eskubiderik ere".

Hori dela-eta, hau adierazten du Legeak: "Botere publikoek ezin diote ezikusiarrena egin genero-indarkeriari, hura baita gure Konstituzioak arautzen dituen oinarritzko eskubide zenbaiten aurka egin daitekeen erasorik bortitzenetako bat, hala nola, askatasunaren aurkakoa, berdintasunaren aurkakoa, biziaren aurkakoa, segurtasunaren aurkakoa eta ez bereizteko eskubidearen aurkakoa".

Legeak arautzen du berariazko neurriak sortu behar direla biktimak osotasunean onera daitezen, hau da, ez da nahikoa erasotzailearengandik urruntzea. Beste neurri asko hartu behar dira, kasuen ezaugarriei erreparatuta: tratu txarren ondoriozko kalte fisikoak eta psikikoak konpontzeko neurriak, biktimaren eta haren kargu dauden adingabeen egoera normaltzekoak, enpleguarekin, etxebizitzarekin, osasunarekin eta harreman pertsonalekin lotutakoak, aisia eta denbora libreko gozatzeko neurriak; abiatu diren prozesu judizialak ixtea, hala nola, tratu txarren salaketak, seme-alabak ikusteko bisiten arauak, banantzeak edo dibortzioak; gerora tratu txarrak ez errepikatzeko neurriak, ikusi dituzten harreman-ereduak ez errepikatzeko neurriak hartzea seme-alabekin, etab.

Legeak berak *Gizarte Laguntza Osoa* aipatzen du, hau da, legeak esaten du indarkeria matxistaren biktimak izan diren emakumeek eta haien mendeko adingabeek eskubidea dutela arretako, larrialdiko, laguntzako, harrerako eta oneratzeko osoko gizarte-zerbitzuak eskuratzeko eskubidea dutela.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legeak¹³, 2005ean emandakoak, hau aitortzen du: "apustua, une honetan, zera da, berdintasunerako eskubide hori lege-testuetan formalki aitortua ez ezik, praktikan benetan aplikatua izatea bermatzea (...) halako moldez non emakumeen eta gizonen arteko *desberdintasunaren fenomeno, egiturazkoa eta unibertsal, gizartetik desagerrarazi dadin*." Legearen VII. kapituluak "Emakumeen aurkako indarkeria" izena du, eta, bertan, zenbait neurri arautzen ditu etxean tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeak babesteko; horrez gain, ikerketaren, prebentzioaren eta prestakuntzaren alorreko neurriak ezartzen ditu.

¹¹ Op. Cit.

¹² 1/2004 Lege Organikoa, 2004ko abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa.

¹³ 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

Eusko Jaurlaritzak, Berdintasunerako Planen bidez, genero-indarkeriaren alorreko helburuak eta jarduerak prestatu eta arautu ditu. *EAEko gizonen eta emakumeen berdintasunerako V. Plana* / IX. Legegintzaldiko *Jarraibideak*¹⁴ onartu zen 2010. urtean, eta plan horrek interbentzioko ardatz estrategiko bat du emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean. Ardatz horrek proposatzen du sentsibilizazio- eta prebentzio-lana egitea eta biktimei arreta emateko lan egitea.

*Genero-indarkeriaren kontra Jarduteko Jaurlaritzaren I. Planaren*¹⁵ helburua da jarduera horiek abiaraztea, IX. legegintzaldian Herrizaingo Sailaren mende *Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza* sortu ostean.

Plan honek berariaz erantzuten die Jaurlaritzak ezarritako helburu estrategikoei eta Zuzendaritza horri dagokio “prebentzioa sustatzeko eta genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko programa integralak bultzatzea eta koordinatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean gauzatutako programak eta proiektuak ikuskatzea eta haien jarraipena egitea. Halaber, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko jarduerak bultzatu behar ditu, eta EAEko herriaginteei aholku eman eta haiekin lankidetzan jardun behar du. Herritarrak sentsibilizatzeko neurriak garatu eta bultzatu behar ditu, genero-indarkeriaren biktimen egoerari, eskubideei, laguntza-baliabideei, eta baliabide horiek eskuratzeko bideei buruz”.

Plan horren 1.3. helburu estrategikoaren xedea da “genero-indarkeriaren biktima izan diren emakume guztien eta haren mendeak diren pertsona guztien segurtasuna bermatzea”. Helburu hori betetzeko ekintzen artean, adierazten da ekintzak prestatu behar direla aztertzeke zer iritzi duten EAEko emakumeek beren segurtasunari buruz.

Horrez gainera, 1.4. helburu estrategikoaren xedea da “genero-indarkeriazko kasuetarako arreta- eta jarduera-protokoloak egin eta bete daitezen sustatzea”. Emakumeen aurkako indarkeria aztertzen jarraitu behar dela nabarmendu nahi du helburu horrek.

Bestalde, 3.2. helburu estrategikoak “indarkeriazko jarreraren prebentzioa handitu” behar dela esaten du, eta azterlanak eta ikerlanak egitea da, hain justu, helburu hori betetzeko ezarri den helburu operatiboetako bat. Arautu diren ekintza espezifikoaren artean, emakumeen aurkako indarkeria aztertzeke lanak egin behar direla adierazi da, bai eta “puntu beltzen” mapek erabilera, eraginkortasuna eta zabalkundea aztertzeke lanak ere. Planak hauteman dituen beharrian horietako batzuek bete nahi ditu azterlan honek.

Segurtasunari buruzko iritzi edo pertzepzioa eta hirigintza inklusiboa

Gaur egungo gizartearen ezaugarri gero eta nabarmenetakoago bat da seguruak izan nahi dutela. Segurtasun-beharrian hori inguruneak berak eskatutakoa izan daiteke edo gizartearen eragileek aldarrikatutakoa, baina argi dago bi dimentsio dituela gai horrek: pertsonen izan dezaketen segurtasun edo segurtasun gabezia erreala, gertakari objektiboen ondoriozkoa (lapurretak, erasoak, etab.), eta segurtasuneko edo segurtasun gabeziako sentimen edo pertzepzioa, sentsazioetan eta ingurunearen ikuspegi subjektiboan oinarritua.

Biktimologia errealista, biktimologia feminista eta biktimologia kritikoa izan dira segurtasun gabeziari eta delituarekiko beldurrari buruzko azterlanen gorakada bultzatu duten teoria-ildoak¹⁶. Biktimologia errealista ezkerreko ildo bat da, eta bere xedea da segurtasun gabeziako sentimendua neurtzea, poliziaren demokratizazioa bultzatzea eta zaurgarriak izan daitezkeen taldeak babestea. Hiriguneetan bizi den segurtasun

14 Emakunde. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako EAEko V. Plana - IX. Legegintzaldiko irizpideak. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2010.

15 Op. Cit.

16 San Juan, C. *Mapas de Criminalidad y percepción de seguridad*. Bilbao: Kriminologiaren Euskal Institutua, 2010.

gabezia aztertzen du biktimologia feministak, patriarkatuaren ikuspegia hartuta. Biktimaren kontzeptua erlatibizatu behar dela aldarrikatzen du biktimologia kritikoak, eta esaten du posible dela delituarekiko beldurra eta biktimazioa neurtzea.

Euskadiko Kriminologia Institutua da oinarritzko erreferentea kriminologiari, biktimizazioari, delituarekiko beldurrari eta segurtasun gabeziaren pertzepzioari buruzko azterlanen alorrean, eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailarekin lan egin du, zuzenean edota modu tangenzialean aztertzeko segurtasun gabeziaren pertzepzioak¹⁷. Kriminologia Institutuak *Kriminaltasunari eta segurtasun-pertzepzioari buruzko Mapak*¹⁸ azterlana egin du, eta bertan esaten da alderdi giltzarri hauek azaltzen dutela delituarekiko beldurra: urrakortasun edo ahuleziak (generoa eta adina aldagai adierazgarriak dira, emakumeak eta adineko pertsonak baitira delituarekiko beldur handiena dutenak); biktimizazioa (biktima izatea edo biktima izan den norbait ezagutzea) eta aldagai ekologikoa (auzo-dinamikak, ingurunearen ezaugarriak, toki arriskutsuak, etab.).

Faktore horiek adierazten dute zergatik bizi duten pertsonak errealitatea hain modu ezberdinetan, nahiz eta herritar guztiek jasan dezaketen segurtasun gabezia hori. Generoak ere badu eraginik ikuspegi horretan –emakumeek eta gizonak ez dute sozializatzeko modu bera, eraso-motak aldatu egiten dira batzuen eta besteen kasuan, sexu-identitatearen eraikuntza ezberdina da bi kasuetan, etab.–. Genero-azterketa bat egitea funtsezkoa da ikusteko zer diferentzia dauden gizonen eta emakumeen artean, eta hautemateko zer indarkeria-mota gailentzen diren kasu bakoitzean.

Segurtasunaren edo segurtasun-gabeziaren pertzepzioa da, halaber, espazio publikoen erabilera ulertzeko giltzarrietako bat, espazio edo eremu batzuek segurtasuneko edo segurtasun gabeziako sentsazio handiagoak edo txikiagoak eman baititzakete, eta horrek murriztu edo mugatu egin dezake eguneroko bizitzako zenbait guneren erabilera.

Azken urteetan ekimen ugari abiarazi dira emakumeentzat inklusiboa izango den hirigintza indartzeko, haien ingurunea, eta, batik bat, hiriak, espazio seguru eta irisgarriak izan daitezen.

Hau esaten du Hirian bizi den Emakumearen Europako Gutunak, 1995. urtean adostuak¹⁹: “Emakume guztiek, eta, batik bat, bakarrik eta egoera ahulenean dauden emakumeek, eskura izan behar dituzte garraio-bideak, joan-etorriak askatasunez eta baldintza seguruetan egiteko. Ezinbestekoa da hori egiaz barneratze hiri biziaren ekonomiko, sozial eta kulturalen. Hiri gozatzeko eskubidea dute emakumeek ere. Horrenbestez, behar-beharrezkoa da eguneko eta gaueko hiri-segurtasunaren kontzeptua birpentsatzea, eta lehentasuna ematea emakumeen ikuspuntuari, eta, batik bat, gizarte-bazterketa edo bazterketa kulturala pairatzen duten emakumeen ikuspuntuari. Gizarte-kohesioaren elementuetako bat da biziaren seguru izatearen sentimendua eta sentimendu horrek indartu egiten du hura”.

Metropolietako Emakumeen Nazioarteko Sarearen Bigarren Foroa egin zen 2009an, eta foro horretatik irtendako Seulgo Deklarazioak emakumeentzat adeitsuak diren hirien kontzeptua²⁰ landu zen. Emakumeentzat seguruak izango diren hiriak egiteaz ziharduen hirugarren puntuak, eta bertan esaten

17 Segurtasun gabeziari buruzko pertzepzioen analisisa Euskadin izeneko ikerlana egin zen 1998an delituak prebenitzeko politikekin lotuta, eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta IVAC/KREI erakundeak izenpetu zuten hitzarmenaren baitan (1998). Bestalde, 1999an, Polizia eta herri-segurtasuna ikerlana amaitu zen, hitzarmenak urte horretarako aurreikusten zituen lanen baitan. Horrez gainera, 2000. urtetik 2001eko abendura bitartean, Herrizaingo Sailak azterlan bat egin zuen bi fasetan pertsonen aurkako arau-hauste penalen biktimei buruz, eta, lan horrek, konparatutako ereduetan oinarrituta, biktimazioa neurtzeko proposamen batzuek –batik bat, estatistikaren alorrekoak– egin zituen. Halaber, 2001. urtean, izenburu hau zuen ikerlana egin zen: Prospekzio soziologiko baterako galdetegia sortu, balioztatu eta fidagarri egitea, segurtasun gabeziako pertzepzioa eta delituarekiko beldurra ebaluatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Lankidetzat-ildo horri berari jarraituz, izenburu hau zeraman txostena egin zen 2002an: “Generoa eta biktima: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko nazioarteko inkesta (IVAWS) parte hartzea”. Azterlan pilotua. Era berean, 2002an, lan hau entregatu zen: “Immigrazioaren ebaluazioa eta azterketa EAEn: gizarte kulturantz baten erronka berriak”. Segurtasun gabeziaren eta poliziaren jardunaren arteko loturari buruzko datuak jasotzen zituen lan horrek. 2003an, inkesta bat egin zen EAEko hiru hiriburuetan, hirietako bizitzaren kalitatea eta delituarekiko beldurra ebaluatzeko.

18 Op. Cit.

19 *Hirian bizi den Emakumearen Europako Gutuna*. (1994-95) Europako Batzordeko “Aukera Berdintasunerako Unitateak” diruz lagundutako Ikerketa Ekintza.

20 Varona Martínez, G. *Programa de investigación sobre percepción de inseguridad y mapas de criminalidad*. Bilbao: Kriminologiaren Euskal Institutua, 2010.

zen, hiri seguruak eraikitzeko, neurri egokiak hartu behar direla emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiei aurre egiteko espazio publiko, lantoki eta etxe guztietan; jendeari jabearazteko etxeko indarkeria borrokatu behar dela eta komunitateak eta gobernuz kanpoko erakundeek alor horretan egiten dituzten lanak laguntzeko; eta emakumeen eta neskatuen segurtasuna sustatzeko, eta gero eta segurtasun-pertzepzio handiagoa izateko. Horretarako, jazarpena eta indarkeria jasateko arriskuak desagerrarazi behar dira espazio publiko guztietatik.

Nazio Batuetan Emakumeen Garapenerako Funtsak (UNIFEM) mundu-programa bat gauzatzen ari da 2008tik 2014ra bitartean, emakumeen aurkako indarkeriatik libre dauden hiri seguruen gaia lantzeko. Emakumeek espazio publikoetan pairatzen duten indarkeria lantzen du programa horrek, eta ahalduntzea, hiritarren mobilizazioak eta tokiko agintariekiko lankidetzatitu jardun-ardatz.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hau arautzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak²¹, otsailaren 18koak, 46. artikuluan: "Euskal herri-aginteei beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia barneratuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egin eta pertsonak zaintzea bizitza pertsonala, familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betearazterakoan emakumezkoek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere".

Arkitektura eta hirigintzaren alorrean genero-ikuspegitik egin diren zenbait azterlanek argi utzi dute hirigintza inklusibo baten alde lan egin behar dela. La ciudad compartida. Conocimiento, afecto y uso²² liburua idatzi du María Ángeles Durán autoreak, eta hau esaten du bertan: "Espazioak antolatzea da arkitektura-ren lehen egitekoa. Eraikuntzak egiteko forma edozein dela ere, espazioaren antolamenduak adierazten ditu ordenari eta hierarkiari buruzko ikuspegi orokorra, lehentasunezkoa eta bigarren mailakoa denari buruzkoa eta iraunkorrek eta iragankorrek diren gauzei buruzkoa. Finean, arkitekturak erabakitzen du zer leku dagokion gauza bakoitzari multzo orokorrean, hirian eta kosmosean". Genero-ikuspegi batek eta emakumeen partaidetza gogotsu batek soilik lor dezakete hirigintza gizabanako bakoitzaren errealitateari egokitzea eta pertsonen premia askotarikoak aintzat hartzea.

Hirigintza inklusiboak demokratizatu egiten ditu espazioak, eta pertsonen arteko harremanetan eragiten du. Beste begirada bat, emakumeena, barneratzen du, eta ahaleginak egiten ditu herritar guztiek izan dezaten inguruneke espazioak baliatzeko aukera, pertsonen premietara egokituta; horrez gainera, hirigintza inklusiboak ahaleginak egiten ditu segurtasun-pertzepzioak eragin kaltegarrik izan ez dezan mugitzeko askatasunean. Hirigintza inklusiboaren kontzeptuak bere baitan biltzen ditu, besteak beste, gizarte-kohesioa, bizikidetzatitu, partaidetza, segurtasuna, satisfazioa, estetika eta irisgarritasuna.

Erreferentziazko zenbait azterlan giltzarri

Txosten hau egiteko, hainbat iturri baliatu dira, azterlanean bildutako datuak kontrastatu eta konparatzeko. Hauek dira txostenean gehien aipatuko diren azterlanak:

Segurtasun-pertzepzioari eta hirigintza inklusiboari buruzkoak:

- *EAEko biztanleen segurtasun-pertzepzioa*²³, 2005: Eusko Jaurlaritzak 2005. urtean argitaratutako azterlana da, eta bertan aztertzen da zer segurtasun-pertzepzio duen EAEn bizi eta 18 urte baino gehiago dituzten pertsonak. Etxean 2.872 pertsonari egindako inkesta bat izan zen.

21 Op. Cit.

22 Durán, M A. *La ciudad compartida. Conocimiento, afecto y uso*. Santiago, SUR edizioak, 2008.

23 Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. *EAEko herritarrek segurtasunari buruz duten iritzia edo pertzepzioa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza, 2006.

- *Segurtasun gabeziaren pertzepzioari eta kriminaltasun-mapei buruzko ikerketa-programa*²⁴, 2010: azterlan hau 2010ean argitaratu da, eta, bertan, bibliografia berrikusten da sistematizatzeko zer egoeran dagoen gaur egun “segurtasun gabeziaren pertzepzioa” kriminaltasunarekiko. Alderdi horiek “delituarekiko beldurra” kontzeptupean ere azter daitezke.
- *Hiri debekatuaren mapak*²⁵: Puntu beltzak kokatu nahi dituzte mapa horiek, haiek desagerrarazi eta emakumeen ikuspuntutik urbanizatzeko. Hirietan beldurra edo segurtasun gabezia eragiten duten lekuak identifikatu nahi dira, haiek minimizatzeko, arrisku objektiboa edozein dela ere. Euskal Autonomia Erkidegoan, Donostian egin zen ildo horretako lehen ekimena, 1996an; izan ere, Hiri Debekatuaren Mapa bat abiarazi zuen Plazandreek emakume-plataformak. Gainerako hirietan egin diren mapa ugari (Barakaldon, Basaurin, Ondarroan, Hernanin, etab.) Hiri Kolektiboa²⁶ emakume arkitekto-hirigileen kolektiboak egin ditu. Kolektibo horrek, gainera, gidaliburu ezagun bat plazaratu du: *Hirigintza-azterketako mapak egiteko gidaliburu metodologikoa, genero-ikuspegia eta herri-tarren eguneroko bizitza aintzat hartuta. Hiri Debekatuaren Mapak EAEko udallerrietan* izenekoa. Haren bidez, mapa horiek egiteko behar diren elementuen berri ematen da, eta ildo hori jorratzen duten zenbait saio azaltzen dira. Hiri debekatuak mapak diagnostiko parte-hartzaileak dira²⁷, hirigintza herritarren eta profesionalen artean, elkarlanean, berrantolatzen laguntzeko tresnak.

Hauek dira emakumeen aurkako indarkeriari buruzko azterlanak:

- *Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria*²⁸, 2009: Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratu zuen azterlan hau 2009. urtean, baina aurretik, 2005. urtean, egin zen tankera horretako beste azterlan bat. Bizkaian bizi diren emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa jasotzen du azterlanak, eta, zehazki, 606 emakumeri telefono bidez egindako galdeketa baten emaitzak biltzen ditu. Emakumeen aurka etxe barruan baliatzen den indarkeria aztertzen du lanak, eta bereizi egiten ditu, batetik, azken 2 urteetan egoera-mota horiek bizi izan dituztela aitortu duten emakumeek adierazi duten indarkeria, eta, bestetik, 14 adierazleren multzo batetik ondorioztatutako indarkeria.
- *Indarkeria matxistari buruzko inkesta Katalunian*²⁹, 2010: Bartzelonako Udalak, Emakumeen Kataluniako Institutuak eta Kataluniako Generalitateko Barne Departamentuak bultzatutako lana da, eta bertan jasotzen dira Katalunian bizi diren emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak, pertsonen pertzepzioak eta bizipen pertsonalak aintzat hartuta. Zehazki, 18 eta 70 urte bitarteko 14.122 emakumeri eta 1.501 gizoni telefono bidez egindako inkestetatik ateratako datuak biltzen ditu lanak. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriari buruzko informazioa biltzen du azterlanak, bai eta emakumeen aurka lan-esparruan eta espazio publikoan eragiten den indarkeriari buruzkoa ere. Adierazitako indarkeria aztertzen da nagusiki, baina ia beti zehazten da zer-nolako eraso-motak gertatu diren

24 Op. Cit.

25 Op. Cit.

26 <http://www.hirikolektiboa.org/blog/>

27 Mapa horiek egiteko metodologia aldatu egin ohi da haiek egiteko eskaera egin duen erakundearen arabera eta proiektu bakoitzaren helburu zehatzen arabera. Hala ere, oro har, tailer parte hartzaileak sortuz abiatzen da dinamika (emakumeekin edo ikastetxeetan, ikasleen talde mistoekin): beren herriaren argazki bat egiteko eskatzen zaie, segurtasun gabeziaren ikuspegia hartuz, eta horri buruz eztabaidatzen da, etab. Horrela lortutako informazioa baliatuz, eguneko eta gaueko ibilbideen mapa bat egiten da, eta “puntu beltzak” zehazten dira. Konklusioak udal-teknikarien esku uzten dira, eta galderen eta segurtasun gabezia dakarten lekuen zerrenda bat egiten da, izan daitezkeen konponbideei buruzko debate bat egiteko. Editatu egiten da, puntu beltzak adierazita, emakumeentzat debekatu den hiriaren mapa eta gizartean jakinarazten da egindako lana.

28 Bizkaiko Foru Aldundia. Gizartekintza Departamentua. *Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. Bizkaian egindako ikerketa baten emaitzak*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia. Gizartekintza Departamentua, 2006.

29 Kataluniako Emakumeen Institutua eta Bartzelonako Udaleko Emakumeen Zinegotzigoa. *Indarkeria matxistari buruzko inkesta Katalunian*. Bartzelona: Herrizaingo, Harreman Institutuzional eta Partaidetza Saila, 2010.

- *Sexu-jazarpena lan-esparruan. Haren eragina Euskal Autonomia Erkidegoan, 2007*³⁰: Deustuko Unibertsitateak argitaratu du azterlan hau, eta bere helburua da jakitea sexu-jazarpena zer-nolako arazoa den lan-esparruan eta zer eragin duen esparru horretan. Horrez gain, azterlanaren xedea da jakitea EAEko langileek zeri esaten dioten sexu-jazarpena, eta jazarpen-mota hori pairatu duten emakume batzuen ibilbide pertsonala eta profesionala aztertzea, jazarpena pairatzeko gertaeran eragina izan dezaketen ezaugarri pertsonalak identifikatzen saiatzeko; azkenik, sexu-jazarpenaren inguruko ezaugarri eta inguruabar normalenak aztertzea du xede.
- *Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko IV. Makroinkesta*³¹, 2011: Gobernuak genero-indarkeriaren alorrerako ezarritako delegazioak argitaratu du azterlan hau 2011. urtean, eta bertan jasotzen dira etxe barnean emakumeen aurka baliatzen den indarkeriaren prebalentzia-datuak estatu osorako; hala ere, orain arte bikotekideek edo bikotekide ohiek emakumeen aurka eragindako indarkeriari buruzko datuak soilik ustiatu eta argitaratu dira. Indarkeria jasan duten emakumeek adierazitako indarkeria soilik aztertzen da, baina bereizi egiten da bizitzan noizbait indarkeria pairatu duten emakumeek pairatutakoa eta egun (azken urtean) pairatzen ari diren emakumeek pairatutakoa. Lanaren laugarren edizioa den arren, aurtengoa da, lehen aldiz, 7.898 emakumeren lagin bateko inkesta-sorta lantzen duena, etxeetan.
- *Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko III. makroinkesta*³², 2006: Telefono bidezko inkesta masiboa da, Espainian bizi diren 32.426 emakumeri egindakoa. Inkesta horren bidez, etxeetan emakumeen bikotekideek, bikotekide ohiek eta etxean bizi diren gainerako kideek emakumeen aurka egiten diren indarkeria-ekintzei buruzko informazioa bildu zen. Azterlan horrek bere baitan biltzen ditu adierazitako edo aitortutako indarkeria eta 13 adierazleren multzo bat baliatuz ondorioztatutako indarkeria. Inkesta hori bera egin zen 2002. eta 2004. urteetan, Emakumearen Institutuak bultzatuta.

Taula bat prestatu dugu emaitzen atalean azken lau lan horiekin egiten diren konparazioen testuingurua ikusten laguntzeko. Taulak ez ditu azterlanen ezaugarri nagusiak adierazten, lan batzuen eta besteen arteko diferentziak eta nabardurak adierazten baititu:

30 Ibañez, M.; Lezaun, Z.; Serrano, M; Tomas, G. *Acoso sexual en el ámbito laboral. Su alcance en la C.A. de Euskadi*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 2007.

31 Soziologia Ikerketen Zentroa – CIS. *Macroencuesta de violencia de género 2011*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasun Ministerioa. Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunerako Estatu Idazkaritza. Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza, 2012.

32 Emakumearen Institutua. *III Macroencuesta sobre la violencia contra las mujeres. Informe de resultados*. Madril. Madril: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa. Berdintasun Politiketako Zuzendaritza Nagusia, 2006.

1. Taula.

Azterlan honen eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren alorrean erreferentzia diren beste lan giltzarri batzuen arteko diferentzia nagusiak

Ikerketa-proiektua	Lagina	Aztertutako indarkeria	Indarkeria adierazi edo azalduaren eragin-tasen ezaugarriak	Indarkeria tekniko edo ondorioztatuaren eragin-tasen ezaugarriak
Genero-indarkeria EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna, 2011.	16 urte edo gehiago dituzten emakumeak EAEn.	Bikotekidea edo ohia Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo ohiak eragindakoa ez dena) . Lan-esparrua. Eremu sozial eta publikoak.	Bizitzan zehar pairatua eta gaur egun pairatzen dena.	26 item guztirako eta 15 item larri.
Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria, 2009.	18 urte eta gehiagoko emakumeak Bizkaian.	Etxe indarkeria (*ez dira datuak banakatuta adierazten bikotekidea, ohia edo gainerakoetan).	Azken bi urteetan.	14 itemen ingurukoa.
Indarkeria matxistari buruzko inkesta Katalunian, 2010.	18 eta 70 urte bitarteko emakumeak Katalunian.	Bikotekidea eta ohia. Lan-esparrua. Eremu publikoa.	Azken urtean (bikotekidea, ohia eta lan-esparrua) eta bizitzan (eremu publikoan).	Ez du ematen.
Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko IV makroinkesta, 2011.	18 urte edo gehiagoko emakumeak Espainian.	Bikotekidea eta ohia.	Bizitzan eta azken urtean.	Ez du ematen.
Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko III makroinkesta, 2006.	18 urte edo gehiagoko emakumeak Espainian.	Etxe indarkeria (*ez dira datuak banakatuta adierazten bikotekidea, ohia edo gainerakoetan).	Azken urtean.	13 itemen ingurukoa.
Sexu-jazarpena lan-esparruan, 2007.	Lanean ari diren emakumeak.	Lan-esparrua.	Azken urtean.	11 itemen ingurukoa.

4


AZTERGAIAREN MUGAKETA

Oinarrizko kontzeptuak eta sailkapenak

Aurrez adierazi den moduan, azterlan honetan genero-indarkeria kontzeptuak³³ definizio hau izango du: emakumeek emakume izateagatik pairatzen duten indarkeria, emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman desorekatuen esparruan ematen dena. Zehazki, edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako genero-indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari min fisiko, sexual edo psikologikoa ekartzen badio edo ekar badiezaioke, eta ekintza horien artean sartzen dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan.


Ikerlan-proiektu honek zentzu zabalean aztertu nahi izan du indarkeria; beraz, emakumeen aurka indarkeria eragiteko modu eta mota guztiak aintzat hartu dira.

Alde horretatik, aurreko kapituluari eman diren definizioen harian, indarkeria-modu hauek aintzatetsi dira: indarkeria *fisikoa*, *psikologikoa*, *ekonomikoa*, *sexuala* eta *soziala*.



Bestalde, erasotzailearen eta biktimaren arteko harremanaren erreferentzia hartuta, lau eremu hauek bereizi dira: *bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremua*, *familia barneko genero-indarkeria* (bikotekidea edo bikotekide ohia ez diren senideek eragindakoa), *lan-esparrukoa* (nagusiak, lankideek eta bestelakoek eragindakoa) eta *soziala edo eremu publikokoa* (pertsona ezezagunek edo senideak ez diren ezagunek eragindakoa).

³³ Ikerlan honetan, *genero-indarkeria* eta *emakumeen aurkako indarkeria matxista* terminoak sinonimo moduan erabiliko dira, ematen den definizioak adierazten duen errealitateari erreferentzia egiteko.



Indarkeria-adierazpenen eragina neurtzeko, kasuak aztertzeko bi maila ezarri dira. Alde batetik, bizitzako unerren batean, berariaz edo zuzenean, emakumeen aurkako indarkeria-mota jakin baten biktima sentitu diren emakumeen berri ematen du ikerlanak. Beste alde batetik, ikerlanak beste emakume batzuen egoera aztertzen du, beren burua biktima moduan ikus dezaketenak ala ez, baina, haiei indarkeria-egoerei buruzko galderak egin ostean emandako erantzunei erreparatu ondoren, gaur egun genero-indarkeriako egoeraren bat jasaten edo bizitzen dutela ondorioztatzeko bide ematen dutenak, zeharka bada ere.

Ikerlanak aztertutako taldea

Identifikatzen den taldea da azterlan soziologiko ororen oinarritzko lan-unitatea, eta talde hori identifikatzeko, ezinbestekoa da, aldeaz aurretik, talde horren ezaugarriak finkatzea eta ahalik eta modu zehatz eta operatiboan mugatzea. Ezarritako helburuak aintzat hartuta, gure azterlanaren xedeko taldea izango da, alde batetik, *EAEn bizi diren 16 urte edo gehiagoko pertsonak*, eta, bestetik, *EAEn bizi diren 16 urte edo gehiagoko emakumeak*.



Aztertuko diren gizarte-gertakariak lotura edo harreman zuzen eta berezia izan dezakete ezaugarri soziodemografiko jakin batzuekin, eta, ondorioz, sexuaren eta adinaren kategoria-ezaugarriei erreparatuko diegu, besteak beste, aztertutako herritarren taldeak zehazteko. Ikerlanaren berariazko helburuetako bat da berariaz aztertzea Euskal Autonomia Erkidegoko gazteek zer iritzi edo uste sakon dituzten genero-indarkeriari buruz, eta, helburu horren harian, arreta berezia jarriko zaio *Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen*.

5

METODOLOGIA

Ikerlanaren helburuak lortzeko, metodologia kuantitatiboari nagusitasuna ematea erabaki da; izan ere, metodo horren bidez deskribatzen eta azaltzen dira gizarteko gertakariak, balorazio orokorrak eginez. Ikerlan honek aztertzen duen informazioaren ardatza da *telefono bidezko inkesta* batetik bildu den informazioa. Hala ere, informazio osagarria eskuratzeko, beste teknika batzuk erabili dira; hala nola, *informazio-iturri osagarriak bildu eta aztertzea eta 2.0. euskarriak kontsultatzea* (blogak).

Inkesta

Ikerlanak *telefono bidezko inkesta* bat egin du Euskal Autonomia Erkidegoko 16 urte eta gehiagoko pertsonekin, eta haiengandik bildutako informazioarekin gaur egungo egoera deskribatu daiteke, adierazi berri ditugun berariazko helburuetatik lau helbururi dagokionez (1., 2., 4. eta 5. helburuak).

Lehen fasean zehaztu ziren adierazleak kodetutako galdera bihurtu ondoren prestatu zen galdetegia (Eranskinean ikus daitezke galdera guztiak).

Landa lana

- Landa-lana 2011ko urriaren erdialdetik abenduaren erdialdera egin da. Aintzat hartuta pertsonak etxean topatu behar zirela, deiak ordutegi-tarte ugaritan eta asteko egun guztietan egin dira, igande eta jaiegunetan izan ezik. Horrela jokatura, adin askotako pertsonekin izateko aukera izan dugu, eta ez etxean sarrien izaten direnak soilik. Finean, aurrez ezarritako kuotak bete dira.
- Zailtasunetako bat izan da pertsona gazteak (30 urtetik beherakoak) etxean topatzea. Bereziki zaila da zaila gizon gazteak topatzea. Ikestak egiteko orduak, itxura batean, ez zuten gizon gazteak topatzeko aukera handirik ematen, eta erabaki zen arrats-gauak eta larunbat goizak ere baliatuko zirela deiak egiteko. Bi ordu-tarte horiek egokiagoak izan dira gizon gazteekin hitz egiteko.
- Inkestatzaile guztiek jaso dute prestakuntza landa lana ekin baino lehe, informazioa behar bezala jasoko dela eta irizpide homogeenak erabiliko direla ziurtatzeko. Horrez gain, prestakuntzaren helburuetako bat gaiarekiko sentikortasuna indartzea izan zen, eta bereziki landu da kontzeptu nagusien erabilera.

Unibertsoa eta lagina

- Azterlanaren unibertsoaren banaketari proportzionala zaion lagina hartzea planteatu da, sexuari, adinari, Lurralde Historikoari eta bizilekuko udalerriaren tamainari erreparatuta. Horrez gainera, biztanleen adin-egituraren arabera ordezkapen proportzionala zaintzeko ahalegina egin da emakumeen eta gizonen kasuan, eta sexuen arabera egitura zaintzeko ahalegina egin da Lurralde Historiko bakoitzean.
- Etapa anitzeko laginketa bat egin da, bigarren mailako unitateen (udalerrien) eta azken unitateen (pertsonek) auzoko aukeraketa bat eginez Lurralde Historiko bakoitzean.
- Lagina, estatistikaren ikuspegitik adierazgarria, 2.600 *galdetegikoa* izan da. Lagin horrek +/- % 1,9 ko lagin-errotea eta % 95 konfiantza-maila ditu. Eranskinean kontsulta daitezke unibertsoaren banaketa, lagina estratuak banatuz adierazia eta lagin-tamainak, azterketaren xede izan diren populazioen arabera (1. helburua: 2.600 pertsona; 2. helburua: 435 gazte; 4. eta 5. helburuak: 1.340 emakume).

Informazio-iturri osagarriak bildu eta aztertzea

Teknika hau erabili da genero-indarkeriaren egungo egoeraren berri izateko eta erreferentzia-esparru bat osatzeko informazioa biltzeko. Ikerlanaren azken kapituluak kontsulta daitezke aintzat hartu diren bibliografia-erreferentziak.

Dokumentazioa eskuratu eta berrikusteko lanak aukera eman du ikerlanaren testuingurua kokatzeko informazio egokia eta eguneratua baliatuta, eta, horrez gain, ikerlana egiteko euskarri diren adierazlean identifikatzeko aukera eman digu (3. helburua). Halaber, lehen adierazi ditugun erreferentziatzko ikerlanen datuak baliagarriak izan dira ikerlana aberasteko.

Bloga

Galdetegiak segurtasunari buruz ematen duen informazioa osatzeko, blog bat sortu da. Blog hori eskuragarri izan da ikerlana abian jarri zen momentutik (4 hilabetez izan da eskuragarri). Bloga sortzearen helburua izan da informazio-iturria eta, aldi berean, debaterako gunea izatea.

Espazio birtual bat prestatu da hirigintza inklusiboaren garaiarekiko interesa duten emakume guztientzat, "puntu beltzak eta herritarren segurtasuna" izeneko gaiari buruzko informazioa trukatzeko. Edukiak berrikusi eta aldatu egin dira azterlanaren faseetan, eta hiru eduki-multzo hauetan banatu dira: Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen segurtasunari buruzko hausnarketa orokorra; puntu beltzak zehaztea udalerrietan; eta segurtasuna handitzeko proposamenak.

<http://opinionmujerescapv.wordpress.com/identificacion-de-puntos-negros-en-tu-municipio/>

Blogaren helbidearen berri emateko, gutun bat bidali zaie Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratuta dauden emakume-elkarteei eta euskal udaletako emakumeen eta berdintasunerako sailei.

6

EMAITZA NAGUSIAK

Kapitulu honek, adierazi den moduan, hiru azpi-atal ditu, eta horietan adierazten da ikerlanetik eta haren baitako azterketa-lanetik eratorritako informazio guztia. Kapituluari zehar, antzeko ikerlanetarako erreferentzia ugari egin dira, emaitzak haien testuinguruan kokatzeko.

- 6.1. EAEko herritarrek genero-indarkeriari buruz duten pertzepzioa eta iritzia.
- 6.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eragina EAEn.
- 6.3. EAEko herritarrek segurtasunari buruz duten iritzi edo pertzepzioa.

6.1.

EAE-KO HERRITARREK GENERO-INDARKERIARI BURUZ DUTEN PERTZEPZIOA ETA IRITZIA

Gizartean zabaldua dauden iritzi edo usteen atzean, azalpen kulturalak aurki ditzakegu, gertakariak azaldu eta ulertzeko ematen direnak. Kanpotik datozkigun pentsamolde edo sinesmenak izaten dira, eta gure inguruko pertsonen balioak, jarrerak, jokabideak, pentsamoldeak eta antzeko jarduerak gure egiten ditugunean sortzen dira. Txikitatik sortzen zaizkigu, eta bizitzako une guztietan garatzen dira gure baitan. Uste edo sinesmen horien horietan oinarrituta, gizabanakoek egiazkotzat hartzen dituzte ideia jakin batzuk.

Uste edo sinesmen jakin batzuek eragin handia izan dute emakumeek eta gizonek historian zehar izan dituzten harremanetan; horrez gain, nabarmena izan da sinesmen horiei lotutako estereotipo, rol eta balioen eragina, gizonen eta emakumeen kokapena baldintzatu baitute. Hori horrela, uste zabaldua da emakumeak sexu ahula direla, gizonen jokabidea arrazoiari oinarritzen dela eta emakumeena emozioetan, emakumeak esanekoak izan behar dutela, etab. Sinesmen edo uste zabalduak izan dira horiek gizartean eta, oraindik ere, presente daude askorentzat.

Bada uste zehatzagorik ere, batzuetan nahiko zabalduak, emakumeen aurka erabiltzen den indarkeriari buruzkoak. Horren adibide dira, esaterako, genero-indarkeriaren atzeko arrazoiak erasotzailearen arazo psikologikoak edo substantzien kontsumoa direla pentsatzea; genero-indarkeria soilik gizarte-maila apaleko jendeari gertatzen zaiola uste izatea, edo pentsatzea indarkeria, zenbaitetan, emakumeek eragindako egoeren ondorioko gertaera dela.


Uste horiek eta antzeko beste batzuk errotuta eta oso zabaldua egon daitezke gizartean –alde batera utzita izaera objektiboagoa duten informazioek uste horiek ezeztatu edo arrazoigabetu ditzaketela–. Pentsamolde horrek emakume eta gizonen arteko egoera desorekatua denboran iraunarazten lagun dezake, eta emakumeen aurka indarkeria matxista erabiltzeko jokabideak hauspo ditzake.

Azken urteotan, sentsibilizazio-lan handia egin da Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrekin emakumeen aurkako indarkeriaren gaia lantzeko, eta, oro har, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna indartzeko. Lehenetsuna eman zaio genero-indarkeria eragiteko moduak ikusarazteko sentsibilizazio-lanari, gizonen eta emakumeen arteko egoera desorekatuaren ondoriozko gizarte-arazoa dela adierazi eta hura murrizten joateko, harik eta erabat desagerrarazten den arte.

Zaila da jakiten zer-nolako eragina izan duten sentsibilizazio-neurriek gizartean, baina herritarrek duten iritzia nahiko neurgailu ona izan daiteke eragin horren berri izateko. Iritzi edo pertzepzio horiek aukera ematen dute gai baten egoeraren berri izateko eta jendeak gertaera jakin bati buruz duen iritzia jakiteko, gizarte-egoerei buruzko balorazioak eta egoera horietan dituzten zereginen edo aukeren balorazioak adierazten dituzten aldetik. Herritarrek emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruz, estereotipoei buruz edo rolen ezarpenari buruz dauden pentsamoldeak neurtzea lagungarria izan daiteke interbentzio-estrategiak berri eta hobeak ezarri eta sexuen arteko berdintasuna sustatzeko.

Kapitulu honetan, *Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek genero-indarkeriari buruz dituzten iritziak edo usteak aztertzen dira*, honako hauek jakiteko: gizarteak zer-nolako kezka ageri duen gizarte-arazo honekiko; gizarteak nola ikusten duen arazoa; indarkeria-mota horren gainean errotuen dauden uste edo iritziak; indarkeria-kasuen aurreko erreakzio ohikoenak; eta interesgarriak diren eragile batzuen jardunari buruz dagoen iritzia.

Galdera hauek erantzun nahi izan dira kapituluaren zehar:



Larritzat hartzen al dute herritarrek genero-indarkeriaren arazoa?

Gero eta kezka handiagoa hautematen da azken urteetan emakumeen aurkako indarkeriaren arazoarekin, bai eskumendun diren erakunde eta organizazioen aldetik, bai komunikabideen eta gizartearen aldetik. CIS erakundearen Barometroak 2000. urtean jaso zuen lehen aldiz "emakumeen aurkako indarkeria" herritarrek bat batean eta aurrez aukeran jarri bate adierazitako arazo larri moduan. Estatuan egindako iritzi-azterketa horrek hileroko barometro guztietan jaso du, ordudanik, emakumeen aurkako indarkeriaren gaia, eta horrek adierazten du herritarrek kezkatuta daudela gaiarekin, Espainiako herritarren eta/edo galdetuak izan diren pertsonen ustez hura baita egungo hiru arazo larrienetako bat.

Gaiari buruzko gero eta kezka handiagoa dagoela ikusten denez, gaur egun arazoari nolako larritasuna ematen zaion jakitea komeni da, eta, horretarako, aztertu egin behar da zer pentsatzen duten herritarrek emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruz.


Europar Batasuneko Eurobarometroak³⁴ genero desoreka edo desberdintasunei buruz egindako azken neurketak adierazten du Espainiako herritarren % 75ek uste duela genero-indarkeria dela desoreka horrekin lotutako arazorik larriena, eta iritzi hori bera dute Europako herritarren % 48k.

Iritzi azterketaren arabera, eraso matxistak dira arazo handiena Espainian eta Europan, eta horren atzetik datoz irabazitako soldatetan gizonen eta emakumeen artean dauden aldeak (% 42 eta % 43, hurrenez hurren) eta emakumeen salerosketa eta prostituzioa (% 42 eta % 36).

Euskal soziometroak³⁵ 2011n emandako azken datuen arabera, herritarren % 95ek uste du gizarte-arazo larria dela emakumeek pairatzen duten indarkeria (ados edo oso ados ageri dira iritzi horrekin).

Azterlan horrek egiaztatu du, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan, *galdetuak izan diren pertsona gehienek ustez, (% 82,2) genero-indarkeria gizarte-arazo oso larria dela*. Ehuneko hori % 98,1era igotzen da, baldin eta indarkeria hori nahiko larria dela uste duten pertsonak aintzat hartzen badira.

Ez da alde nabarmenik hauteman galdetuak izan diren pertsonen probintziaren arabera, ezta bizi diren udalerriaren tamainaren arabera ere³⁶.



1. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeriaren arazoaren larritasunari buruzko pertzepzioa. Emaita orokorrak (%)

34 EUROPAKO PARLAMENTUA. Flash Eurobarometroa, 341. Las desigualdades de género en la Unión Europea. Parlamento Europeo, 2012.

35 Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. *Euskal Soziometroaren 47. alea. Gizarte-desberdintasunak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaur-larritza. Lehendakaritza, 2011ko abendua.

36 Eranskinean kontsulta daitezke datuak, banakatuta.

Herritar gehien-gehienak bat datoz esatean emakumeen aurkako indarkeria arazo nahiko edo oso larria dela; beraz, erabaki da egokia dela iritzien arteko diferentziak topatzen saiatzea galdetuak izan diren pertsonen ezaugarri sozial eta demografikoei erreparatuta, eta gehienek emandako erantzunen bi kategoriak aintzat hartuta (nahiko edo oso larria da).

Emakumeek dute iritzi irmoena arazoaren larritasuna baloratzean. Galdetuak izan diren emakumeen % 85,1ek uste du indarkeria-mota hori erabiltzea oso larria dela, eta gizonek, berriz, ez dute hain iritzi irmoa, % 79,2 baitira indarkeria hori larritasun handiz ikusten dutenak. Horrez gainera, gizonen % 3,2k uste du arazoa ez dela larria edo larritasun apalekoa dela (emakumeen % 1 baino gutxiago dira horrela pentsatzen dutenak).

2. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeriaren arazoaren larritasunari buruzko pertzepzioa.
Emaiza orokorrak eta sexuaren arabera (%)

(*)	OROKORRAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Ez da larria	0,2	0,2	0,2
Larritasun gutxikoa	1,8	0,7	3,0
Nahiko larria	15,9	14,1	17,7
Oso larria	82,2	85,1	79,2
Guztira	100	100	100

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakutsitako aldagaien gurutzatzeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$). Kasu honetan, diferentziak adierazgarriak dira nahiko larria eta oso larria kategoriak soilik konparatzen direnean.

Alderdi horri buruzko informazio gehiago eskuratzeko, bereizita begiratu nahi izan dira gizonen eta emakumeen emaitzak, beste aldagai batzuen arabera banakatuta.

Ez da iritzian alde handirik ikusten galdetua izan den pertsonaren egoera zibila³⁷ edo seme-alabak dituen ala ez kontuan hartzen bada, baina datuek adierazten dute alderik badela gizonek arazoari buruzko larritasunari buruz azaltzen dituzten datuetan bikotekidea duten ala ez duten aintzat hartzen bada. Hala ere, ez da hori bera gertatzen emakumeen kasuan. *Bikotekidea duten gizonek larritasun handiagoa ematen diote arazoari bikotekiderik ez duten gizonek baino* (bikotekidea dutenen % 81,1 eta ez dutenen % 74,2), eta emakumeen kasuan, berriz, diferentziak ez dira adierazgarriak, estatistikaren ikuspegitik.

37 Eranskinean kontsulta daitezke datuak, banakatuta.

3. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arazoaren larritasunari buruzko pertzepzioa.
Sexuaren eta bikotekidea izatearen arabera (%)

	GIZONAK (*)		EMAKUMEAK	
	Bikotekidea du	Ez du bikotekiderik	Bikotekidea du	Ez du bikotekiderik
Ez da larria	0,2	0,0	0,2	0,0
Larritasun gutxikoa	2,5	4,0	1,5	2,3
Nahiko larria	16,2	21,8	15,1	17,8
Oso larria	81,1	74,2	83,2	79,9
Guztira	100	100	100	100

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakutsitako aldagaien gurutzatzeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$). Kasu honetan, diferentziak adierazgarriak dira nahiko larria eta oso larria kategoriak soilik konparatzen direnean.

Bestalde, belaunalditik belaunaldira izan daitezkeen diferentziak zehaztea funtsezko lana da, hura baita ikerlan honen berariazko helburuetako bat, arreta berezia jartzea herritar gazteenek duten iritziari. Herritar gazteek bizi duten garaiak, beste garai antzinagoko batzuekin alderatuz, aldaketa nabarmenak erakusten ditu emakumeek gizartean duten izaerari eta betetzen dituzten rolei dagokienez, eta, ondorioz, aldaketa horien norainokoa neurtzeko aukera ematen du gazteen iritzia aztertzeak.

Hasiera batean, ezin da esan lotura adierazgarri bat dagoenik, estatistikaren ikuspegitik, adinaren eta larritasunaren iritzi edo pertzepzioaren artean. Hala ere, datuen banaketa aztertzen badugu muturreko adin-taldeetan (30 urte baino gutxiagokoak eta 65 urtetik gorakoak), *ikusten da gazteen balorazioa ez dela besteena bezain irmoa*.

4. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arazoaren larritasunari buruzko pertzepzioa.
Emaita orokorrak adinaren arabera (%)

	GUZTIRA	16-29 urte	30-39 urte	40-49 urte	50-65 urte	> 65 urte
Ez da larria	0,2	0,2	0	0	0,2	0,3
Larritasun gutxikoa	1,8	1,6	1,6	2,3	1,8	1,6
Nahiko larria	15,9	17,7	16,0	16,0	16,1	13,9
Oso larria	82,2	80,4	82,4	81,7	81,8	84,2
Guztira	100	100	100	100	100	100

Indarkeria hori oso larria dela iritzi dute 65 urte baino gehiago duten pertsonen % 84,2k, eta ehuneko hori % 80,4koa da gazteen artean. Diferentzia horren arrazoia da gazteen artean gehiago direla, zaharren artean baino, arazoari larritasun arinagoa ematen diotenak, hau da, gazteen artean gehiago dira arazo nahiko larria dela irizten dutenak.

Nabarmendu behar da *gizonen eta emakumeen artean larritasunari buruzko iritzian ikusten den distantzia ez dela era edo modu berean ikusten edo adierazten gazteen artean*. Ez da oso handia indarkeriaren ara-

zoa oso larria dela irizten duten emakumeen ehunekoaren (% 81,6) eta balorazio hori bera egiten duten gizonen proportzioaren (% 79,3) arteko aldea.

5. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arazoaren larritasunari buruzko pertzepzioa.
Gazteek emandako emaitzak (16-29 urte) eta sexuaren arabekoak (%)

	16-29 urte	EMAKUMEAK 16-29 urte	GIZONAK 16-29 urte
Ez da larria	0,2	0,5	0,0
Larritasun gutxikoa	1,6	0,5	2,7
Nahiko larria	17,7	17,5	18,0
Oso larria	80,4	81,6	79,3
Guztira	100	100	100

Ikusten diren diferentzia orokorren azalpena da, neurri handi batean, 65 urtetik gorako emakumeen eta gizonen iritzien artean alde nabarmenak daudelako. Izan ere, 65 urtetik gorako gizonen % 77,6k uste du genero-indarkeriaren arazoa oso larria dela, eta ehuneko hori, berriz, % 89koa da 65 urte baino gehiago dituzten emakumeen kasuan.

6. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arazoaren larritasunari buruzko pertzepzioa.
Adinekoek emandako emaitzak (>65 urte) eta sexuaren arabekoak (%)

(*)	> 65 urte	EMAKUMEAK > 65 urte	GIZONAK > 65 urte
Ez da larria	0,3	0,3	0,4
Larritasun gutxikoa	1,6	0,3	3,3
Nahiko larria	13,9	10,4	18,7
Oso larria	84,2	89,0	77,6
Guztira	100	100	100

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakutsitako aldagaien gurutzatzeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$). Kasu honetan, diferentziak adierazgarriak dira nahiko larria eta oso larria kategoriak soilik konparatzen direnean.

Ez dirudi pertsonen ikasketa-mailak lotura berezia duenik arazoaren larritasunari buruzko iritzia hartzerakoan, emaitzek ez baitute joera argirik ageri.

7. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arazoaren larritasunari buruzko pertzepzioa.
Emaizak sexuaren eta ikasketa-mailaren arabera (%)

	GIZONAK				EMAKUMEAK			
	Ez da larria	Larritasun gutxikoa	Nahiko larria	Oso larria	Ez da larria	Larritasun gutxikoa	Nahiko larria	Oso larria
Alfabetati gabeak/ Lehen Hezkuntza egin gabeak	0,0	0,0	19,2	80,8	0,0	0,0	12,3	87,7
Lehen Hezkuntza/ Eskola Graduata	0,3	3,3	20,0	76,4	0,4	1,3	15,8	82,5
LH (I edo II)	0,3	3,0	15,9	80,8	0,0	0,4	15,0	84,6
Bigarren mailakoak	0,0	2,9	15,2	81,9	0,0	0,8	14,2	85,0
Unibertsitateko titulazioa	0,0	3,5	18,0	78,5	0,0	0,3	12,2	87,5
Bestelakoak	0	0	11,1	88,9	0	0	12,5	87,5

Hala ere, datuak gurutzatuz gero, ikusten da, jendearen iritzia haien lanbidearekin lotzen badira, emakumezko ikasleak eta langabezia dauden emakumeak direla, batik bat, arazoaren larritasuna gehien erlatibizatzen duten taldeak, eta joera hori, gehien bat, gazteenen artean ikusten dela. Gizonen artean ez da alde edo diferentzia handirik ikusten, eta lanean dauden gizonak dira arazoari larritasun handiena ikusten diotenak.

8. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arazoaren larritasunari buruzko pertzepzioa.
Emaizak sexuaren eta lan-egoeraren arabera (%)

	HOMBRES				MUJERES (*)			
	Ez da larria	Larritasun gutxikoa	Nahiko larria	Oso larria	Ez da larria	Larritasun gutxikoa	Nahiko larria	Oso larria
Lanean	0,0	2,4	15,8	81,8	0,2	1,0	12,8	86,0
Ordaindu gabeko etxeko lanak	0,0	0,0	0,0	100,0	0,4	0,4	11,8	87,5
Ikaslea	0,0	4,0	18,4	77,6	0,0	1,2	20,7	78,0
Langabezia	0,5	2,7	21,7	75,0	0,0	0,0	20,2	79,8
Pentsioduna edo ereritatua	0,3	3,5	18,8	77,4	0,0	0,4	12,4	87,3
Besteren bat	0	12,5	25	62,5	0	10	10	80

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakutsitako aldagaien gurutzatzeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$). Kasu honetan, diferentziak adierazgarriak dira nahiko larria eta oso larria kategoriak soilik konparatzen direnean.

Galdetuak izan diren pertsonen etxean duten maila sozioekonomikoak ere ez erakusten joera argirik, aztertu diren emaitzek adierazten baitute ez dagoela alde nabarmenik mailatik mailara.

9. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arazoaren larritasunari buruzko pertzepzioa.
Emaitzak sexuaren eta etxeko hileko diru-sarreraren arabera (%)

	GIZONAK			EMAKUMEAK		
	< 1,000 €	1.000-3.000 €	> 3.000 €	< 1,000 €	1.000-3.000 €	> 3.000 €
Ez da larria	0,0	0,1	0,9	0,0	0,3	0,0
Larritasun gutxikoa	2,9	3,3	3,5	0,9	0,6	0,0
Nahiko larria	20,4	16,0	12,2	14,6	14,7	10,5
Oso larria	76,7	80,6	83,5	84,5	84,4	89,5
Guztira	100	100	100	100	100	100

Bestalde, ahalegin bat egin da herritarren ideologia-kokapena eta gaiari buruz duten iritzia arteko harremana zehazteko. Azterketa hori eginda, estatistika-datuek adierazten dute bi aldagai horien elkar-ketak emaitza adierazgarriak ematen dituela nahiko larria eta oso larria kategoriak konparatzean (herritar guztien eta gizonen kolektiboaren datuetan). *Beren burua ezkerreko ideologiaren baitan kokatzen duten pertsonen joera da larritasun handiena ematea* arazoari, eta beren burua zentroan edo eskuinean ikusten dutenek maizago mugitzen dira nahiko larriaren eta oso larriaren arteko balorazioan. Ez da egiaztatu, ordea, loturarik dagoenik arazoari ematen zaion larritasunaren eta herritarren erlijio-sinesmenen artean³⁸.

10. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arazoaren larritasunari buruzko pertzepzioa.
Emaitzak sexuaren eta ideologiaren arabera (%)

	GIZONAK (*)			EMAKUMEAK		
	Ezkerrekoa	Zentrokoa	Eskuinekoa	Ezkerrekoa	Zentrokoa	Eskuinekoa
Ez da larria	0,0	0,8	0,0	0,0	1,2	0,0
Larritasun gutxikoa	3,7	3,1	4,8	0,2	1,2	1,6
Nahiko larria	11,8	19,2	11,9	12,6	12,4	19,7
Oso larria	84,6	77,0	83,3	87,2	85,1	78,7
Guztira	100	100	100	100	100	100

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakutsitako aldagaien gurutzatzeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$). Kasu honetan, diferentziak adierazgarriak dira nahiko larria eta oso larria kategoriak soilik konparatzen direnean.

³⁸ Eranskinean kontsulta daitezke datuak, banakatuta.

Genero-indarkeriari buruz aurrez egindako zenbait azterlanek adierazi dute garrantzitsua izan daitekeela galdetuak diren pertsonen herritartasuna aintzat hartzea. Ondoren, zenbait datu banakatu emango ditugu alderdi horri buruzko zenbait argibide emateko, baina kontuan izan behar da orientaziorako datuak baino ez direla, ikerlan honek hartu duen pertsona atzeritarren lagina³⁹ murrizta baita. Ondorioz, ezin da konklusio irmorik atera nazionalitatearen eta beste aldagai batzuen arteko gurutzaketatik.

Gaineratu behar da beharrezkoa dela kontuan izatea, herritartasunaren arabera banakatutako datuak behar bezala aztertzeke, galdetu diren pertsona atzeritarren lagineko pertsona gehienak gazteak direla –horretan, gizartearen ildo nagusiari jarraitzen zaio, atzeritar gehienak gazteak diren aldetik–. Berariaz, lagineko atzeritarren % 82,2k 50 urte baino gutxiago dituzte eta ehuneko hori % 53,3koa da atzerrikoak ez diren pertsonen artean. Horrenbestez, adinaren aldagaiaren efektua orekatzeke ahalegina egin dugu, eta 50 urte baino gutxiago duten pertsonen taldeak emandako erantzunak aztertu ditugu soil-soilik, zorroztasun handiagoz konparatu ahal izateko atzerriko herritarrek eta atzeritarrak ez direnek emandako emaitzak.

11. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arazoaren larritasunari buruzko pertzepzioa.
50 Urtetik beherako herritarren emaitzak naziotasunaren arabera (%)

	ATZERITARRAK EZ DIRENAK (< 50 urte)	BIZTANLE ATZERITARRAK (< 50 urte)
Ez da larria	0,0	1,1
Larritasun gutxikoa	1,9	1,1
Nahiko larria	16,4	18,2
Oso larria	81,7	79,5
Guztira	100	100

Datuek oso alde txikiak erakusten dituzte 50 urtetik beherako atzeritarrek eta atzeritar ez direnek indarkeriaren larritasunari buruz eman dituzten iritzien artean, baina atzeritarrek arazoaren larritasuna erlatibizatzeke joera handiagoa dutela dirudi.

Alde txiki horiek emakumeen iritzietan ikusten dira, batik bat. Emakume atzeritarren % 3k uste du arazo hori ez dela larria edo larritasun gutxi duela, eta atzeritarrak ez diren emakumeen artean ehuneko hori % 0,8ra jaisten da.

³⁹ Horrez gainera, kontuan izan behar da, kontsulta horretan, galdetuak izan diren pertsonen ordezkapena gizartearen dutena baino txikiagoa dela; izan ere, galdetuak izan diren pertsonen % 4,1 soilik dira atzeritarrak, eta Eustat erakundearen Biztanleen Udak Estatistikak adierazten du 2010eko urtarilaren 1ean EAEko herritar guztien % 7,8 zirela atzerrikoak.

12. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arazoaren larritasunari buruzko pertzepzioa.
50 Urtetik beherako herritarren emaitzak sexuaren eta naziotasunaren arabera (%)

	GIZONAK <50 años		EMAKUMEAK <50 años	
	Ez atzerritarrak	Atzerritarrak	Ez atzerritarrak	Atzerritarrak
Ez da larria	0,0	0,0	0,0	1,5
Larritasun gutxikoa	2,9	0,0	0,8	1,5
Nahiko larria	16,9	21,7	15,8	16,9
Oso larria	80,2	78,3	83,4	80,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Galdetutako jendearen ustez, zer-nolako bilakaera izan dute indarkeria-mota horretako kasuek?

Zaila da jakitea zer-nolako bilakaera izan duen azkenaldian emakumeen aurkako indarkeria matxistak. Kontuan izan behar da ez dela aspaldi indarkeria-mota hau gizarte-arazo moduan ikusten hasi dela; beraz, ez da horri buruzko azterlan ugari egin iraganean. Izan ere, gaiari buruzko informazio enpirikoa oso urria izan da 1999. urtera arte. Urte horretan sustatu zuen Emakumearen Institutuak lehen makroinkesta emakumeen aurkako indarkeriaren tamainaren eta ezaugarrien berri izateko. Estatuan egindako inkesta izan zen, eta etxeko (edo familiako) indarkeriara mugatuta⁴⁰.

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta emateko Zuzendaritzaren datuek adierazten dute 4.285 biktimizazio⁴¹ erregistratu zirela guztira 2010. urtean (3.500 emakume inguru izan ziren biktima), 2002. urtean erregistratu zen kopuruaren bikoitza. Ertzaintzak erregistratutako indarkeriari buruzko datuak bakarrik kontabilizatzen diren arren, ikusten da handitu egin dela emakumeen aurkako indarkeria-kasu erregistratuen kopurua. Kasuen kopuruaren igoera horren azalpena izan daiteke, alde batetik, gero eta gehiago ikusten dela indarkeria-mota hori, gizarte-arazo nagusien artean baitago orain, eta, bestetik, indarkeria pairatzen duten emakumeek sentsibilizazioaren eta arazoaz jabearaztearen arloan egindako lanak eragina izan duela kasuen azaleratzean.


Galdetuak izan diren hiru pertsonetatik bik uste du handitu egin dela azken urteetan emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuen kopurua. Galdetuen ia % 30ek esaten du kasuen kopuruak antzekoak direla orain eta soilik % 3,7k uste du kasu gutxiago ematen direla gaur egun.

Pertzepzio edo iritzi horien arteko aldeak ez dira, inondik ere, nabarmenak lurraldetik lurraldera⁴².

⁴⁰ Op. Cit.

⁴¹ Datuek biktimizazioak adierazten dituzte, hau da, gertakariak adierazten dituzte eta ez pertsona/biktimak. Pertsona bat zenbat aldiz izan den lege-hauste baten helburu, epe jakin batean, Ertzaintzaren dokumentuetan biktima bezala azaltzen delarik. Adibide hau argigarria izan daiteke: pertsona batek zenbait mehatxu pairatu eta dagozkion salaketak jarri ditu; salaketa bakoitzak biktimizazio bat dakar.

⁴² Eranskinean kontsulta daitezke datuak, banakatuta.



2. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eboluzioari buruzko pertzepzioa. Emaita orokorrak (%)

Bada alderik emakumeek eta gizonen arazoaren bilakaeraz adierazten duten iritzian. Izan ere, gizonen % 57,8k uste du genero-indarkeriako kasuen kopuruak gora egin duela azken urteetan, eta ehuneko hori, berriz, % 75,4koa da emakumeen artean.

13. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eboluzioari buruzko pertzepzioa.
Emaita orokorrak eta sexuaren arabekoak (%)

(*)	OROKORRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Gehiago dira	66,9	75,4	57,8
Antzekoak	29,3	22,6	36,6
Gutxiago dira	3,7	2,0	5,6
Guztira	100,0	100,0	100,0

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Idea horren harian, 2010. urtean egin zen *Encuesta de violencia machista a Cataluña*⁴³ azterlaneko datu batzuk nabarmentzea komeni da. Azterlan horren datuen arabera, Katalunian bizi diren emakumeen % 37,4k eta gizonen % 27,2k uste dute igo egin dela, azken urteetan, eraso matxisten kopurua eremu publikoetan; emakumeen % 12,4k eta gizonen % 9,5ek uste du bilakaera hori negatiboa izan dela lan-esparruan; eta emakumeen % 47,7 eta gizonen % 24,4 bat datoz esatean igo egin dela, haien ustez, bikotekideek eta bikotekide ohiek emakumeei egindako erasoaren kopurua. Finean, azterlan horren emaitzek ikuspegi baikorragoa adierazten dute arazoaren bilakaerari buruz, EAEn egindako inkestetako emaitzek baino.

Gai horren inguruan, adinak alde adierazgarriak erakusten ditu estatistikaren ikuspegitik. *Pertsonen adinak gora egin ahala, handitu egiten da indarkeria-kasuen kopuruak gora egin duela pentsatzeko joera.*

14. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eboluzioari buruzko pertzepzioa.
Emaiza orokorrak adinaren arabera (%)

(*)	OROKORRA	16-29 urte	30-39 urte	40-49 urte	50-65 urte	> 65 urte
Gehiago dira	66,9	53,2	59,1	67,4	72,8	77,7
Antzekoak	29,3	36,7	37,8	30,3	24,9	20,1
Gutxiago dira	3,7	10,1	3,1	2,4	2,3	2,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Herritar gazteenek (16-29 urte) duten ikuspegiari erreparatuta, ikusten da *sexuen arteko diferentzia ez direla adin guztien batura egitean irteten diren bezain handiak*, nahiz eta, estatistikaren ikuspegitik, alde horiek adierazgarriak diren oraindik ere.

15. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eboluzioari buruzko pertzepzioa.
Gazteek emandako emaitzak (16-29 urte) eta sexuaren arabekoak (%)

(*)	16-29 urte	EMAKUMEAK 16-29 urte	GIZONAK 16-29 urte
Gehiago dira	53,2	58,1	48,6
Antzekoak	36,7	36,0	37,4
Gutxiago dira	10,1	5,9	14,0
Guztira	100,0	100,0	100,0

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Bestalde, ikusten da lotura edo harreman bat dagoela indarkeria-kasuen bilakaerari buruz dagoen pertzepzioaren eta arazoari ematen zaion larritasunaren artean; hala, *zenbat eta larritasun handiagoa eman bilakaera horri, orduan eta joera handiagoa dute pertsonen pentsatzeko kasuen kopuruak gora egin duela azken urteetan*.

16. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eboluzioari buruzko pertzepzioa.
Emaizak arazoari ematen zaion larritasunaren arabera (%)

(*)	EZ DA LARRIA	LARRITASUN GUTXIKOA	NAHIKO LARRIA	OSO LARRIA
Gehiago dira	25,0	34,9	59,7	69,1
Antzekoak	50,0	48,8	34,0	27,9
Gutxiago dira	25,0	16,3	6,2	3,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakutsitako aldagaien gurutzatzeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$). Kasu honetan, diferentziak adierazgarriak dira nahiko larria eta oso larria kategoriak soilik konparatzen direnean.

EAEko herritarren iritziz, gizonen zer-nolako sentsibilizazio-maila dute genero-indarkeriarekiko?


Euskal gizarteak uste du gizonen sentsibilizazio-maila genero-indarkeriarekiko 6,2koa dela 0tik 10erako eskala batean, eta horrek esan nahi du, nolabait, jendeak gaintutzat ematen duela irakasgai hori, baina, hala ere, egoera ez dela, oraindik, oso ona. Galdetuak izan diren pertsonen balorazioa nahiko antzekoa izan da hiru probintzietan.

17. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruz gizonen duten sentsibilizazio-mailari buruzko iritzia. Emaita orokorrak eta Lurralde Historikoen arabera. Batez besteko puntuazioa 0 eta 10 puntu bitarteko eskalan.

OROKORRA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
6,2	6,2	6,1	6,2

Hala ere, emakumeen eta gizonen iritzien arteko aldeak adierazgarriak dira estatistikaren ikuspegitik, eta horrek esan nahi du sexu-aldagaiak eragina duela gai horri buruzko iritzia finkatzerako orduan. Emakumeen iritzia nabarmen kritikoagoa da gizonena baino (emakumeen 5,8 puntuko balorazioa egiten dute eta gizonen 6,6koa).



3. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruz gizonen duten sentsibilizazio-mailari buruzko iritzia. Emaita orokorrak, sexuaren (*) eta adinaren (*) arabera. Batez besteko puntuazioa 0 eta 10 puntu bitarteko eskalan

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($F < 0,05$).

Galdetuak izan diren belaunaldien arteko balorazioak aztertuz gero, ikusten da adinak ere baduela eraginik horri buruzko iritzietan. Gizonengan sentsibilizazio-maila apalena ikusten duen herritar-taldea 65 urtetik gorakoa da; hala ere, adierazi behar da talde horren emaitzen batez bestekoek beste talde batzuen emaitzekiko ageri duen aldearen arrazoi nagusia *adineko emakumeen puntuazio apalak direla*, adin-tarte horretan baitira handienak sexuen arteko puntuazio-aldeak (5,2 emakumeek eta 6,4 gizonek).

Gazteenen artean (16 eta 29 urte bitartekoek), errepikatu egiten da, hein handi batean, joera orokorra –mutilak baino ezkorragoak dira neskak–, baina gazteen artean sexu bakoitzaren batez bestekoen arteko aldeak gainerako taldeetan baino nabarmen txikiagoak badira ere, adierazgarriak dira estatistikaren ikuspegitik.

Erantzunak oso heterogeneoak badira (desbideratze tipikoa handia bada), behar-beharrezkoa da beste estatistika-parametroek ematen duten informazioa aintzat hartzea, datuak behar bezala interpretatzeko. Hori horrela, modak esaten du 7 puntuko balioa dena aipatuena, baina, era berean, adierazten du emakumeek 5 puntuko balorazioa egiten duela sarrien eta gizonek, berriz, 7 puntuko. Medianak erakusten digu emakumeen % 50ek 6 puntu baino puntuazio apalagoa ematen duela, eta galdetuak izan diren gizonen erdiak, berriz, 7 puntutik gorako balorazioa eman dutela galderari erantzutean.

18. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruz gizonek duten sentsibilizazio-mailari buruzko iritziak.
Sexuaren eta adinaren arabera emaitzak. Estatistika-parametroak

		BATEZ BESTEKOAK	DESBIDERATZE TIPIKOA	MODA ⁴⁴	MEDIANA ⁴⁵
SEXUA (*)	Orokorra	6,2	1,90	7	6
	Emakumeak	5,8	2,10	5	6
	Gizonak	6,6	1,70	7	7
ADINA (*)	Orokorra 16-29 años	6,2	1,70	7	7
	Emakumeak 16-29 años	6,0	1,88	7	6
	Gizonak 16-29 años	6,5	1,43	7	7
	Orokorra 30-39 años	6,4	1,80	7	7
	Emakumeak 30-39 años	6,2	1,85	7	6
	Gizonak 30-39 años	6,7	1,64	7	7
	Orokorra 40-49 años	6,3	2,00	7	7
	Emakumeak 40-49 años	5,9	2,11	5	6
	Gizonak 40-49 años	6,7	1,69	7	7
	Orokorra 50-64 años	6,1	1,90	5	6
	Emakumeak 50-64 años	5,8	2,04	5	6
	Gizonak 50-64 años	6,5	1,78	7	7
	Orokorra > 65 años	5,7	2,20	5	6
	Emakumeak > 65 años	5,2	2,40	5	5
	Gizonak > 65 años	6,4	1,74	8	6

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($F < 0,05$).

44 Gehien ageri den aldagaiaren balioa adierazten du modak.

45 Haren aurretik eta atzetik kasu-kopuru bera uzten duen aldagaiaren balioa adierazten du medianak.

Nola ikusten du gizarteak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaia?

Eurobarometroaren⁴⁶ azken datuen arabera, espainiarren ia erdiak (% 47k) uste du genero-desorekak nahiko arazo handia direla, eta iritzi horretakoak dira europar gizon eta emakumeen % 37.

Ikerlan honek bildutako datuek adierazten dute galdetuak izan diren hamar pertsonatik seik uste duela desoreka horiek txikitzen joan direla hamar urtetik hona. Litekeena da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean egin den lan handi eta askotarikoak eragina izatea pertzepzio edo iritzi horretan, baina euskal gizartea kritikoa da oraindik ere egungo berdintasun-mailarekin.

Euskal Soziometroaren 2011ko datuek⁴⁷ adierazten dute herritarren % 80k uste duela hezkuntzarako sarbide-aukerak berdinak direla gizon eta emakumeentzat, baina emakumeek ez dute gauza bera ikusten lan-esparruan.

Hori horrela, kontsultako datuen arabera, euskal herritarren % 68k uste du emakumeen egoera gizonena baino okerragoa dela soldatari dagozkion ordainsariak jasotzerako orduan; % 66k uste du emakumeek aukera gutxiago dituztela familia-bizitza eta lana uztartzeko; % 61ek aitortzen du desoreka bat dagoela ardura-postuak betetzeko aukeretan eta herritarren antzeko ehunekoek uste dute emakumeen egoera gizonena baino okerragoa dela lan-promozioaren alorrean (% 59), lan bat aurkitzeko aukeretan (% 58) eta lanpostuaren egonkortasunaren alorrean (% 55).

Horrez gainera, nabarmendu behar da herritarren erdia baino gehiago oso edo nahiko ados dagoela emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arrazoi nagusia emakumeen eta gizonen arteko desoreka dela esatean.

Datuen azterketa orokor bat eginez gero, ikusten da *0 eta 10 bitarteko puntuazio-eskala baten baitan, euskal gizarteak 5,6ko puntuazioa ematen diola emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-mailari*, eta, ondorioz, esan daiteke hobekuntzarako tarte handia ikusten duela berdintasunaren helburua lortzeko bidean. Berdintasun-mailari buruzko puntuazioak nahiko antzekoak dira hiru probintzietan, eta ez da alde handirik ikusten galdetuak izan diren pertsonak bizi diren udalerriaren tamainaren⁴⁸ arabera begiratzen badira datuak.

19. Taula.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-mailari buruzko pertzepzioa. Emaita orokorrak eta Lurralde Historikoen arabera. Batez besteko puntuazioa 0 eta 10 puntu bitarteko eskalan

OROKORRA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
5,6	5,8	5,6	5,6


Pentsatzekoa da, kasu honetan ere, pertzepzio edo iritzia baldintzatua egon daitekeela galdetuak izan diren pertsonen ezaugarri soziodemografikoengatik; beraz, azterketa sakonago bat egitea erabaki da, galdetuak izan diren pertsonen profilararen arabera aztertzeko erantzunak.

Batez bestekoen estatistika-azterketa adierazten du adierazgarria dela sexuen arabera banakatutako datuen arteko diferentzia. *Emakumeek berdintasun-maila txikiagoa ikusten dute gizonek baino* (emakumeek 5,43 puntu eta gizonek 5,8 puntu). Hala ere, badirudi adinak ez duela eragin handirik hori baloratzeko orduan.

46 Op. Cit.

47 Op. Cit.

48 Eranskinean kontsulta daitezke datuak, banakatuta.



4. Grafikoa.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-mailari buruzko pertzepzioa.

Emaitza orokorrak, sexuaren (*) eta adinaren arabera. Batez besteko puntuazioa 0 eta 10 puntu bitarteko eskalan

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($F < 0,05$).

Batez bestekoen desbideratze tipikoa handia denez (bildutako datuak oso heterogeneoak dira) komeni da batez bestekoaz bestelako estatistika-parametroak aztertzea analisia osatzeko.

Gehien errepikatzen den puntuazioa 5 puntukoa da, bai oro har, bai emakumeen erantzunak soilik aztertzen direnean, baina gizonak emandako puntuazio errepikatuena handiagoa da (6 puntu). Bestalde, medianak adierazten du emakumeek % 50ek 5 puntutik beherako puntuazioa ematen diola gaiari, eta galdetuak izan diren gizonen erdiak 6 puntutik gorako puntuazioa ematen dutela.

20. Taula.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-mailari buruzko pertzepzioa.
Sexuaren eta adinaren arabera emaitzak. Estatistika-parametroak

		BATEZ BESTEKOA	DESBIDERATZE TIPIKOA	MODA ⁴⁹	MEDIANA ⁵⁰
SEXUA (*)	Orokorra	5,6	1,8	5	6
	Emakumeak	5,4	1,8	5	5
	Gizonak	5,8	1,7	6	6
ADINA (*)	Orokorra 16-29 años	5,7	1,6	6	6
	Emakumeak 16-29 años	5,6	1,6	5	6
	Gizonak 16-29 años	5,8	1,6	7	6
	Orokorra 30-39 años	5,4	1,6	6	6
	Emakumeak 30-39 años	5,3	1,5	6	5
	Gizonak 30-39 años	5,6	1,6	6	6
	Orokorra 40-49 años	5,6	1,8	6	6
	Emakumeak 40-49 años	5,4	1,8	5	5
	Gizonak 40-49 años	5,8	1,8	6	6
	Orokorra 50-64 años	5,6	1,8	5	6
	Emakumeak 50-64 años	5,4	1,8	5	5
	Gizonak 50-64 años	5,9	1,8	6	6
	Orokorra > 65 años	5,6	2,0	5	5
	Emakumeak > 65 años	5,5	2,1	5	5
	Gizonak > 65 años	5,9	1,8	5	6

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($F < 0,05$).

Galdetuak izan diren pertsonen egoera zibilak edo gaur egun bikotekidea izateak ala ez izateak⁵¹ ez dirudi eraginik duenik ematen diren puntuazioetan, baina sexuaren arabera banakatutako datuak aztertzen badira seme-alabak dituzten ala ez dituzten aintzat hartuta, ikusi da seme-alabak izateak diferentzia adierazgarriak dakartzala gizonek berdintasunarekiko duten iritzi edo pertzepzioarekiko.

21. Taula.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-mailari buruzko pertzepzioa. Datu orokorrak eta sexuaren eta ondorengoak izatearen arabera. Batez besteko puntuazioa 0 eta 10 puntu bitarteko eskalan

OROKORRA		GIZONAK (*)		EMAKUMEAK	
Ondorengoak ditu	Ez du ondorengorik	Ondorengoak ditu	Ez du ondorengorik	Ondorengoak ditu	Ez du ondorengorik
5,64	5,57	5,89	5,67	5,43	5,44

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($F < 0,05$).

49 Gehien ageri den aldagaiaren balioa adierazten du modak.

50 Haren aurretik eta atzetik kasu-kopuru bera uzten duen aldagaiaren balioa adierazten du medianak.

51 Eranskinean kontsulta daitezke datuak, banakatuta.

Ez da aldaketa handirik ikusten datuetan galdetuak izan diren pertsonen ikasketa-mailaren arabera, eta ezin da esan adierazgarriak direnik galdetuak izan diren pertsonen jardueraren arabera ikusten diren alde edo diferentziak.

22. Taula.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-mailari buruzko pertzepzioa. Eraitza orokorrak eta sexuaren eta ikasketa-mailaren arabera. Batez besteko puntuazioa 0 eta 10 puntu bitarteko eskalan

	OROKORRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
Alfabetatu gabeak / lehen hezkuntza egin gabeak	5,41	5,64	5,30
Lehen hezkuntza / eskola graduatua	5,71	5,82	5,64
LH (I edo II)	5,56	5,77	5,27
Bigarren mailakoak	5,68	5,86	5,47
Unibertsitate tituludunak	5,59	5,83	5,34

23. Taula.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-mailari buruzko pertzepzioa. Eraitza orokorrak eta sexuaren eta lan-egoeraren arabera. Batez besteko puntuazioa 0 eta 10 puntu bitarteko eskalan

	OROKORRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
Lanean	5,62	5,86	5,33
Ordaindu gabeko etxeko lanak	5,59	5,50 ⁵²	5,59
Ikaslea	5,77	5,87	5,62
Langabezian	5,44	5,57	5,31
Pentsioduna edo erretiratua	5,66	5,79	5,49

Badirudi pertsonen diru-sarrerek badutela nolabaiteko lotura edo harremana gizarteko berdintasun-maila baloratzeko orduan; hala ere, emakumeen artean ez da alde hori ikusten. Maila sozioekonomiko altuko etxeetan bizi diren gizonen ikuspegi baikorragoa dute gaiaren inguruan.

24. Taula.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-mailari buruzko pertzepzioa. Eraitza orokorrak eta sexuaren eta etxeko hileko diru-sarreraren arabera. Batez besteko puntuazioa 0 eta 10 puntu bitarteko eskalan

OROKORRA (*)			GIZONAK (*)			EMAKUMEAK		
< 1,000 €	1.000-3.000 €	> 3.000 €	< 1,000 €	1.000-3.000 €	> 3.000 €	< 1,000 €	1.000-3.000 €	> 3.000 €
5,68	5,50	5,86	5,86	5,61	6,04	5,61	5,37	5,59

52 Bakarrik 6 kasu dira.

Bestalde, datuek adierazten dute *ideologiak eragina izan dezakeela herritarrek gaiari buruz duten iritzian*, pertsonak zenbat eta ezkerrekoagotzat jo bere burua, orduan eta desoreka handiagoa ikusten baitu bi sexuen artean.

25. Taula.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-mailari buruzko pertzepzioa. Emaitzak ideologiaren arabera. Batez besteko puntuazioa 0 eta 10 puntu bitarteko eskalan

(*)	EZKERREKOA	ZENTROKOA	ESKUINEKOA
	5,47	5,68	5,81

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($F < 0,05$).

Zer mito eta iritzi daude gaur egun genero-indarkeriaren inguruan?

Kapituluaaren sarrerako oharretan adierazi den moduan, bada mito edo iritzi zabaldurik gizartean emakumeen aurka eragiten den indarkeriaren inguruan. Mito horiek egiazkotzat jotzen dira eta horrela irauten dute gizartearen diskurtsoan. Mito horiek irudi sinpleen bidez irudikatzen dute gai konplexu hau. Iritzi edo mito horien arriskueta bat da indarkeriaren dimentsioa estaltzeko bide ematen dutela eta hura gizonekin zerikusirik ez duen faktore baten moduan azaltzen saiatzen direla; izan ere, iritzi horiek esaten dute intentsiorik gabeko indarkeria dela. Iritzi-ildo horiek bide ematen dute indarkeria-ekintzei garrantzia kentzeko eta indarkeria-ekintzak ezkutatzeko, eta arazoari behar bezalako arreta egokia ematea eragozten dute.


Dirudienez, *euskal gizartean zabalduen dagoen mitoetako bat da* alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dagoela emakumeen egindako eraso gehienaren atzean. Gizon erasotzaileen indarkeria-jokabidea zuzitza litzateke mito horren xedea. Herritarren % 15,5 erabat ados dago ideia horrekin, eta ehuneko hori % 51,6ra igotzen da nahiko ados dauden pertsonak aintzat hartzen badira.

Herritarrek sarritan lotzen dituzte emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintzak arazo psikologikoekin edo momentuko kontrol-galerekin. Izan ere, herritarren ia erdia dago nahiko edo oso ados iritzi hauekin: *ohikoa izaten da erasotzaileak arazo psikologikoak izatea eta eraso gehienak estres handiko egoeretan edo momentuko kontrol-galeren ondorioz gertatzen dira.*

Oso zabalduta dagoen beste iritzietako batek esaten du etxean erasokorrak diren pertsonak erasokorrak izango direla etxean edo lagunekin. Galdetuak izan diren pertsonen % 14,5 erabat ados dago esaldi horrekin, eta ia % 40 nahiko ados dago gutxienez.

Bestalde, kezkarria da ikustea *lau pertsonatik bat nahiko ados edo oso ados dagoela uste edo iritzi hauekin: emakumeek beraiek bultzatutakoak dira indarkeria-kasu batzuk (% 22) eta salaketa faltsu ugari jartzen dira emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan (% 27,9).*

Horren ifrentzuan, datuek esaten dute gaindituak direla, biztanleriaren gehiengoaren aburutik bederen, gizarte-arazo honi buruzko beste mito batzuk. Horren adibideetako bat da herritar gehienek baztertzen dutela emakumeen aurkako indarkeria adineko jendeari soilik eragiten dion arazoa dela eta badijadi jendea jabetzen dela arazo hori bera ematen dela gazteen artean. Horrekin batera, ikusten da jende gehienak baztertzen duela *txar psikologikoak fisikoak bezain larriak ez direnik eta indarkeria-mota hori alor pribatukoa denik, hau da, etxetik atera behar ez duena.*



5. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako iritzi batzuekiko adostasun-maila.
Emaiza orokorrak (%)

Euskal probintzietan egin diren sentsibilizatze-ekintzek herritarrengan duten eraginaren nolakoa aztertzeko, emaitzak konparatzea erabaki da. Beheko taulan adierazten dira probintzietako datuak, eta horietan ikus daiteke estatistikaren ikuspegitik adierazgarriak diren aldeak ikusten direla aurkeztutako hiru mitotan. Mito horiek Gipuzkoan erro sakonagoak dituztela dirudi.

26. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako zenbait iritzirekin nahiko edo oso ados ageri diren pertsonen proportzioa. Emaitzak Lurralde Historikoen arabera (%)

	OROKORRA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dago emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehienen atzean.	51,6	53,1	50,7	52,5
<i>Erasotzaileek arazo psikologikoak izan ohi dituzte. (*)</i>	47,8	42,7	45,9	53,2
Etxean erasokorra den pertsona bat erasokorra izango da lanean edo lagunekin.	46,5	39,7	39,5	37,3
Eraso gehienak estres handiko uneetan edo momentuko kontrol-galerako uneetan gertatzen dira.	38,8	41,7	46,2	49,4
Salaketa faltsu asko dago genero-indarkeriako kasuetan.	27,9	23,3	28,8	28,4
Genero-indarkeriaren biktima diren emakume gehienak immigranteak dira.	22,3	18,8	22,9	22,9
<i>Emakumeek bultzatutakoak dira genero-indarkeriako kasu batzuk. (*)</i>	22,0	17,0	20,7	26,5
<i>Gizarte-maila apaletan soilik gertatzen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak. (*)</i>	14,3	11,2	13,8	16,8
Etxeko indarkeria gai pribatua da eta ez du esparru horretatik irten behar.	4,2	3,4	3,5	5,1
Gazteek ez dute genero-indarkeriaren arazoa pairatzen.	4,0	2,9	3,9	5,5
Tratu txar psikologikoak ez dira fisikoak bezain larriak.	4,4	2,9	4,2	5,5

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Alderdi horien ezagutza sakontzeko, datuak aztertu dira galdetuak izan diren pertsonen bizilekuaren arabera bereiziz emaitzak eta udalerriaren biztanle-kopurua aintzat hartuta; hala, loturarik badela ikusi da. *Galdetutako pertsonen, 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi badira, emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko topiko eta sinesmen faltsuak bere egiteko joera handiagoa dute, udalerri handiagoko edo EAEko hiribururen bateko biztanle diren pertsonen baino (diferentziak 5 mitotan dira adierazkorrak estatistikaren ikuspegitik).*

Dena den, datu horiek behar bezala irakurtzeko, zenbait aldagairen arteko harremanari erreparatu behar zaio. Aldagai independenteak gurutzatu ondoren, biztanle-kopuru txikiko udalerrietan galdetuak izan diren pertsonen profil nagusiak zehaztu ahal izan dira. Datuek esaten dute udalerri horietan adineko pertsonen ehunekoak handiak izaten direla eta, oro har, ikasketa-mailak ere udalerri handietan baino apalagoak izaten direla.

27. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako zenbait iritzirekin nahiko edo oso ados ageri diren pertsonen proportzioa. Eraitza orokorrak eta udalerraren tamainaren arabera (%).

	OROKORRA	< 10.000 BIZ.	10.000-120.000 BIZ.	HIRIBURUA
Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dago emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehien atzean.	51,6	55,2	49,0	52,5
Erasotzaileek arazo psikologikoak izan ohi dituzte.	47,8	49,6	47,4	47,3
<i>Eraso gehienak estres handiko uneetan edo momentuko kontrol-galerako uneetan gertatzen dira. (*)</i>	46,5	53,1	44,0	46,0
Etxean erasokorra den pertsona bat erasokorra izango da lanean edo lagunekin.	38,8	39,6	37,4	39,9
<i>Salaketa faltsu asko dago genero-indarkeriako kasuetan. (*)</i>	27,9	32,3	28,7	24,9
<i>Genero-indarkeriaren biktima diren emakume gehienak immigranteak dira. (*)</i>	22,3	26,9	21,9	20,6
<i>Emakumeek bultzatutakoak dira genero-indarkeriako kasu batzuk. (*)</i>	22,0	26,9	21,7	20,0
<i>Gizarte-maila apaletan soilik gertatzen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak. (*)</i>	14,3	20,2	14,0	12,0
Gazteek ez dute genero-indarkeriaren arazoa pairatzen.	4,2	4,9	3,8	4,4
Etxeko indarkeria gai pribatua da eta ez du esparru horretatik irten behar.	4,0	4,9	4,1	3,5
Tratu txar psikologikoak ez dira fisikoak bezain larriak.	4,4	5,7	4,3	3,9

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Konparatzen badira gai horri buruz gizonak eta emakumeak dituzten iritziak, ikusten da *gizonek joera handiagoa dutela indarkeria-egoerak justifikatzen dituzten mitoak sinesteko; hala ere, bi gaitan soilik ikusi dira estatistikaren ikuspegitik adierazkorrek diren diferentziak*. Gai edo iritzi horietako bat da emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehien atzean alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dagoela pentsatzea, baina, bitxia bada ere, emakumeak dira, batik bat, erasotzaileen ekintzak kontsumo-arazoengatik zurriz dituztenak. Hau da gizon eta emakumeen arteko iritzietan diferentzia handienak erakutsi dituen beste iritziak: *tratu txar psikologikoak ez dira indarkeria fisikoa bezain larriak*. Iritzi horren kasuan, emakumeek baino adostasun-maila handiagoak erakusten dituzte gizonak.

28. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako zenbait iritzirekin nahiko edo oso ados ageri diren pertsonen proportzioa. Emaiza orokorrak eta sexuaren arabekoak (%)

	OROKORRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
<i>Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dago emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehienetan. (*)</i>	51,6	54,6	48,5
Erasotzaileek arazo psikologikoak izan ohi dituzte.	47,8	46,9	48,6
Eraso gehienak estres handiko uneetan edo momentuko kontrol-galerako uneetan gertatzen dira.	46,5	45,7	47,5
Etxean erasokorra den pertsona bat erasokorra izango da lanean edo lagunekin.	38,8	37,0	40,8
Salaketa faltsu asko dago genero-indarkeriako kasuetan. (*)	27,9	26,2	29,7
Genero-indarkeriaren biktimak diren emakume gehienak immigranteak dira. (*)	22,3	21,0	23,7
Emakumeek bultzatutakoak dira genero-indarkeriako kasu batzuk. (*)	22,0	21,0	23,1
Gizarte-maila apaletan soilik gertatzen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak. (*)	14,3	13,9	14,8
<i>Gazteek ez dute genero-indarkeriaren arazoa pairatzen. (*)</i>	4,4	3,6	5,2
Etxe indarkeria gai pribatua da eta ez du esparru horretatik irten behar.	4,2	3,7	4,8
Tratu txar psikologikoak ez dira fisikoak bezain larriak.	4,0	3,9	4,2

Oharra: (*) ikurra adierazten du aldagaiak gurutzatuta ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Adinak, ordea, diferentzia handiagoak ezartzen ditu sinismen horien barneratze-maila erabakitzeke garaian. *65 urtetik gorako biztanleek dituzte barneratuen genero-indarkeriaren inguruko mitoak.* Kasu guztietan, iritzi horien onarpen-indizeak handiagoak dira biztanleria osorako datuek adierazten dutenak baino, eta, bat izan ezik, guztiak dira herritar gazteenek adierazten dituzten onarpen-indizeak baino handiagoak modu adierazkorrean.

Itxaropentsua da ikustea zer-nolako prebalentzia duten sineste faltsu horiek herritar guztiengan eta herritar gazteenengan. *16 eta 29 urte bitarteko herritarrek beste adin-talde batzuetako herritarrek baino neurri handiagoan baztertzen dituzte mito batzuek, eta, bereziki, honako hauek: atzerriko emakumeak dira indarkeria-mota horren biktimak nagusiak eta indarkeria hori gizarte-maila apaleko jendearengan ematen da batik bat.* Horrez gain, gainerakoek baino gutxiago justifikatzen dute iritzi hau: *alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoaren ondorioz gertatzen da maiz indarkeria-mota hori.*

29. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako zenbait iritzirekin nahiko edo oso ados ageri diren pertsonen proportzioa. Emaita orokorrak adinaren arabera (%)

	OROKORRA	GAZTEAK (16-29 años)	GIZONAK (>65 años)
<i>Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dago emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehien atzean. (*)</i>	51,6	43,5	68,7
<i>Erasotzaileek arazo psikologikoak izan ohi dituzte. (*)</i>	47,8	48,7	57,2
<i>Eraso gehienak estres handiko uneetan edo momentuko kontrol-galerako uneetan gertatzen dira. (*)</i>	46,5	45,3	59,0
<i>Etxean erasokorra den pertsona bat erasokorra izango da lanean edo lagunekin. (*)</i>	38,8	36,6	45,4
<i>Salaketa faltsu asko dago genero-indarkeriako kasuetan.</i>	27,9	23,5	32,0
<i>Genero-indarkeriaren biktima diren emakume gehienak immigranteak dira. (*)</i>	22,3	11,4	40,1
<i>Emakumeek bultzatutakoak dira genero-indarkeriako kasu batzuk. (*)</i>	22,0	17,5	31,6
<i>Gizarte-maila apaletan soilik gertatzen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak. (*)</i>	14,3	4,6	29,7
<i>Gazteek ez dute genero-indarkeriaren arazoa pairatzen. (*)</i>	4,4	1,8	8,0
<i>Etxeke indarkeria gai pribatua da eta ez du esparru horretatik irten behar. (*)</i>	4,2	2,5	7,3
<i>Tratu txar psikologikoak ez dira fisikoak bezain larriak. (*)</i>	4,0	0,9	11,4

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Herritar guztien joerari jarraitzen diote 65 urte baino gehiagoko pertsonak sexuen arabeko diferentziei dagokienez –emakumeek baino neurri handiagoak egiten dituzte bere gizonak gaiari buruzko topikoak–, baina adineko gizon eta emakumeen pertzepzio edo iritzia modu adierazkorrean da diferentea iritzi honen kasuan: *tratu txar psikologikoak ez dira fisikoak bezain larriak* (hala ere, nabarmendu behar da onarpen-ehunekoak txikiak direla, % 10,9koa baita adineko gizonen kasuan eta % 5,9 adin-talde bereko emakumeen kasuan).

30. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako zenbait iritzirekin nahiko edo oso ados ageri diren pertsonen proportzioa. Adinekoek emandako emaitzak (<65 urte) eta sexuaren arabera (%)

	> 65 años	MUJERES >65 años	HOMBRES >65 años
Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dago emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehienen atzean.	68,7	69,9	67,0
Erasotzaileek arazo psikologikoak izan ohi dituzte.	57,2	55,0	60,2
Eraso gehienak estres handiko uneetan edo momentuko kontrol-galerako uneetan gertatzen dira.	59,0	60,1	57,4
Etxean erasokorra den pertsona bat erasokorra izango da lanean edo lagunekin.	45,4	43,4	48,2
Salaketa faltsu asko dago genero-indarkeriako kasuetan.	32,0	30,8	33,7
Genero-indarkeriaren biktima diren emakume gehienak immigranteak dira.	40,1	38,0	43,1
Emakumeek bultzatutakoak dira genero-indarkeriako kasu batzuk.	31,6	31,3	32,1
Gizarte-maila apaletan soilik gertatzen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak.	29,7	29,8	29,7
<i>Tratu txar psikologikoak ez dira fisikoak bezain larriak. (*)</i>	8,0	5,9	10,9
Gazteek ez dute genero-indarkeriaren arazoa pairatzen.	7,3	6,2	9,0
Etxeke indarkeria gai pribatua da eta ez du esparru horretatik irten behar.	11,4	10,7	12,3

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Interesgarria da, era berean, sinesmen horiek dituzten erroak, gizon eta emakume gazteek emandako erantzunei erreparatuta. Beste adin-talde batzuekin gertatzen den moduan, mutil gazteek, oro har, neska gazteek baino neurri handiagoan egiten dituzte bere sinesmen edo iritzi faltsu horiek, baina, gazteen kasuan, diferentziak bereziki adierazgarriak dira bi ideia hauetan: *Eraso gehienak estres handiko uneetan edo momentuko kontrol-galerako uneetan gertatzen dira* (mutil gazteen % 51k uste du hori horrela dela) eta *Gazteek ez dute genero-indarkeriaren arazoa pairatzen* (hala ere, esan behar da gazte gehien-gehienek baztertzen dutela ideia hori, soilik % 4,1 baitago ados horrekin).

31. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako zenbait iritzirekin nahiko edo oso ados ageri diren pertsonen proportzioa. Gazteek emandako emaitzak (16-29 urte) eta sexuaren arabera (%)

	JOVENES 16-29 años	MUJERES 16-29 años	HOMBRES 16-29 años
Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dago emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehien atzean.	43,5	44,9	42,1
Erasotzaileek arazo psikologikoak izan ohi dituzte .	48,7	49,3	48,1
<i>Eraso gehienak estres handiko uneetan edo momentuko kontrol-galerako uneetan gertatzen dira. (*)</i>	45,3	39,5	51,0
Etxean erasokorra den pertsona bat erasokorra izango da lanean edo lagunekin.	36,6	32,1	40,9
Salaketa faltsu asko dago genero-indarkeriako kasuetan.	23,5	21,1	25,8
Genero-indarkeriaren biktima diren emakume gehienak immigranteak dira.	11,4	8,3	14,3
Emakumeek bultzatutakoak dira genero-indarkeriako kasu batzuk.	17,5	15,7	19,3
Gizarte-maila apaletan soilik gertatzen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak.	4,6	4,7	4,5
Tratu txar psikologikoak ez dira fisikoak bezain larriak.	1,8	1,4	2,3
<i>Gazteek ez dute genero-indarkeriaren arazoa pairatzen. (*)</i>	2,5	0,9	4,1
Etxeke indarkeria gai pribatua da eta ez du esparru horretatik irten behar.	0,9	0,5	1,3

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Oro har, *ikasketa-maila apalak dituzten pertsonen modu nabarmenagoan egiten dituzte bere mota horretako topiko eta iritzia* (batean izan ezik, mito guztietan izan dira diferentziak adierazgarriak estatistikaren ikuspegitik). Ikasketa-mailak lotura duela dirudi topikoak norberenganatzeko joerarekin, bai gizonen kasuan, bai emakumeen kasuan⁵³. Hala ere, ez da ahaztu behar ikasketa-mailak harremana edo lotura duela adinaren aldagaiarekin, batez bestekotik gorako ehunekoak baitaude ikasketa-maila apalen aldagaian adin handiagoko pertsonen taldean.

53 Eranskinean kontsulta daitezke datuak, banakatuta.

32. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako zenbait iritzirekin nahiko edo oso ados ageri diren pertsonen proportzioa. Emaita orokorrak eta ikasketa-mailaren arabera (%)

	OROKORRA	ALFABETATU GABEAK L.H. EGIN GABEAK	LEHEN HEZKUNTZA ESKOLA GRADUATUA	LH (I - II)	BIGARREN MAILAKOAK	UNIBERTSITATE TITULUDUNAK
<i>Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dago emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehienek atzean. (*)</i>	51,6	69,1	57,8	47,8	46,3	41,9
<i>Erasotzaileek arazo psikologikoak izan ohi dituzte.</i>	47,8	47,7	47,1	48,3	44,5	49,1
<i>Eraso gehienak estres handiko uneetan edo momentuko kontrol-galerako uneetan gertatzen dira. (*)</i>	46,5	62,7	46,8	44,8	46,2	41,5
<i>Etxean erasokorra den pertsona bat erasokorra izango da lanean edo lagunekin. (*)</i>	38,8	51,2	40,0	38,2	35,6	34,1
<i>Salaketa faltsu asko dago genero-indarkeriako kasuetan. (*)</i>	27,9	39,6	28,2	28,3	26,9	23,3
<i>Genero-indarkeriaren biktima diren emakume gehienak immigranteak dira. (*)</i>	22,3	40,4	28,1	17,9	16,1	14,4
<i>Emakumeek bultzatutakoak dira genero-indarkeriako kasu batzuk. (*)</i>	22,0	29,9	24,2	22,1	18,9	17,8
<i>Gizarte-maila apaletan soilik gertatzen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak. (*)</i>	14,3	34,4	19,6	9,5	8,2	6,2
<i>Tratu txar psikologikoak ez dira fisikoak bezain larriak. (*)</i>	4,4	7,6	5,7	3,4	2,7	3,3
<i>Gazteek ez dute genero-indarkeriaren arazoa pairatzen. (*)</i>	4,2	9,0	4,6	3,4	3,2	2,7
<i>Ettxeko indarkeria gai pribatua da eta ez du esparru horretatik irten behar. (*)</i>	4,0	14,2	4,7	1,6	0,4	2,1

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Illo horretatik, herritarrek egiten duten jardueraren arabera multzokatzen duen aldagaiari erreparatuta, ikusten da *erretiratuta dauden pertsonen joera handiagoa dutela planteatzen zaizkien topikoekin ados egoteko eta ikasten ari diren pertsonen joera apalagoa dutela*. Topiko gehienetan ikusten dira diferentzia adierazgarriak, bai emakumeen datuak aztertzen direnean (6 itemetan), bai gizonen datuak aztertzen direnean (9 itemetan)⁵⁴.

54 Eranskinean kontsulta daiteke, sexuaren arabera banakatu gabe, "egiten duen jardueraren arabera" aldagaiaren eta mito bakoitzaren arteko erlazioa biztanleria osoarekiko.

Kasu honetan ere, kontuan izan behar da aldagaiaren kategoria guztietan biltzen direla adin askotako pertsonak; hala, ikasketak egiten ari diren pertsonak 30 urte baino gutxiago izan ohi dituzte eta erretirata edo pentsiodunak direnak adin handieneko pertsonak izaten dira. Bestalde, lanean dauden pertsonak eta langabezian dauden pertsonen kolektiboak ez dute adin-talde homogeneo bat izaten beren baitan.

33. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako zenbait iritzirekin nahiko edo oso ados ageri diren pertsonen proportzioa. Emakumeen datuak egiten duten jardueraren arabera (%)

	EMAKUMEAK	LANEAN	ORDAINDU GABEKO ETXEKO LANAK	IKASLEA	LANGABEZIAN	PENTSIODUNA EDO ERRERITATUA
Erasotzaileek arazo psikologikoak izan ohi dituzte.	54,6	44,1	47,1	49,4	43,5	53,8
<i>Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dago emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehienetan. (*)</i>	46,9	49,5	59,7	46,9	46,2	69,8
<i>Eraso gehienak estres handiko uneetan edo momentuko kontrol-galerako uneetan gertatzen dira. (*)</i>	45,7	39,5	50,4	45,6	41,0	56,5
<i>Etxean erasokorra den pertsona bat erasokorra izango da lanean edo lagunekin. (*)</i>	37,0	33,3	38,8	35,8	33,5	45,2
Salaketa faltsu asko dago genero-indarkeriako kasuetan.	26,2	24,7	29,3	18,3	26,1	29,5
<i>Emakumeek bultzatutakoak dira genero-indarkeriako kasu batzuk. (*)</i>	21,0	16,6	26,2	16,0	15,3	29,8
<i>Genero-indarkeriaren biktima diren emakume gehienak immigranteak dira. (*)</i>	21,0	14,1	29,2	7,5	18,4	33,1
<i>Gizarte-maila apaletan soilik gertatzen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak. (*)</i>	13,9	7,7	19,0	2,4	11,8	26,7
Tratu txar psikologikoak ez dira fisikoak bezain larriak.	3,6	2,6	5,5	1,2	2,5	5,7
Gazteek ez dute genero-indarkeriaren arazoa pairatzen.	3,7	2,0	6,7	1,2	2,9	5,6
Etxeko indarkeria gai pribatua da eta ez du esparru horretatik irten behar.	3,9	1,6	4,3	0,0	3,0	9,7

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

34. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako zenbait iritzirekin nahiko edo oso ados ageri diren pertsonen proportzioa. Gizonen emaitzak lan-egoeraren arabera (%)

	GIZONAK ⁵⁵	LANEAN	IKASLEAK	LANGABEZIAN	PENTSIODUNA EDO ERRERITATUA
Erasotzaileek arazo psikologikoak izan ohi dituzte.	48,5	46,5	47,1	45,0	55,2
<i>Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dago emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehienek atzean. (*)</i>	48,6	40,1	40,5	48,0	65,7
<i>Eraso gehienak estres handiko uneetan edo momentuko kontrol-galerako uneetan gertatzen dira. (*)</i>	47,5	42,2	47,1	48,8	56,6
Etxean erasokorra den pertsona bat erasokorra izango da lanean edo lagunekin.	40,8	38,1	37,6	41,6	46,7
<i>Salaketa faltsu asko dago genero-indarkeriako kasuetan. (*)</i>	29,7	28,7	20,2	33,9	32,9
<i>Emakumeek bultzatutakoak dira genero-indarkeriako kasu batzuk. (*)</i>	23,7	18,9	23,0	21,3	31,1
<i>Genero-indarkeriaren biktimak diren emakume gehienak immigranteak dira. (*)</i>	23,1	15,8	9,3	28,2	41,3
<i>Gizarte-maila apaletan soilik gertatzen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak. (*)</i>	14,8	10,4	5,7	10,9	27,2
<i>Tratu txar psikologikoak ez dira fisikoak bezain larriak. (*)</i>	5,2	3,8	2,4	2,7	10,0
<i>Gazteek ez dute genero-indarkeriaren arazoa pairatzen. (*)</i>	4,8	3,1	3,2	5,4	8,3
<i>Etxeko indarkeria gai pribatua da eta ez du esparru horretatik irten behar. (*)</i>	4,2	2,6	1,6	1,1	9,5

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Datuek esaten dute, halaber, *galdetutako pertsonaren etxeko diru-sarrerak zenbat eta handiagoak izan, orduan eta neurri apalagoan etortzen direla bat pertsona horiek topiko edo sinesmen faltsu horiekin*. Hala ere, kontuan izan behar da aldagai edo ezaugarri hori lotuta dagoela adinarekin eta ikasketa-mailarekin. Hori horrela, galdetuak izan eta 1.000€ baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten pertsona gehienak adinekoak dira, eta pertsona horiek izaten dira, batik bat, ikasketa-maila apalak dituztenak.

⁵⁵ Gizonen datuak zehaztean, kendu egin dugu ordaindu gabeko etxeko lanak kategoria, oso kasu gutxi baitzeuden kategoria horretan (6 kasu).

35. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako zenbait iritzirekin nahiko edo oso ados ageri diren pertsonen proportzioa. Emaizta orokorrak eta etxeko hileko diru-sarreraren arabera (%).

	OROKORRA	1.000 € BAINO GEHIAGO	1.000 € - 3.000 €	3.000 € BAINO GEHIAGO
<i>Gizarte-maila apaletan soilik gertatzen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak. (*)</i>	14,3	24,5	12,6	4,2
<i>Salaketa faltsu asko dago genero-indarkeriako kasuetan. (*)</i>	27,9	34,9	27,3	23,7
<i>Etxeko indarkeria gai pribatua da eta ez du esparru horretatik irten behar. (*)</i>	4,0	8,4	2,7	1,0
<i>Genero-indarkeriaren biktima diren emakume gehienak immigranteak dira. (*)</i>	22,3	35,8	20,3	14,1
<i>Gazteek ez dute genero-indarkeriaren arazoa pairatzen.</i>	4,2	5,7	4,5	1,6
<i>Etxean erasokorra den pertsona bat erasokorra izango da lanean edo lagunekin. (*)</i>	38,8	44,8	36,3	36,1
<i>Tratu txar psikologikoak ez dira fisikoak bezain larriak.</i>	4,4	4,8	4,7	2,6
<i>Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dago emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehienen atzean. (*)</i>	51,6	63,4	48,1	43,5
<i>Emakumeek bultzatutakoak dira genero-indarkeriako kasu batzuk. (*)</i>	22,0	32,3	19,9	17,4
<i>Eraso gehienak estres handiko uneetan edo momentuko kontrol-galerako uneetan gertatzen dira. (*)</i>	46,5	57,0	42,0	44,1

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Lehenago adierazi dugu naziotasunaren arabera banakatutako datuak kontuz irakurtzekoak direla laginak zenbait muga dituelako; hori horrela, iritzi edo uste faltsu horiek barneratzeko joera pertsonen naziotasunaren arabera aztertzen badugu, *badirudi atzerritarrek joera zertxobait handiagoa dutela mito horiek sinetsi edo bereganatzeko* (azterketa hori egiteko 50 urte baino gutxiagoko pertsonak hartu dira kontuan). Atzerritarrak diren pertsonen eta atzerritarrak ez diren pertsonen erantzunen arteko diferentziak nabarmenak dira aztertutako hamaika kasuetatik bostetan.

36. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako zenbait iritzirekin nahiko edo oso ados ageri diren 50 urte baino gutxiagoko pertsonen proportzioa. 50 Urtetik beherako herritarren emaitzak naziotasunaren arabera (%)

	ATZERRITARRAK EZ DIRENAK (< 50 urte)	ATZERRITARRAK (< 50 urte)
<i>Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dago emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehienen atzean. (*)</i>	43,5	57,3
Erasotzaileek arazo psikologikoak izan ohi dituzte.	44,4	53,5
Eraso gehienak estres handiko uneetan edo momentuko kontrol-galerako uneetan gertatzen dira.	40,2	49,4
Etxean erasokorra den pertsona bat erasokorra izango da lanean edo lagunekin.	36,4	44,2
<i>Salaketa faltsu asko dago genero-indarkeriako kasuetan. (*)</i>	25,7	36,1
<i>Genero-indarkeriaren biktimak diren emakume gehienak immigranteak dira. (*)</i>	13,4	25,6
<i>Emakumeek bultzatutakoak dira genero-indarkeriako kasu batzuk. (*)</i>	16,7	35,2
<i>Gizarte-maila apaletan soilik gertatzen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak. (*)</i>	6,6	18,2
Tratu txar psikologikoak ez dira fisikoak bezain larriak.	2,6	5,7
Gazteek ez dute genero-indarkeriaren arazoa pairatzen.	3,0	2,3
Etxeke indarkeria gai pribatua da eta ez du esparru horretatik irten behar.	1,2	2,3

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Naziotasunaren arabera azterketa hori 50 urte baino gutxiago dituzten emakumeekin soilik egiten bada, diferentzia handiagoak ikusten dira ia kasu guztietan. Estatistikek hiru kasutan egiaztatu dituzten diferentzia adierazgarriak.

37. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako zenbait iritzirekin nahiko edo oso ados ageri diren pertsonen proportzioa. 50 Urtetik beherako emakume herritarren emaitzak naziotasunaren arabera (%)

	ATZERRITARRAK EZ DIREN EMAKUMEAK (< 50 urte)	EMAKUME ATZERRITARRAK (< 50 urte)
Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dago emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehienen atzean.	46,6	59,3
Erasotzaileek arazo psikologikoak izan ohi dituzte.	44,2	52,4
Eraso gehienak estres handiko uneetan edo momentuko kontrol-galerako uneetan gertatzen dira.	37,5	48,4
<i>Etxean erasokorra den pertsona bat erasokorra izango da lanean edo lagunekin. (*)</i>	34,2	48,4
Salaketa faltsu asko dago genero-indarkeriako kasuetan.	24,1	33,3
<i>Genero-indarkeriaren biktimak diren emakume gehienak immigranteak dira. (*)</i>	12,5	27,0
<i>Emakumeek bultzatutakoak dira genero-indarkeriako kasu batzuk. (*)</i>	13,5	35,4
Gizarte-maila apaletan soilik gertatzen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak.	5,4	21,5
Tratu txar psikologikoak ez dira fisikoak bezain larriak.	2,1	4,6
Gazteek ez dute genero-indarkeriaren arazoa pairatzen.	2,6	1,6
Etxeko indarkeria gai pribatua da eta ez du esparru horretatik irten behar.	1,0	3,1

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Galdetuak izan diren pertsonen ideologia da gaiarekin zerikusia duela dirudien beste aldagai bat. Oro har, agerian geratu da *beren buruan eskuindartzat jotzen duten pertsonen maila handiagoan egiten dutela bat topikoekin* (kategorien arteko diferentziak adierazgarriak dira estatistikaren ikuspegitik aztertu diren ha-maika kasuetatik seitan). Dena den, adierazi beharrekoa da ideologiak ez duela, itxura batean, eragin bera gizonen eta emakumeengan; izan ere, emaitzak talde bakoitzaren datuen arabera aztertuz gero, ikusten da *emakumeek* diferentzia adierazgarriak erakusten dituztela ideologia-kokapenaren arabera 6 mito edo iritzitan, eta gizonen kasuan, berriz, ideologiak mito edo iritzi bakarrean soilik sortu ditu diferentzia horiek.

38. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako zenbait iritzirekin nahiko edo oso ados ageri diren pertsonen proportzioa. Emaita orokorrak eta ideologiaren arabekoak (%)

	OROKORRA	EZKERREKOA	ZENTROKOA	ESKUINEKOA
<i>Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dago emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehienen atzean. (*)</i>	51,6	44,1	47,4	68,0
<i>Eraso gehienak estres handiko uneetan edo momentuko kontrol-galerako uneetan gertatzen dira. (*)</i>	46,5	42,2	36,7	52,6
<i>Etxean erasokorra den pertsona bat erasokorra izango da lanean edo lagunekin. (*)</i>	38,8	34,9	34,2	51,0
<i>Salaketa faltsu asko dago genero-indarkeriako kasuetan. (*)</i>	27,9	22,5	29,2	44,3
Genero-indarkeriaren biktima diren emakume gehienak immigranteak dira.	22,3	17,9	21,2	25,0
<i>Emakumeek bultzatutakoak dira genero-indarkeriako kasu batzuk. (*)</i>	22,0	18,7	23,7	33,0
Gizarte-maila apaletan soilik gertatzen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak.	14,3	11,4	12,1	16,8
Gazteek ez dute genero-indarkeriaren arazoa pairatzen.	4,2	3,8	5,5	3,0
<i>Etxeko indarkeria gai pribatua da eta ez du esparru horretatik irten behar. (*)</i>	4,0	2,2	3,3	8,7
Tratu txar psikologikoak ez dira fisikoak bezain larriak.	4,4	3,6	5,0	4,9

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

39. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako zenbait iritzirekin nahiko edo oso ados ageri diren pertsonen proportzioa. Emaitzak sexuaren eta ideologiaren arabera (%)

	EZKERREKOA		ZENTROKOA		ESKUINEKOA	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
<i>Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dago emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehienen atzean.</i>	45,5(*)	42,9	50,6	45,5	76,3	56,1
<i>Eraso gehienak estres handiko uneetan edo momentuko kontrol-galerako uneetan gertatzen dira</i>	42,0(*)	42,4	32,3	39,6	48,3	59,0
<i>Etxean erasokorra den pertsona bat erasokorra izango da lanean edo lagunekin.</i>	31,7(*)	37,9	31,6	35,7	50,9	51,2
<i>Salaketa faltsu asko dago genero-indarkeriako kasuetan.</i>	20,6(*)	24,2(*)	27,3	30,4	47,4	40,0
Genero-indarkeriaren biktima diren emakume gehienak immigranteak dira.	16,4	19,3	15,7	24,7	21,1	30,8
<i>Emakumeek bultzatutakoak dira genero-indarkeriako kasu batzuk.</i>	17,5(*)	19,8	20,9	25,5	39,0	24,4
Gizarte-maila apaletan soilik gertatzen dira emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak.	9,8	12,8	12,3	11,9	18,6	14,2
Gazteek ez dute genero-indarkeriaren arazoa pairatzen.	2,3	5,2	7,4	4,3	0,0	7,1
Etxeko indarkeria gai pribatua da eta ez du esparru horretatik irten behar.	1,3	3,1	2,5	3,9	13,1	2,4
Tratu txar psikologikoak ez dira fisikoak bezain larriak.	2,7	4,4	5,6	4,7	5,0	4,8

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Euskal biztanleen ustez, nola jokatuko lukete indarkeria-mota horretako egoera jakin batzuen aurrean?

Historian zehar, ezkutuan gertatu den errealitate bat izan da genero-indarkeria. Emakumeei egindako erasoak edo bortxaketak gertakari partikularrak eta bakanak zirela uste izan da, eta ez dira sexuen arteko desorekarekin zerikusia duen gizarte-arazotzat hartuak izan. Bestalde, etxeetan edo familietan gertatzen den indarkeria bikoteen arazoekin lotu izan da, eremu pribatuko aferak zirela uste izan da, eta, ondorioz, pentsatu izan da ez zela kanpotik eragin behar errealitate horretan.

Uste edo sinesmen horiek baldintzatu egin dute herritarren jarduera edo erreakzioa indarkeria-egoeren aurrean. Hala ere, aukera-berdintasunaren alorrean egin den sensibilizazio-lanaren ondorioz eta gizarteari eskaintzen zaizkion aukera anitzen bultzada, aldaketa eragin daitezke emakumeen aurkako indarkeria matxistako gertakari konkretuan aurrean jarduteko moduetan.

Gai horri aztertzen hasteko, indarkeria-kasu batzuk azaldu zitzaizkien inkestari erantzun behar zioten pertsonen, eta erantzun edo erreakzio bat adierazteko eskatu zitzaaien. Hiru egoera hauek aurkeztu zitzaizkien:

- 1. *kasua*: Emakume bat bortxatzen ari direla konturatu zara, zer egingo zenuke?
- 2. *kasua*: Eztabaida-sesio sutsuak entzun ohi dituzu zure ondoan bizi den bikotekidearen artean eta gau batean kolpeak eta ohiak entzuten dituzu. Zer egingo zenuke?
- 3. *kasua*: Zure emakumezko lankideren batek edo zure emakumezko lagun onenetako batek sexu-jazarpena pairatzen du lanean. Zer egingo zenuke?

Biktimarekiko harremana ez da berdina hiru kasuetan, ezta erabilitako indarkeria-mota ere; beraz, oro har, erreakzioak ez dira berdinak hiru kasuetan. Lehen kasuan gehien errepikatzen den erreakzioa da biktimari laguntzea, eta bigarren kasuan, berriz, poliziari deitzea izaten da gehien errepikatzen den erreakzioa, erasotzaileari aurre egin gabe. Hirugarren kasuan, gertuko emakumeren batek bizi duen indarkeria-egoera bati buruzkoan, galdetuak izan diren 10 pertsonetatik 6 baino gehiagok erantzun dute biktimarekin hitz egingo luketela, erasoak sala ditzan.

Zenbait pertsonak ez dakite zer egin egoera horien aurrean (% 4,7k lehen kasuan, % 5 bigarrenetan eta % 4,2 hirugarrenean). Ez dira ehuneko adierazgarriak guztirakoekin alderatuta, baina badirudi pertsona horiek informazioa falta dutela (ez dakite zer baliabide dauden, zer urrats eman behar diren, etab.).

Galdetuak izan diren pertsonen sexuaren arabera aztertzen baditugu datuak, ikusten da gizonek joera handiagoa dutela emakumeek baino erasotzaileari aurre egiteko lehen kasuan (bortxaketa), eta hirugarren kasuan (sexu-jazarpena pairatzea emakumezko lagun, lankide edo eskolako kideren batek), emakumeek joera handiagoa dute emakumeek baino biktimarekin hitz egiteko.

40. Taula.

Herritarren erreakzioak emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuen aurrean. Emaiza orokorrak eta sexuaren arabekoak (%)

	1. KASUA			2. KASUA			3. KASUA		
	Orokorra	Emakumeak	Gizonak	Orokorra	Emakumeak	Gizonak	Orokorra	Emakumeak	Gizonak
Biktimari laguntzen saiatu	45,2(*)	38,6	52,3	5,5	5,0	6,1	11,3(*)	10,1	12,6
Poliziarri deitu, baina erasotzaileari aurre egin gabe	34,2(*)	46,6	21,1	65,4(*)	68,9	61,7	5,0	5,7	4,1
Poliziarri deitu eta erasotzaileari aurre egin	15,5(*)	8,9	22,5	3,4	3,0	3,9	1,0	0,7	1,3
Erasotzaileari aurre egin	14,8(*)	9,3	20,7	1,3	1,2	1,5	3,9	3,4	4,5
Ez nuke jakingo zer egin edo nora jo	4,7	5,3	4,0	5,0	5,8	4,2	4,2	3,8	4,5
Ez nuke ezer ere egingo mendekuaren beldur	2,8(*)	2,0	3,5	4,2(*)	4,9	3,3	1,2	1,0	1,3
Harekin hitz egingo nuke erasoala dezan	2,6(*)	3,8	1,3	3,3	3,7	2,9	71,5(*)	74,8	67,9
Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izan diren emakumeekin lan egiten duen erakunde edo elkarteren batekin hitz egingo nuke	0,8(*)	1,3	0,2	0,3	0,2	0,3	9,8(*)	11,2	8,4
Ez nuke ezer egingo, ez da nire kontua eta ez dagokit ezer egitea	0,6	0,6	0,7	3,3(*)	2,6	4,1	0,7	0,4	1,0

Oharra: Ehuneko bertikalen baturaren emaitza ez da % 100, erantzun anitzeko galdera delako. (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Datu guztien irakurketa orokorrak erakusten du herritarren % 7,8k ez lukeela ezer egingo lehen kasuaren aurrean (bortxaketa bat), beldurratik, beren kontua ez dela uste dutelako edo zer egin ez dakitelako. Parte ez hartzeko arrazoi horiek berak eman dituzte herritarren % 11,9k eta % 5,7k, hurrenez hurren, bigarren kasuan (alboko bikotea oihuka eta kolpeka ari denean) eta hirugarren kasuan (emakumezko lankide edo lagun batek sexu-jazarpena pairatzen duenean).

41. Taula.

Herritarren erreakzioak emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuen aurrean. Emaitzak multzokatuta.
Emaiza orokorrak eta sexuaren arabekoak. %

	1. KASUA			2. KASUA			3. KASUA		
	Orokorra	Emakumeak	Gizonak	Orokorra	Emakumeak	Gizonak	Orokorra	Emakumeak	Gizonak
Biktimari laguntzea, elkarteren batekin harremanetan jartzea eta erasoala dezan aholkatzea	47,1(*)	41,1	53,5	9,0	8,6	9,4	80,0(*)	82,1	77,7
Poliziarri deitzea	49,6(*)	55,2	43,6	69,1(*)	71,8	66,2	6,0	6,4	5,6
Erasotzaileari aurre egin	29,0(*)	17,1	42,0	4,7	3,9	5,5	4,6(*)	3,8	5,6
Ez nuke ezer ere egingo (beldurragatik, niri ez dagokidalako edo ez nukeelako jakingo zer egin)	7,8(*)	9,3	6,1	11,9	13,0	10,8	5,7	5,1	6,3

Oharra: Ehuneko bertikalen baturaren emaitza ez da % 100, erantzun anitzeko galdera delako. Ezer ere ez luketela egingo dioten erantzunak batera ezin dira aurrekoekin. (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Pertsona gazteek (16 eta 29 urte bitarteko pertsonak) kasu horietan izango lituzketen erreakzioak bat datoz herritar guztiek izango lituzketenekin; hala ere, adierazi beharrekoa da herritarren talde horrek biltzen dituela ezer ere egingo ez luketen pertsonen ehuneko txikiak, hirugarren kasuan izan ezik.

42. Taula.

Herritarren erreakzioak emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuen aurrean. Emaitzak multzokatuta.
Gazteek emandako emaitzak (16-29 urte) (%)


	1. KASUA		2. KASUA		3. KASUA	
	Orokorra	16-29 urte	Orokorra	16-29 años	Orokorra	16-29 urte
Biktimari laguntzea, elkarteren batekin harremanetan jartzea eta erasoala dezan aholkatzea	47,1	41,6	9,0	7,1	80,0	82,3
Poliziarri deitzea	49,6	60,7	69,1	77,5	6,0	7,4
Erasotzaileari aurre egin	29,0	35,6	4,7	6,2	4,6	5,5
Ez nuke ezer ere egingo (beldurragatik, niri ez dagokidalako edo ez nukeelako jakingo zer egin)	7,8	4,4	11,9	7,1	5,7	6,0

Euskal gizartearen ustez, zer-nolako lana egiten ari da Administrazioa arazo honi aurre egiteko?

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna oinarritzko eskubide bat da, eta printzipio orokor moduan ezartzen du sexuagatiko diskriminaziorik ez pairatzeko eskubidea. Egiazko berdintasun eraginkorra lortzea eragozten eta zailtzen duten oztopoen ondorioz, gutxiagotasun-egoera batean bizi dira emakumeak, eta emakumeen aurkako indarkeria da desoreka horren muturreko adierazpena. Indarkeria horrek gutxiegitasun nabarmen bat dakarkio demokraziaren kalitateari, eta agerian uzten du emakumeek ez dutela herritartasun osorik erdietsi.

Egia da Administrazioak sozializatzeko eragileen (familien, hezkuntza-eragileen, komunikabideen eta antzeko eragileen) ildoari jarraituz eta haiekin lan eginez jardun behar duela, baina egia da, halaber, herri-administrazioaren egitekoa funtsezkoa dela emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko, bai prebentzioko eta arretako mekanismoak ezar ditzakeelako indarkeria-mota hori pairatzen duten emakumeentzat, bai berebiziko zeregina duelako emakumeak eta gizonak berdintasun-egoeran jarriko dituen balioen multzoa sustatu eta horiei buruzko sentsibilizazio lana egiteko.

Ez da ikerlan honen egitekoa administrazioek egiten duten lana ebaluatzea, baina interesgarria deritzogu ikertzea, azaleko eta hastapeneko maila batean bada ere, zer-nolako balorazioa egiten duen euskal gizarteak herri-administrazioak emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean egiten duen lanari buruz.



6. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuei aurre egiteko lanarekiko herri-administrazioak duen inplikazioari buruzko balorazioa. Emaita orokorrak (%)

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da herritarren erdiaren ustez (% 51,1), *administrazioak inplikazio txikia duela genero-indarkeriako kasuekiko*, baina, era berean, herritarren ehuneko handi batek (% 40,5ek) uste du inplikazio nahikoa duela haiekiko.

Herritarren erantzunek ez dute alde handirik lurraldetik lurraldera, baina Gipuzkoako herritarrek dute iritzi irmoena herri-administrazioak inplikazio txikia duela edo ezer ere ez dela inplikatzeko esatean (gipuzkoarren % 58,9k dio hori).

Estatistikaren ikuspegitik adierazgarriak diren aldeak ikusten dira gizonen eta emakumeek horri buruz duten iritzian. Gizonen baino iritzi kritikoagoa dute emakumeek. Emakumeen % 58,5ek uste du erakunde publikoek inplikazio txikia duela edo ez dela ezer ere inplikatzeko, eta gizonen % 51,3k du iritzi hori.

43. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuei aurre egiteko lanarekiko herri-administrazioak duen inplikazioari buruzko balorazioa. Emaitzak Lurralde Historikoen arabera (%)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Ezer ere ez	1,7	3,8	4,6
Txikia	50,4	49,4	54,3
Nahikoa	44,9	42,2	35,6
Handia	2,9	4,6	5,4
Guztira	100,0	100,0	100,0

44. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuei aurre egiteko lanarekiko herri-administrazioak duen inplikazioari buruzko balorazioa. Emaiza orokorrak eta sexuaren arabera (%)

(*)	OROKORRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Ezer ere ez	3,8	4,0	3,6
Txikia	51,1	54,5	47,7
Nahikoa	40,5	38,4	42,6
Handia	4,6	3,2	6,0
Guztira	100,0	100,0	100,0

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Adinak eragina duela dirudi herri-administrazioek gaiarekiko duen inplikazioari buruzko iritziaren nolatasuna erabakitzeko. Datuek esaten dute *herritarren multzo osoak baino balorazio zertxobait hobea egiten dutela gazteek* (gazteek % 51,7k uste du gutxi edo ezer ere ez dela inplikatzeko Administrazioa, eta herritarren guztikoaren % 54,9 da iritzi horretakoa) eta, batik bat, nabarmentzen da 65 urtetik gorako pertsonen egiten dutela herri-erakundeen inplikazioari buruzko baloraziorik okerrera.

Gazteen datuak sexuaren arabera banakatuta aztertuz gero, ikusten da herritarrek oro har adierazten dituzten joerak erakusten dituztela, baina, kasu honetan, emakume gazteek ez dute, gizon gazteen aldean, iritzi kritikoagorik adierazten, estatistikaren ikuspegitik.

45. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuei aurre egiteko lanarekiko herri-administrazioak duen inplikazioari buruzko balorazioa. Adinaren arabera emaitzak (*) eta gazteen emaitzak (16-29 urte) sexuaren arabera (%)

(*)	16-29 urte	EMAKUMEAK 16-29 urte	GIZONAK 16-29 urte	30-39 urte	40-49 urte	50-65 urte	>65 urte
Ezer ere ez	2,6	2,1	3,0	1,8	4,5	3,6	6,2
Txikia	49,1	54,0	44,4	50,4	48,9	51,6	54,8
Nahikoa	43,7	40,2	47,0	42,1	41,7	40,9	35,0
Handia	4,7	3,7	5,6	5,7	5,0	3,9	4,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($\chi^2 < 0,05$).


Nola baloratzen du euskal gizarteak komunikabideek genero-indarkeriako kasuei ematen dien tratamendua?

Administrazioak zeregin funtsezkoa badu ere arazo honi aurre egiteko, ez da bistatik galdu behar beste eragile batzuek eta, bereziki, sozializazioarako eragileek duten egitekoa: familiek, hezkuntza-eragileek, komunikabideek eta abarrek.

Horien artean, komunikabideak dira, gaur egun, gizarte baten jarduteko eta pentsatzeko modua baldintza ditzaketen mezuak eta balioak transmiti ditzakeen sozializatzeko-eragile nagusietako bat. Gizarte-gertakariei buruzko iritzia sortzen laguntzen dute komunikabideek. Haiek ematen duten informazioak errepikatu egin ditzakete gizonen eta emakumeen estereotipoetan oinarritutako uste eta sinesmenak edo, bestalde, indarkeria-mota horren adierazpenekiko eta arrazoiekiko kontzientzia kritikoa susta dezakete.

Komunikabideek gizarte-ardura handiko zeregina dute genero-indarkeriaren alorrean, eta, ondorioz, erabaki dugu egokia dela hastapeneko ikuspegi batetik aztertzea nola baloratzen duen euskal gizarteak komunikabideek indarkeria-kasuei ematen dieten tratamendua.

Herritarren ia erdiak (% 47,5ek) uste du, oro har, *komunikabideek emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuei ematen dieten tratamendua egokitasun txikikoa dela eta ia % 10ak uste du tratamendu hori ez dela batere egokia*. Bestalde, herritarren % 37,5ek adierazi du tratamendu hori nahiko egokia dela.




7. Grafikoa.

Komunikabideek emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuei ematen dieten tratamenduarekiko adostasun-maila. Emaitza orokorrak (%)

Oso antzera ikusten dute afera gizonak eta emakumeak. Emakumeen % 56,1ek esaten du adostasun handirik ez duela edo ez dagoela batere ados tratamendu horrekin eta ehuneko hori zertxobait handiagoa da gizonen kasuan, % 58,2koa baita.

Oro har, adinak ez du alde adierazgarririk ezartzen, baina badirudi 40 urtetatik aurrera pertsonak gero eta uzurtasun handiagoz ikusten dutela komunikabideek kasu horiei ematen dieten tratamendua, eta, joera horren ifrentzuan, *gazteek (16 eta 29 urte bitarteko pertsonak) adostasun handiagoa azaltzen dute komunikabideek gaiari ematen dioten tratamenduarekin.*

Hala ere, azterketa xehakatuago bat eginez gero adina eta sexua aintzat hartuta, ikusten da badela *emakumeen kasuan alde adierazgarririk adinaren aldagaiari erreparatuz gero.* Izan ere, emakume gazteen (16 eta 29 urte bitarteko emakumeen) erdiak baino gehiagok ondo ikusten du komunikabideek gaiari ematen dioten tratamendua, baina adinak gora egin ahala, gero eta uzkurragoak ageri dira emakumeak; hala, 50 urtetik gorako hamar emakumetik seik esaten dute komunikabideen tratamendua egokitasun txikikoa dela edo ez dela batere egokia.



8. Grafikoa.

Komunikabideek emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuei ematen dieten tratamenduarekiko adostasun-maila txikia adierazten duten edo batere ados ez dauden pertsonen % .

Emaita orokorrak, sexuaren eta adinaren arabera (%)

6.2.

GENERO-INDARKERIAREN ERAGINA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Euskal gizarteak genero-indarkeria buruz dituen usteak eta pertzepzioak aztertu ondoren, urrats bat gehiago ematen saiatu da ikerlan hau arazo hori aztertzeko lanean, indarkeria-kasu horiek gizartean duten presentziaren nondik norakoak argitzen saiatzeko. Lan hori egiteko, hiru ikuspegi hartu ditu ikerlanak eta, ondorioz, hiru azpi-atal egin behar izan dira kapitulu honetan.


Alde batetik, arazoa aztertu da galdetuak izan diren pertsonen eskatuz beren inguruan eta gaur egun dituzten indarkeria matxistako kasuen berri eman diezaguten. Inguruan terminoaren esanahia zehazteko, esan zaie eguneroko bizitzako gunen edo eremuak direla, hau da, familia, lagunak, pertsona ezagunak, auzotarrak eta lankideak edo ikaskideak.

Bestalde, indarkeriaren prebalentzia kuantifikatu da kontsultatuak izan diren emakumeen laginean “deklaraturako tratatu txarrak” izenda daitekeen egitate edo aldagaiaren baitan, hau da, aintzat hartuta, soil-soilik, berariaz edo zuzenean genero-indarkeriako motaren baten biktimak sentitu direla (beren bizitzako unerik batean eta/edo gaur egun) adierazi duten emakumeen kasuak.

Esparruari buruz diharduen kapituluak, intentsitate “apaleko” indarkeriaz hitz egin dugu, zenbait autorek “mikromatxismo” gisa azaltzen duten fenomenoaz. Gizartean agerikoena den indarkeriarekin gertatzen den moduan, indarkeria-adierazpenak dira mikromatxismoak ere, emakumeenganako abusu-jokabideak baitira, emakume izate hutsagatik eginak. Eguneroko bizitzan berdintasunari jartzen zaizkion oztopoak eta zailtasunak dira. Gizonek emakumeekiko harremanetan baliatzen dituzten kontrol, inposizio eta botere-abusuzko jokabideak dira eta horregatik soilik aztertzekoak dira, baina, kasu zehatz honetan, bereziki aztertzekoak dira ikusezinak eta ezkutukoak izaten direlako haiek pairatzen dituzten emakumeentzat.


Hori jakinda, urrats bat gehiago eman nahi izan dugu eta indarkeria-adierazpenen eragina kuantifikatzeko ahalegina egin da galdetuak izan diren emakumeek eman dituzten erantzunei erreparatuta. Indarkeria-egoera batzuk eta indarkeria eite bat izan dezaketen zenbait egoera planteatu zaizkie emakume batzuei (alde batera utzita beren burua zuzenean biktima moduan ikusten duten ala ez). Hau da, beren erantzunen arabera “zeharka”, “ondorioztatuta” edo “teknikoki” emakumeen aurkakako indarkeria matxistako egoeraren bat bizi dutela pentsa daitekeen emakumeen kasuak aztertu dira, baldin eta hori ondorioztatu badaiteke haiek emandako erantzunetatik.

Galdera hauek erantzuten saiatuko gara kapituluaren zehar:



Euskal gizarteak zer neurritan ezagutzen ditu genero-indarkeriako kasuak?

Galdetuak izan diren pertsonen % 9 inguruk esan du gaur egun indarkeria-mota horren biktima den gutxienez emakumeren bat ezagutzen duela bere inguruan, eta ehuneko horia % 10ekoa da, baldin eta, ziurtasun erabatekorik ez izan arren, kasuren baten susmoa hartzen duten pertsonak zenbatuz gero.



9. Grafikoa.

Inguruan emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasu bati ezagutzen duten pertsonak.
Emaita orokorrak (%)

Datuak Lurralde Historikoen⁵⁶ arabera banakatuz gero, ez da alde aipagarririk ikusten. Udalerrriaren tamaina ez da, kasu honetan, estatistikaren ikuspegitik alde adierazgarriak erakusten dituen aldagaia, baina datuei erreparatuz gero, badirudi kasuen ezagutzak behera egiten duela udalerrriaren tamaina handitzen doan neurrian; hala, hiriburuetako pertsonak ezagutzen dituzten kasu-kopuru txikiak.

46. Taula.

Inguruan emakumeen kontrako indarkeria matxistako kasuen bat ezagutzen duten pertsonak.
Emaizak udalerrriaren tamainaren arabera (%)

	< 10.000 BIZ.	10.000-120.000 BIZ.	HIRIBURUA
Bai	10,6	9,7	6,9
Baiezkoaren susmua dut	1,0	1,4	1,1
Ez	88,4	88,9	92,0
Guztira	100,0	100,0	100,0

Galdetua izan den pertsonaren sexuak, ordea, alde adierazgarriak nabarmentzen ditu gai-alor horretan; izan ere, *emakumeek ziurtatzen dute, batik bat, badutela emakumeren bat inguruan genero-indarkeriaren biktima dena gaur egun.*

Emakumeen % 11,2k ezagutzen edo sumatzen du kasuen bat gutxienez, eta ehuneko hori, gizonei galdetuz gero, % 8,6ra jaisten da.

47. Taula.

Inguruan emakumeen kontrako indarkeria matxistako kasuen bat ezagutzen duten pertsonak.
Sexuaren emaitzak (%)

(*)	EMAKUMEAK	GIZONAK
Bai	10,1	7,3
Baiezkoaren susmua dut	1,1	1,3
Ez	88,8	91,4
Guztira	100,0	100,0

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Datuek adierazten dute badela harremanik adinaren eta kasuen ezagutzari buruzko erantzunen artean. *Gazteak dira, 16 eta 29 urte bitartean dituzten pertsonak alegia, genero-indarkeriako kasuen ezagutza edo susmoa dutela adierazten duten pertsonen adin-talde nabarmenena* (gazteen % 13,4k dio hori). Ehunekoak behera egiten du, pixkanaka, adinak gora egin ahala. Azken taldean, 65 urtetik gorako pertsonen taldean, ehuneko hori % 3,8koa da.

⁵⁶ Eranskinean kontsulta daitezke datuak, banakatuta.

48. Taula.

Inguruan emakumeen kontrako indarkeria matxistako kasuren bat ezagutzen duten pertsonak.
Adinaren arabera emaitzak (%)

(*)	16 - 29 urte	30 - 39 urte	40 - 49 urte	50 - 64 urte	65 urte edo gehiago
Bai	12,2	11,4	10,4	8,1	3,1
Baiezkoaren susmua dut	1,2	1,2	2,3	0,8	0,7
Ez	86,6	87,4	87,3	91,1	96,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Batera aztertzen badira sexua eta adina, ikusten da *errepikatu egiten dela joera orokorra gizonen eta emakumeen kasuan*, hau da, gazteenek emakumeen aurkako indarkeria-kasu gehiago ezagutzen dituzte, baina egia da, era berean, *joera hori asko ere nabarmenagoa dela emakumeen kasuan*⁵⁷.

Horrez gainera, naziotasunaren arabera diferentziak aztertzeko ahalegina egin da, eta ikusi da 50 urte baino gutxiago izan eta emakumeen aurkako genero-indarkeriako kasuren bat ikusi duten pertsona atzeritarren ehunekoa handiagoa dela bertakoen ehunekoa baino (% 17,1 eta % 12,5 hurrenez hurren). Estatistikari erreparatuta, ezin da esan aldeak adierazgarriak direnik, eta, horrez gain, kontuan izan behar da analisisa orientazio hutsekoa dela, ikerlan honetan pertsona atzeritarren kopuru mugatu bat galdekatu baita.

49. Taula.

Inguruan emakumeen kontrako indarkeria matxistako kasuren bat ezagutzen duten pertsonak. 50 Urtetik beherako herritarren emaitzak naziotasunaren arabera (%)

	ATZERRITARRAK EZ DIRENAK (<50 años)	ATZERRITARRAK (<50 años)
Bai	11,0	14,8
Baiezkoaren susmua dut	1,5	2,3
Ez	87,5	83,0
Guztira	100,0	100,0

Nabarmenezkoa da *indarkeria-kasuen ezagutzak modu adierazgarrian egiten duela gora genero-indarkeriaren biktimak izan direla edo gaur egun direla adierazi duten emakumeen artean*.

Identifikatu diren indarkeria-kasu gehienetan emakume ezagunen bat izaten da biktima (bizilagunak, hiru-garren pertsonen senide edo lagunak, etab.), baina ez gertu-gertukoa (kasu guztien % 42,5). Horien atzetik dauden lagunen kasua (% 38,9) eta, azkenik, senideena.

Finean, *familia-ingurunean ematen dira galdetuak izan diren pertsonen inguruan ikusi izana adierazi dituzten 10 kasuetatik 2 baino zertxobait gutxiago*.

57 Eranskinean kontsulta daitezke datuak, banakatuta.

50. Taula.

Galdetuak izan diren pertsonen inguruan ezagutu dituzten emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak, biktimarekiko harremanaren arabera (%)

	%
Familiakoak	18,5
Ama	3,6
Arreba / Ahizpa	3,3
Lehengusua	2,9
Alaba	1,8
Amaginarreba	1,1
Amona	0,7
Familiako beste emakume batzuk	5,1
Lagunak	38,9
Emakume ezagunak	42,5
Auzotarrak	18,9
Ezagunak	18,2
Lankideak	2,9
Ez zehaztua	2,5
Ezagututako kasuak, guztira	100,0

Kasu honetan, ez da alde handirik ikusten gizonen eta emakumeen artean, baina familian emakumeek kasu gehiago ezagutzen dituztela dirudi, gizonek baino (% 20,5 eta % 15,6 hurrenez hurren).

51. Taula.

Galdetuak izan diren pertsonen inguruan ezagutu dituzten emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak, biktimarekiko harremanaren eta galdetua izan den pertsonaren sexuaren arabera (%)

	EMAKUMEAK	GIZONAK
Familiakoak	20,5	15,6
Lagunak	38,6	39,4
Ezagunak	41,0	45,0
Guztira	100,0	100,0


Inguruan ezagutzen diren kasuen gehiengoak urtebetetik gora irauten duten egoeren berri ematen du (urtebetetik gorako iraupenekoak dira kasuen % 45,5 eta 5 urtetik gorako iraupenekoak dira kasuen % 30,9). Familiako edo senideen kasuen iraupena luzeagoa edo kronifikatuagoa dela ikusten da, kasuen % 54,9k baitu 5 urte edo gehiagoko iraupena.

52. Taula.

Inguruan ikusi diren emakumeen aurkako indarkeria matxistako egoeren iraupena.
Emaita orokorrak eta biktimarekiko harremanaren arabera (%)


	URTEBETE BAINO GUTXIAGO	1 ETA 5 URTE BITARTEAN	5 URTETIK GORA	EZ DAKIT	GUZTIRA
Familiakoak	3,9	37,3	54,9	3,9	100,0
Lagunak	16,0	50,0	29,0	5,0	100,0
Ezagunak	23,1	44,4	22,2	10,3	100,0
Guztira	17,1	45,5	30,9	6,5	100,0

Familia-ingurunean eragindako indarkeria-kasurik ezagutzen dira, batik bat. Gutxi gorabehera, herritarrek ezagutzen dituzten hamar indarkeria-kasuetatik bederatzik dira bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoak.



10. Grafikoa.

Tratu txarren eragilearen izaera identifikatu diren emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuetan (%)




11. Grafikoa.

Identifikatu diren emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuen gertaera-esparrua (%)

Emakumeen aurkako indarkeria-kasu ezagunen % 86,5ean eragin da tratu txar psikologikoa eta kasuen % 64,6an tratu txar fisikoa. Horrez gainera, adierazi behar da emakumeen % 56 inguruk pairatzen dituztela bi indarkeria-mota horiek. Ohikoa izaten da indarkeria fisikoa eta psikologikoa eragiten duten erasotzaileek familia-eremuan eragitea indarkeria horiek eta, kasu horietan, bikotekidea edo bikotekide ohia izatea haiek eragiten dituen.


Lan-esparruan, ohikoagoa izaten da tratu txar psikologikoen kasuak gertatzea, eta eremu sozialean edo espazio publikoetan, berriz, pertsona ezezagunek indarkeria sexuala eragin edo baliatzea.



12. Grafikoa.

Identifikatu diren emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuetan baliatu diren indarkeria-motak (%)

Galdetuak izan diren herritarrek identifikatu dituzten emakume biktimen erdiak salatu du indarkeria-egoera. Hala ere, adierazi diren kasuen % 37,2an ez da salaketarik jarri eta gainerako % 12an galdetua izan den pertsonak ez daki salaketarik jarri den ala ez.



13. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuen banaketa, salatuak izan diren ala ez aintzat hartuta. Emaita orokorrak (%)

Zenbat emakumek pairatu dute noizbait genero-indarkeria? Zenbatek pairatzen du horrelako egoeraren bat gaur egun?

Komeni da gogoratzea ikerlan honek lau esparru bereizi dituela indarkeria matxistaren prebalentzia aztertzeko Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeengan eragina den aldetik: bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria, familia barnean gertatzen den indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa ez dena), lan-esparruan eragiten den indarkeria, eta gizartean edo eremu-publikoan eragiten den indarkeria. Ikerlan honen aurretik egin diren beste azterlan batzuek berariaz aztertu dituzte esparru horiek, parametro batzuk aintzat hartuz eta beste batzuk kontuan hartu gabe; beraz, hemen erabaki da bildutako informazioaren azterketa xehea egitea, esparru bakoitza modu berezitan aztertuz, eta, ahal izan den neurrian, konparazio batzuk egiteko aukera emanez.

Pentsatzekoa zen moduan, galdetuak izan diren emakumeen gehiengo handi batek (% 87,5) esan du ez duela inoiz bere burua ikusi genero-indarkerian biktima gisa. Hala ere, EAEn 16 urte edo gehiago dituzten emakumeen % 12,5ek –hau da, 231.556 emakumek, gutxi gorabehera⁵⁸– pairatu du bere bizitzan emakumearen aurkako indarkeria matxistako motaren bat, zehaztu ditugun lau eremu edo esparruetakoren batean. Emakume horietatik guztietatik, indarkeria-mota horren biktima dira, gutxi gorabehera, 37.419 emakume, hau da, galdetuak izan diren emakumeen % 2,02k bizi du indarkeria matxistako egoeraren bat gaur egun. Antzeko indizeak erregistratu dira Lurralde Historiko guztietan⁵⁹.

Oro har, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria da; izan ere, galdetuak izan diren emakumeen % 7,5ek adierazi baitu indarkeria pairatu izan duela eremu horretan bere bizitzan. Gaur egun, EAEn 16 urte baino gehiago dituzten emakumeen % 1,2k pairatzen du indarkeria esparru horretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko ehunekoak Estatukoak baino zertxobait apalagoak dira *Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko 2011ko Makroinkestan*⁶⁰. Gobernuak genero-indarkeriaren alorrerako ezarritako ordezkariak egindako inkesta da. Lan horren emaitzen arabera, Espainian bizi diren emakumeen % 10,8k esaten du indarkeria pairatu duela bere bikotearen edo bikotekide ohiaren aldetik bizitzan behin gutxienez, eta % 3 dira oraindik indarkeria hori pairatzen dutenak.

Hori horrela izanda ere, aintzat hartu behar da, diferentzia horiek azaltzeko arrazoia izan daitekeela, zati batean bederen⁶¹, informazioa biltzeko erabili den metodoa (etxean aurrez aurre egindako entrebistak baliatu ditu Makroinkestak informazioa biltzeko); izan ere, emaitza edo indize apalagoak adierazi zituzten beste urte batzuetako Makroinkestek⁶² (urte horietan telefono bidezko inkestak baliatu ziren informazioa biltzeko). Hori horrela, 2006an (urte horretan esan daiteke datuak konparatzeko moduko erreferentziak dituztela), Estatuko emakumeen % 6,3k pairatu du bizitzan gutxienez behin indarkeria bere bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik, eta % 2,1ek pairatu zuen azken urtean.

Gertuko erreferentzia moduan har daitezke *Encuesta de violencia machista a Catalunya*⁶³ ikerlanaren azken aleak bildu eta plazaratutako datuak. Azterlan horrek plazaratutako datuen arabera, Katalunian bizi ziren emakumeen % 2k pairatu zituzten 2009. urtean tratu txarrak beren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik.

58 Kasu honetan eta hemendik aurrera, zenbaki absolutuetan egiteko zenbatespenak, Eustat erakundeak argitaratutako *Udal Biztanleriaren Eguneratzea 2009/12/31ra* izeneko lana baliatu dugu.

59 Eranskinean kontsulta daitezke datuak, banakatuta.

60 Op. Cit.

61 Kontuan izan behar da zenbait muga daudela bi lanak konparatzeko, azterlanaren xedea ez baita berdina eta horixe bera gertatzen da informazioa biltzeko metodologia-planteamenduekin. Horri buruzko informazio gehiago ematen da esparruari buruzko kapituluan.

62 Op. Cit.

63 Op. Cit.

Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen % 1,79k pairatu du inoiz familia barruan genero-indarkeria –bikotekidea edo bikotekide ohia ez diren senideek eragindakoa–, eta gaur egun emakumeen % 0,67k pairatzen du, gutxi gorabehera.

Bestalde, kontsultako datuek esaten dute lan ordaindua duten edo izan duten emakumeen % 1,8k indarkeria pairatu dutela lan-esparruan, hau da, emakume guztien % 1,42k pairatu du inoiz indarkeria esparru horretan. Gaur egun, lanean ari diren emakumeen % 0,4k paira dezakete indarkeria esparru horretan.

Lehen adierazi dugun ikerlanak Katalunian lan-esparruan emakumeek pairatzen duten indarkeriari buruzko datuak ematen dizkigu, eta, orientaziorako erreferentzia moduan, esan daiteke lanean ari ziren emakumeen % 0,9k aitortu zutela sexu-jazarpenaren biktima izan zirela lan-esparruan 2009. urtean zehar.

Beste erreferentzia bat osatzen dute Sexu-jazarpena lan-esparruan azterlanak 2007an⁶⁴ argitaratu zituen datuek. Azterlan horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren % 1,8k adierazi zuen lan-jazarpena pairatu zuela azken urtean, eta jazarpen horren biktima emakumeak izan ziren, batik bat.

Horrez gainera, emakumeen % 2,7k pairatu du bizitzan inoiz emakumearen aurkako indarkeria eremu sozialean edo espazio publikoan.

53. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria pairatu duten emakumeen ehunekoak esparruaren arabera.
Guztizko zenbatetsiak eta (%)

	BEHIN EDO BEHIN		GAUR EGUN	
	%	Zenbatespena (emakumeak)	%	Zenbatespena (emakumeak)
Orokorra: edozein esparruan	12,50	231.556	2,02	37.419
Bikotekideak edo bikotekide ohiak	7,50	138.934	1,19	22.044
Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik)	1,79	33.159	0,67	12.411
<i>Familian (bikotekidea edo ohia + familia barruko genero-indarkeria)⁶⁵</i>	<i>8,40</i>	<i>155.606</i>	<i>1,49</i>	<i>27.601</i>
Lan-esparrua (oharra)	1,42/1,8	–	0,40	1.690
Eremu sozial/publikoa	2,70	50.016	0,15	2.779

Oharra: Bi datu-mota ematen dira lan-esparruaren atalean. "Behin edo behin" deritzon atalean, galdetuak izan diren emakumeen guztizkotik indarkeria pairatu duten emakumeen ehunekoa adierazten du lehen indizeak, eta bigarrenak indarkeria pairatu duten emakumeen ehunekoa adierazten du, lanean dauden guztiak edo inoiz lan ordaindua izan duten emakumeen guztizkoarekiko. "Gaur egun" deritzon atalean, indarkeria pairatzen duten emakumeen ehunekoa ematen da, egun lanean ari diren emakumeen guztizko kopuruarekiko. Egoera horretan dauden emakumeen zenbatespena egiteko, lanean dauden emakumei buruzko datuak hartu dira erreferentzia moduan, Jardueraren arabera Lanean ari diren Herritarren Inkestak 2011n argitaratu dituen datuei erreparatuta.

64 Op. Cit.


65 Batera kalkulatu dira bikotekideak eta bikotekideak egindako indarkeria eta familia barruko genero-indarkeria adierazten duten datuak, banaketa hori egiten ez duten azterlanekiko konparatze-lana errazteko.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak egindako azterlanak, 2009. urteko datuak jasotzean, adierazi zuen herrialde historiko horretan bizi diren emakumeen %3,3k aitortu zutela familia/etxeko indarkeria azken bi urteetan.

Indarkeria-moduak

Indarkeria psikologikoa da gehien erabiltzen den indarkeria-mota, eta haren atzetik dago, oso urrun, indarkeria fisikoa. Genero-indarkeriaren biktima izan direla adierazi duten emakumeen % 78,4k –emakume guztien % 9,8k– aitortu du indarkeria psikologikoa pairatu duela behin edo behin bere bizitzan.

Lan-esparruan, batez bestekoaren azpiko adierazgarritasun edo eragina dute indarkeria-modu batzuek, eta oso ohikoa izaten da indarkeria psikologikoa baliatzea. Indarkeria psikologikoak ez du lan-esparruan adinako eragina izaten eremu sozialean edo espazio publikoetan egindakotzat jotzen diren indarkeria-kasuetan (eremu horietan, eraso gehienak biktimarentzat ezezagunak diren pertsonak edo, ezezagunak izan arren, familiakoak ez diren pertsonak egiten dituzte)⁶⁶.



14. Grafikoa.

Emakumeek pairatutako indarkeria matxistako moduak emaitzak behin edo behin biktiman izan diren eta gaur egun biktimak diren bereizita (%) ⁶⁷

Iraupena

Gaur egun gertatzen diren genero-indarkeriako kasu asko nahiko berriak direla esan daiteke; izan ere; egoera hori pairatzen duten emakumeen % 23,1ek urtebete baino gutxiago darama egoera horretan eta % 30,8k 1 eta 5 urte bitartean darama egoera hori pairatzen. Hala ere, nabarmendu behar da adierazgarria dela egoera horretan 10 urte baino gehiago daramaten emakumeen taldea, gaur egun indarkeria pairatzen dutela aitortu duten emakumeen % 30,8 baitira.

⁶⁶ Eranskinean kontsulta daitezke datuak, banakatuta.

⁶⁷ Ehunekoen batura ez da 100, aukerak ez direlako baztertzailak.

54. Taula.

Gaur egun indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen banaketa, indarkeriaren iraupen-denboraren arabera (%)

	%
Urtebete baino gutxiagotik	23,1
1 eta 5 urte bitartean	30,8
6 eta 10 urte bitartean	15,4
10 urtetik gora	30,8
Guztira	100,0

Salaketa

Euskal Autonomia Erkidegoan behin edo behin genero-indarkeriaren biktima izan direla aitortu duten emakumeen % 23k adierazi du erasotzailea salatu duela. Hala ere, kontuan izan behar da *egoera hori pairatu duten lau emakumetatik hiruk ez duela erasotzailea salatu*.

Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuak dira gehien salatzen direnak (% 27,3), eta gutxien salatzen direnak, berriz, lan-esparrukoak eta eremu sozialekoak dira (% 10 eta % 11,1 hurrenez hurren).

55. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuen salaketa-ehunekoak, eremuaren arabera (%)

	SALAKETARIK EZ	SALAKETA JARRI DA	BATZUETAN BAI ETA BESTE BATZUETAN EZ	GUZTIRA
Orokorra: edozein esparrutan	75,2	23,0	1,9	100,0
Bikotekideak edo bikotekide ohiak	69,7	27,3	3,0	100,0
Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohian eragindakoak izan ezik)	75,0	16,7	8,3	100,0
<i>Familian (bikotekidea edo ohia + familia barruko genero-indarkeria)</i>	<i>69,4</i>	<i>27,9</i>	<i>2,7</i>	<i>100,0</i>
Lan-esparrua	90,0	10,0	0,0	100,0
Eremu sozial / publikoa	88,9	11,1	0,0	100,0

Espezializatutako baliabideek emandako arreta

Bestalde, nabarmendu behar da *indarkeria matxistako moduren baten biktima izan diren emakumeen % 17,2k adierazi duela noizbait joan izan dela genero-indarkeriaren biktima izan direnei laguntzeko baliabide espezializaturen batera*. Beren bikotekidearen edo bikotekide ohiaren biktima izan diren emakumeek baliatzen dituzten, batik bat, baliabide horiek (% 21,2k) eta horien atzetik datoz familian genero-indarkeria pairatu duten emakumeak (% 20,8k). Ehuneko horietatik oso urrun dauden eremu sozialean edo publikoan indarkeria pairatu duten emakumeen erabilera-ehunekoa (% 2,8k) eta lan-esparruan pairatu duten emakumeen erabilera-ehunekoa (% 5k).

56. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima izan direnei laguntza profesionala emateko baliabideren batera joan diren emakumeen biktimen proportzioa (%)

	BALIABIDEREN BAT ERABILI DUTE	EZ DUTE BALIABIDE- RIK ERABILI	GUZTI- RA
Orokorra: edozein esparrutan	17,2	82,2	100,0
Bikotekideak edo bikotekide ohiak	21,2	78,8	100,0
Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohian eragin- dakoak izan ezik)	20,8	79,2	100,0
<i>Familian (bikotekidea edo ohia + familia barruko genero-indarkeria)</i>	<i>22,5</i>	<i>77,5</i>	<i>100,0</i>
Lan-esparrua	5,0	95,0	100,0
Eremu sozial / publikoa	2,8	82,2	100,0

Aurretik egindako beste azterlan batzuek adierazi duten moduan, emakumeen aurkako indarkeria matxistak ez du emakume-profil jakin bat gaztigatzen, askotarikoak baitira hura pairatzen duten emakumeen adina, maila sozioekonomikoa, lan-egoera, hezkuntza-maila, etab. Ezin da, beraz, perfil bakar eta argi batez hitz egin, baina emakume biktimen ezaugarri soziodemografikoei erreparatuz gero, indarkeria-mota horrek erakusten dituen magnitudeak eta prebalentzia ikus daitezke zenbait aldagairen arabera.

Adina

Galdetuak izan diren emakume guztien *batez besteko adina* 50 urtekoa da, eta urteen kopurua zertxobait apalagoa da behin edo behin indarkeria matxistaren biktima izan direla adierazten duten emakumeengan (47,5 urte), baina zertxobait handiagoa gaur egun indarkeria hori pairatzen dutela esaten dutenengan (50,8 urte).

Indarkeriaren eremuak konparatzen badira, ikusten da familia barruko genero-indarkeriaren kasuan (familian eragindakoa, baina bikotekidea eta bikotekide ohiarena kanpo uzten duena), biktimen batez besteko adina zertxobait handiagoa da (53,2 urtekoa da batez bestekoa indarkeria behin edo behin pairatu duten emakumeak kontuan hartuz gero, eta 58 urtekoa gaur egungoak kontuan hartzen badira). Joera hori bera berresten dute *Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritzak* argitaratutako estatistikek⁶⁸: biktimizazioen kopuruak eta emakume biktimen kopuruak 2010. urtean handiagoak dira 41 eta 50 urte bitarteko eta 60 urtetik gorako tarteetan, Euskal Autonomia Erkidearen lurralde-esparruan.

Biktimen batez bestekoak behera egiteko joera du gizartean eta lan-esparruan eragindako genero-indarkerien kasuetan.

68 Op. Cit.

57. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria pairatu duten emakumeen batez besteko adina.
Emitza orokorrak eta esparruaren arabera. Batez bestekoak

	OROKO- RRA: Edo- zein espa- rrutan	BIKOTEEN EDO BIKOTE OHIEK AR- TEAN	FAMILIA BARRUKO GENERO- INDARKERIA (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoak izan ezik)	LAN- ESPARRUA	EREMU SOZIAL / PUBLIKOA
	Adina b/b	Adina b/b	Adina b/b	Adina b/b	Adina b/b
Guztira galdetuak	50	50	50	50	50
Inoiz biktima izandako emak.	47,5	48,6	53,2	46,05	43,7
Egun biktima diren emak.	50,8	52,1	58	42,6	48,5

“Bizitzan behin edo behin” indarkeria pairatu duten emakumeek adin-taldearen arabera erakusten dituzten aldeak adierazgarriak dira estatistikaren ikuspegitik. *Indarkeria-kasu gehien ageri dituen adin-taldea 30 eta 39 urte bitartekoa da*; izan ere, indarkeria-indize orokorra (esparru guztiak aintzat hartzen dituen) % 18,9koa da adin-talde horretan, eta emakume guztiek pairatzen dituzten kasuen batez bestekoa, berriz, % 12,5koa.

Adin-talde hori bera da (30-39 urte bitartekoa) indarkeria-kasu gehien ageri dituen bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren esparruan. Bestalde, familia barruko genero-indarkeriak (bikotekideak eta bikotekide ohiak eragindakoa kanpo utzita) tasa handiagoak erakusten ditu 40 urtetik gorako emakumeengan, eta, bereziki, 40 eta 49 eta 50-64 urte bitarteko adin-tarteetan. Lan-esparruan eta gizartean, datuek erakusten dute prebalentzia-tasak batez bestekoak baino handiagoak direla 30 eta 49 urte bitarteko emakumeengan.

2011ko Makroinkestaren⁶⁹ datuek adierazten dute bikotekideak eta bikotekide ohiak eragindako tratatu txarren prebalentzia handiagoa dela 30-39 urte bitarteko emakumeen taldean; hala ere, adierazi behar da Makroinkestak berak eta Etxe Barruko Indarkeriari buruz Bizkaian egindako azterlanak⁷⁰ batez bestekotik gorako prebalentzia ikusi dutela 18 eta 29 urte bitarteko neska gazteengan. Ildo horri berari jarraituz, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak argitaratzen dituen estatistikek adierazten dute bikotekideak eta bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuak eta biktimizazioak ugariagoak direla adin-talde horretan.

Ikerlan honek ez du indize bereziki alturik adierazten gazteen kolektiboaren datuetan, baina kontuan izan behar da aztertu diren adin-tarteak ez direla berdin-berdinak eta ikerlan honek 16 urtetik gorako emakumeak kontuan hartu dituela (adin horietan gutxiago dira bikotekidea duten emakumeen proportzioa, etab.). Edonola ere, adierazi behar da hurrengo atalean aztertuko direla indarkeria ondorioztatutako kasuak (hau da, emakumeek beraiek adierazitakotik haragokoak), eta atal horretan aztertuko direla kasuak, berriro ere, adinaren arabera. Horrez gain, horri buruzko zenbait nabardura interesgarri egingo dira.

⁶⁹ Op. Cit.

⁷⁰ Op. cit.

58. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria pairatu duten eta pairatzen duten emakumeak, adinaren arabera. Emaizta orokorrak eta esparruaren arabera (%)


		OROKORRA	16 - 29 urte	30 - 39 urte	40 - 49 urte	50 - 64 urte	65 urte edo gehiago
BEHIN EDO BEHIN	Orokorra: edozein esparrutan (*)	12,5	10,4	18,9	13,3	10,8	10,1
	Bikotekideak edo bikotekide ohiak	7,5	7,1	9,8	5,8	7,2	7,4
	Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohian eragindakoak izan ezik)	1,79	0,9	1,2	2,9	2,0	1,8
	<i>Familian (bikotekidea edo ohia + familia barruko genero-indarkeria)</i>	<i>8,4</i>	<i>7,5</i>	<i>11,1</i>	<i>7,9</i>	<i>7,8</i>	<i>7,7</i>
	Lan-esparrua (oharra)	1,8	0,6	2,9	2,7	1,2	1,0
	Eremu sozial / publikoa	2,7	2,8	4,5	3,3	2,3	1,2
GAUR EGUN	Orokorra: edozein esparrutan (*)	2,02	1,4	1,6	2,5	2,3	2,1
	Bikotekideak edo bikotekide ohiak	1,19	0,9	0,8	1,3	1,0	1,8
	Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohian eragindakoak izan ezik)	0,67	0,0	0,0	1,3	1,3	0,6
	<i>Familian (bikotekidea edo ohia + familia barruko genero-indarkeria)</i>	<i>1,49</i>	<i>0,9</i>	<i>0,8</i>	<i>2,1</i>	<i>1,6</i>	<i>1,8</i>
	Lan-esparrua Lan-esparrua (**)	0,4	–	–	–	–	–
	Eremu sozial / publikoa	0,15	–	–	–	–	–

Oharra: Lan-esparruan, lanean ari den herritarren datuan oinarrituta kalkulatzen dira “gaur egun” ataleko portzentajeak eta behin edo behin lanean aritu den herritarren datuetan oinarrituta “behin edo behin” atalekoak.

(*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

(**) Lan-esparruan eta sozialean ez dira egungo indarkeria kasuak banakatu, kasu-kopurua txikia delako.

Indarkeria jasandako emakumeen adin-taldekako banaketak adierazten digu 30 eta 39 urte bitarteko emakumeen taldea dela galdetuak izan diren emakume guztien lagineko esparru guztietan kopuruz gailentzen den taldea. Horren salbuespena da familia barruko genero-indarkeriarena, 40-49 urteko adin-taldeko emakumeak nabarmentzen baitira esparru horretan.



15. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista pairatu duten eta pairatzen duten emakumeak banaketa adinaren arabera. Esparruen arabera emaitzak (%)

Habitata

Indarkeria-prebalentziak ez du diferentzia edo alde handirik erakusten emakumeen bizilekuko udalerriaren tamainari erreparatzen bazaio; hala ere, ikusten da udalerri txikietan bizi diren emakumeen prebalentzia apurtxo bat handiagoa dutela tasa orokorrak eta bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria-esparruari erreparatuta.

Badirudi, udalerriaren tamaina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa dela indarkeriaren prebalentzia-tasa eremu sozial edo publikoan; hala, hiriburuetan bizi diren emakumeek dute prebalentzia handiena indarkeria-mota horretan.


59. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria pairatu duten edo pairatzen duten emakumeen ehunekoak bizilekuko udalerriaren tamainaren arabera. Emaitza orokorrak eta esparruaren arabera (%)

	OROKORRA	< 10.000 BIZ.	10.000-120.000 BIZ.	HIRIBURUA
Orokorra: edozein esparrutan	12,5	12,8	12,5	12,3
Bikotekideak edo bikotekide ohiak	7,5	7,9	7,4	7,3
Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohian eragin-dakoak izan ezik)	1,79	1,8	1,6	1,9
<i>Familian (bikotekidea edo ohia + familia barruko genero-indarkeria)</i>	<i>8,4</i>	<i>8,8</i>	<i>8,0</i>	<i>8,4</i>
Lan-esparrua (oharra)	1,8	1,6	2,7	0,9
Eremu sozial / publikoa	2,7	2,1	2,7	3,1

Oharra: Lan-esparruan, behin edo behin lan egin duten herritarren datuetan oinarrituta kalkulatzen dira ehunekoak.

Galdetuak izan diren emakumeen lagin osoaren banaketak nabardurak ageri ditu lan-esparruan eragindako indarkeriaren alorrean; izan ere, esparru horretako indarkeria pairatzen duten emakumeen artean prebalentzia handiagoa dute 10.000 eta 120.000 biztanle bitartean dituzten udalerrietan bizi diren emakumeak.



16. Grafikoa.

Indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeen banaketa haien bizilekuko udalerriaren tamainaren arabera. Esparruaren arabera emaitzak (%)

Ikasketa-maila

Ezin da esan estatistikaren ikuspegitik alde adierazgarriarik ikusten denik indizeetan. Taulak erakusten du prebalentzia handiagoa dela Lanbide Heziketako ikasketak, bigarren hezkuntzakoak eta unibertsitate-titulak dituzten emakumeengan, baina azken horien tasa ez da nabarmentzen bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren esparruan. Edonola ere, ez da lotura edo harreman argirik ikusten ikasketa-maila handiagoa edo txikiagoa izatearen eta indarkeria-motaren bat jasatearen edo ez jasatearen artean.


60. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria pairatu duten edo pairatzen duten emakumeen ehunekoak ikasketa-mailaren arabera. Emaiza orokorrak eta esparruaren arabera (%)

	OROKORRA	ALFABETATU GABE / L.H. GABE	LEHEN MAI- LAKOAK / ESKO- LA GRADUATUA	LH (I - II)	BIGAREN MAILAKOAK	UNIBERTSITATE TITULUDUNAK
Orokorra: edozein esparrutan	12,5	9,2	10,7	16,7	13,4	13,4
Bikotekideak edo bikotekide ohiak	7,5	6,6	6,7	11,1	8,3	5,6
Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohian eragin- dakoak izan ezik)	1,79	1,0	2,2	1,3	0,0	2,8
<i>Familian (bikotekidea edo ohia + familia barruko genero-indarkeria)</i>	8,4	7,1	7,4	12,4	8,3	7,2
Lan-esparrua Lan-esparrua	1,8	0,0	1,5	2,7	1,0	2,3
Eremu sozial / publikoa	2,7	1,5	2,0	1,7	4,2	4,7

Oharra: Lan-esparruan, behin edo behin lan egin duten herritarren datuetan oinarrituta kalkulitzen dira ehunekoak.

Lehen mailako edo maila apalagoko ikasketak dituzten emakumeen proportzioa txikiagoa da emakume biktimen kolektiboan, indarkeria pairatutako emakumeen guztikoan baino. Lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen proportzioa handiagoa da familia barruko genero-indarkeria pairatzearen esparruan, eta lanbide-heziketako ikasketak dituztenena bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoaren esparruan.



17. Grafikoa.

Indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeen banaketa haien ikasketa-mailaren arabera. Emaizak esparruaren arabera (%)

Emakumearen jardueraren arabera egoera

Oro har, indarkeriaren biktima diren emakumeen tasa nabarmen handiagoa da lanik ez duten emakumeen taldean (% 21,6 da lanik gabeko emakumeen tasa, eta % 12,5 batez bestekoa), baina haien atzetik dator lanean ari diren emakumeen taldea. Prebalentzia nabarmen apalagoa da ikasleen artean (% 3,7) eta ordaindu gabeko etxeko lanak egiten dituzten emakumeen kasuan (% 6,2). Horren salbuespena familia barruko genero-indarkeriaren esparrua da, ordaindu gabeko etxeko lanak egiten dituzten emakumeak nabarmentzen dira esparru horretan.

61. Taula.


Indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeak haien jardueraren arabera.
Emaizta orokorrak eta esparruaren arabera (%)

	OROKORRA	LANEAN	ORDAINDU GABEKO ETXEKO LANAK	IKASLEAK	LANGABEZIAN	PENTSIODUNA EDO ERRERITATUA
Orokorra: edozein esparrutan	12,5	14,6	6,2	3,7	21,6	9,4
Bikotekideak edo bikotekide ohiak	7,5	8,7	3,5	2,4	12,2	6,9
Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohian era- gindakoak izan ezik)	1,79	1,6	2,7	0,0	1,5	1,4
<i>Familian (bikotekidea edo ohia + familia barruko genero-indarkeria)</i>	<i>8,4</i>	<i>9,4</i>	<i>4,7</i>	<i>2,4</i>	<i>13,2</i>	<i>7,2</i>
Lan-esparrua Lan-esparrua (*)	1,8	2,0	0,0	0,0	3,8	1,0
Eremu sozial / publikoa	2,7	3,5	1,2	1,2	5,4	0,7

Oharra: aldagai honen kategoria batzuetako lagina bereziki murrizta da; beraz, tentuz hartu behar dira banakatutako indizeetako batzuk.

(*) Lan-esparruan, behin edo behin lan egin duten herritarren datuetan oinarrituta kalkulatzen dira ehunekoak.

Lanean ari diren emakumeek eta lanik gabekoek batez bestekotik gorako ehunekoak erakusten dituzte aztertutako ia esparru guztietan. Familia barruko indarkeriaren esparrua da salbuespena, ordaindu gabeko etxeke lanak egiten dituzten emakumeek tasa erlatibo nabarmen handiagoak erakusten baitituzte.



18. Grafikoa.

Indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeen banaketa haien jardueraren arabera.
Esparru-emaizak (%)

Diru-sarrerak

Maila sozioekonomiko guztietako indarkeria-tasak konparatuz gero, diferentzia adierazgarriak daudela ikusten da; hala, *1.000 euro baino gutxiagoko hileko diru-sarrerak dituzten etxeetan bizi diren emakumeek pairatzen dute genero-indarkeria batez bestekotik gora*. Lotura edo harreman orokor horrek bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren esparruan du isla handiena, gainerako esparruetan ez baita ikusten lotura edo harreman hori.


62. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria pairatu duten edo pairatzen duten emakumeak maila sozioekonomikoaren arabera. Emaita orokorrak eta esparruaren arabera (%)

	OROKORRA	1.000 € baino gutxiago	1.000 € eta 3.000 € bitartean	3.000 € baino gehiago
Orokorra: edozein esparrutan (*)	12,5	18,4	11,5	11,8
Bikotekideak edo bikotekide ohiak	7,5	13,2	6,5	2,6
Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohian eragin-dakoak izan ezik)	1,79	1,3	1,9	5,3
<i>Familian (bikotekidea edo ohia + familia barruko genero-indarkeria)</i>	<i>8,4</i>	<i>13,6</i>	<i>7,3</i>	<i>6,6</i>
Lan-esparrua Lan-esparrua (**)	1,8	1,9	2,1	1,4
Eremu sozial / publikoa	2,7	3,4	2,6	5,3

(*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

(**) Lan-esparruan, behin edo behin lan egin duten herritarren datuetan oinarrituta kalkulatzen dira ehunekoak.



19. Grafikoa.

Indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeen banaketa haien maila sozioekonomikoaren arabera. Esparruaren araberako emaitzak (%)

Egoera zibila

Egoera zibila da, ziur asko, alde handienak erakusten dituen aldagaia indarkeria-matxistaren gai-alorrean. Kategoria batzuetan laginak nahiko murrizak dira eta ezin izan dira estatistikaren ikuspegitik berretsi diferentziak, baina taulan ikus daiteke indarkeriaren prebalentzian alde handiak daudela taldetik taldera.

Oro har, ehunekoak handiak dira bikotekide batekin bizi diren emakumeen eta ezkondurik gabe dauden emakumeen artean (hala ere, lagina nahiko murrizta denez, tentuz hartu behar dira tasa horiek). Horrez gainera, nabarmentzekoa da *emakume dibortziatu eta bananduen ehunekoa, biktimen ehunekoa batez bestetik gorakoa baita talde horretan.*


63. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria pairatu duten emakumeak egoera zibilaren arabera.
Emaitza orokorrak eta esparruaren arabera (%)

	OROKORRA	EZKONDUA	DIBORTZIATUTA / BANANDUA	EZKONGABEA	ADOSTUTAKO BIKO- TE ERREGISTRATUA EDO GABEA	ALARGUNA
Orokorra: edozein esparrutan	12,5	9,9	34,4	12,5	42,1	11,7
Bikotekideak edo bikotekide ohiak	7,5	5,0	28,1	7,2	21,1	9,2
Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohian eragindakoak izan ezik)	1,79	2,0	1,6	1,4	0,0	1,8
<i>Familian (bikotekidea edo ohia + familia barruko genero-indarkeria)</i>	<i>8,4</i>	<i>6,3</i>	<i>28,1</i>	<i>7,8</i>	<i>21,1</i>	<i>9,8</i>
Lan-esparrua Lan-esparrua (*)	1,8	1,8	1,6	2,0	5,3	0,0
Eremu sozial / publikoa	2,7	2,3	3,1	3,3	15,8	1,2

Oharra: aldagai honen kategoria batzuetako lagina bereziki murrizta da; beraz, tentuz hartu behar dira banakaturako indizeetako batzuk.

(*) Lan-esparruan, behin edo behin lan egin duten herritarren datuetan oinarrituta kalkulatzen dira ehunekoak.



20. Taula.

Emakumeen aurkako indarkeria pairatu duten edo pairatzen duten emakumeen banaketa egoera zibilaren arabera.
Esparruaren araberako emaitzak (%)

Nazionalitatea

Lehen adierazi dugun moduan, emakume atzerritarren lagina murriztegia da ondorio edo konklusio irmoak ateratzeko, baina, hala ere, aldagaiak gurutzatuz gero, ikusten da indarkeriak eragin zertxobait handiagoa duela atzerriko emakumeengan. Lan-esparruak soilik litzateke emakume atzerritarren prebalentzia atzerritarrek ez direnena baino zertxobait apalagoa.

64. Taula.


Emakumeen aurkako indarkeria pairatu duten edo pairatzen duten emakumeak nazionalitatearen arabera.
Emaiza orokorrak eta esparruaren arabera (%)

	OROKORRA	EZ ATZERRITARRAK	ATZERRITARRAK
Orokorra: edozein esparrutan	12,5	12,5	29,2
Bikotekideak edo bikotekide ohiak	7,5	6,8	16,7
Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohian eragin- dakoak izan ezik)	1,79	1,8	1,3
<i>Familian (bikotekidea edo ohia + familia barruko genero-indarkeria)</i>	<i>8,4</i>	<i>7,7</i>	<i>16,7</i>
Lan-esparrua Lan-esparrua (*)	1,8	1,8	1,4
Eremu sozial / publikoa	2,7	2,1	10,3

Oharra: aldagai honen kategoria batzuetako lagina bereziki murrizta da; beraz, tentuz hartu behar dira banakaturako indizeetako batzuk.

(*) Lan-esparruan, behin edo behin lan egin duten herritarren datuetan oinarrituta kalkulatzen dira ehunekoak.

Emakume biktimen gehiengoa ez da atzerritarra, baina atzerriko emakumeen presentzia nabarmen handiagoa da bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren esparruan eta eremu sozialean, kolektibo horrek galdetutako emakumeen artean duena baino.



21. Grafikoa.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista pairatu duten eta pairatzen duten emakumeen banaketa nazionalitatearen arabera. Emaizak esparruaren arabera (%)

Zer ezaugarri ditu bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriak?

Egiaztatuta dago bikotekideek eta bikotekide ohiak eragiten dituztela emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasu gehienak; hala, egokia da berariazko atal batean aztertzea indarkeria-mota hau, xehetasunez azaltzeko haren ezaugarri espezifikoak.

Galdetuak izan diren emakumeen % 7,5ek adierazi du indarkeria-mota hori pairatu duela bizitzan behin edo behin. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan errealitate hori bizi dute 16 urtetik gorako emakumeen % 1,2k gutxi gorabehera; hau da, 22.000 emakume inguru ari daitezke beren bikotekidearengandik edo beren bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatzen.

65. Taula.

Bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatu duten edo pairatzen ari diren emakumeak.
Guztizko zenbatetsiak eta (%)

	BEHIN EDO BEHIN		GAUR EGUN	
	%	Zenbatespena (emakumeak)	%	Zenbatespena (emakumeak)
Bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeria	7,5	138.934	1,19	22.044

Bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumearen kontra eragindako indarkeria matxista sakontasunez aztertuko bada, funtsezkoa da, era berean, egoera horiek ikus edo paira ditzaketen seme-alaben presentzia ikertzea. *Hori horrela, gaur egun indarkeria-mota hori pairatzen duela dioten emakumeen % 68,8k seme-alabak dituzte. Aintzat hartzen bada emakume horietako bakoitzak 2 seme-alaba dituela batez beste, kalkulatzeko da, gutxi gorabehera, 30.413 seme-alaba ari daitezkeela egoera horien ondorioak pairatzen.*

Logikoa dirudi urrats bat gehiago ematea eta adingabeko seme-alaben presentzia ikertzea. Datuek azaltzen dute *beren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik gaur egun indarkeria pairatzen dutela adierazi duten emakumeen % 27,3k dituztela adingabeko seme-alabak*. Kontuan hartzen bada talde horretako emakumeek, kasu honetan ere, bi seme-alaba izaten dituztela batez beste, *kalkulatzen da EAEn 13.708 haur izan daitezkeela gaur egun indarkeria horren lekuko, eta, ondorioz, biktima, hau da, 18 urtetik beherako herritarren % 4,11*. Konparaziozko erreferentzia bat ematen digu 2011ko Makroinkestak, eta bertan adierazten da ehuneko hori % 10ekoa izan daitekeela Estatuan.

66. Taula.

Bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria matxista pairatu duten eta pairatzen duten emakumeen banaketa seme-alabak dituzten ala ez eta haien adinaren arabera. Emaizta orokorrak (%)

GALDETUTAKO EMAKUMEEN LAGINA		SEME-ALABAK DITUZTE		ADINGABEKO SEME-ALABAK DITUZTE	
		Indarkeria behin edo behin	Indarkeria gaur egun	Indarkeria behin edo behin	Indarkeria gaur egun
Bai	70,1	71,0	68,8	39,4	27,3
Ez	29,9	29,0	31,2	60,6	72,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Bikotekideek eta bikotekide ohiek *indarkeria psikologikoa* baliatzen dute gehien. Hala adierazten dute haien indarkeria behin edo behin pairatu duten emakumeek eta gaur egun pairatzen dutenek.

67. Taula.

Bikotekideek edo bikotekide ohiek emakumeen aurka eragindako indarkeria matxistaren motak.
Emaitzak behin edo behin biktima izan diren eta gaur egun biktima diren bereizita (%)⁷¹

BIKOTEKIDEA EDO OHIA		
	Behin edo behin	Gaur egun
Psikologikoa	87	100,0
Fisikoa	42	12,5
Fisikoa eta psikologikoa	33	12,5
Gizartean	19	12,5
Ekonomikoa	18	12,5
Sexuala	10	6,3

Beren bikotekide direnengandik edo izan direnengandik gaur egun indarkeria pairatzen duten emakumeen % 26,7k *urtebete baino gutxiago darama egoera horretan*. Horrez gainera, nabarmendu behar da kasu ugari daudela *10 urtetik gorako iraupena dutenak*.


68. Taula.

Bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen banaketa, iraupen-denboraren arabera (%)

	%
Urtebete baino gutxiagotik	26,7
1 eta 5 urte bitartean	13,3
6 eta 10 urte bitartean	13,3
10 urtetik gora	46,7
Guztira	100,0

⁷¹ Ehunekoen batura ez da 100, aukerak ez direlako baztertzaileak.


Bildutako datuen arabera, *bikotekideak eragindako genero-indarkeria* pairatzen ari diren edo pairatu duten emakumeen % 57,5ek hautsi dute bikote-harremana.



22. Grafikoa.

Indarkeria matxistako egoerak pairatu ondoren, bikote-harremana hautsi duten emakumeen proportzioa (%)

Emakume horietatik gehienek (% 62,2k) aitortzen dute harremana haustea ondorio kaltegarriak izan zituela beren egoera emozionalean, depresioa, antsietatea eta antzeko egoerak eragin baitzien. Baina, horrez gain, nabarmentzekoak dira beste ondorio kaltegarri batzuk ere, hala nola, erasoak (% 40), hitzezko mehatxuak (% 37,8), jazarpena (% 33,3) eta arazo ekonomikoak (% 31,3).




23. Grafikoa.

Bikotearekin haustea emakumeei eragindako ondorioak (%)

Haustura-datuez gain, familian edo etxean eragindako tratu txarren ondoriozko sintomei buruzko informazioa ematen du Estatuan 2006an⁷² egindako Makroinkestak. Azterlanak adierazten du emakume horiengan nabarmenagoak direla testatutako sintoma fisiko eta psikologikoak emakume guztiei buruzko datuekin alderatuta, eta, horrez gain, nabarmentzen du diferentzia horiek are handiagoak direla sintoma hauetan: *ageriko arrazoirik gabeko negargura, aldarte-aldaketak, suminkortasuna eta sexurako gogo falta*.

Zehazki, emakumeen % 69,7k aitortzen du ez duela salaketarik jarri, eta emakume horien % 3k eraso bat baino gehiago pairatu eta ez du inoiz ere salaketarik jarri.



24. Grafikoa.


Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria matxistako kasu salatuen proportzioa (%)

Guztira, emakumeen % 27,3k jarri du salaketaren bat, hau da, beste azterlan batzuek salaketei buruz eman dituzten datuen antzerako ehunekoak ageri zaizkigu. Alde horretatik, *Genero Indarkeriari buruzko 2011ko Makroinkestak*⁷³ adierazten du Espainian bizi diren emakumeen % 27,4k salatu duela bere bikotekidea edo bikotekide ohiarekin tratu txarrak eragiteagatik.

Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren biktime izan diren bost emakumetatik batek genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko baliabide profesionalen bat baliatu du, eta % 78,8k ez du horrelakorik erabili.

⁷² Op. Cit.

⁷³ Op. Cit.



25. Grafikoa.

Bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria matxista pairatu duten emakumeen proportzioa, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko baliabide profesionalak baliatu dituzten ala ez aintzat hartuta (%)

Ondoren, laburtuta azalduko dugu aurrez emandako informazioa, bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatu duten emakumeen profil soziodemografikoari buruzkoa:

- Prebalentzia handieneko emakume-taldea 30 eta 39 urte bitartekoa da (% 9,8 da adin-talde horretako ehunekoa eta % 7,5 emakume guztiena).
- Indizeek ez dute alde handirik adierazten emakumeak bizi diren udalerriaren tamainaren arabera; hala ere, prebalentzia zertxobait handiagoa adierazten dute 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietako emakumeek (% 7,9 azken horiek eta % 7,5 orokorrean).

Hala ere, Makroinkestak Estatuan emandako emaitzen arabera, kontuan izan behar da udalerrri txikienetan prebalentzia-tasa zertxobait txikiagoa izan daitekeela (inkesta horrek adierazten du % 6 direla 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan beren bikotearengandik edo bikotearengandik indarkeria jasaten duten emakumeen ehunekoa, eta tasa orokorra, berriz, % 10,9koa da).

- Lanbide-heziketako eta bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten emakumeek batez bestekotik gorako prebalentzia-tasak dituzte (% 11,1 eta % 8,3; orokorra, berriz, % 7,5 da).

Estatuan egindako azterlan horrek ere esaten du ikasketa-maila apalak dituzten emakumeen kolektiboak beste emakume-talde batzuek baino proportzio txikiagoan pairatu dutela indarkeria beren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan, bikotekideek edo bikotekide ohiak emakumeei eragindako indarkeriari buruzko datuak, unibertsitate-ikerketek adierazitakoak, nabarmen apalagoak dira (% 5,6), 2011ko⁷⁴ Makroinkestakoak baino (% 11).

- Bikotekidearengandik eta bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatu duten emakumeen ehunekoa batez bestekoa baino nabarmen handiagoa da lanik ez duten emakumeen taldean (% 12,2 eta % 7,5 batez bestekoa), eta haien atzetik datoz lana duten emakumeak. Espainian egindako Makroinkestak oso antzerako datuak ematen ditu.
- Indarkeria-mota horrek emakume guztien batez bestekoak baino prebalentzia-tasa handiagoak erakusten ditu maila sozioekonomiko apaleko emakumeengan (% 13,2 maila sozioekonomiko apaleko emakumeengan eta % 7,5 batez bestekoa).

74 Op. Cit.

- Datu orokorre eta Estatuko 2011ko Makroinkestak erakutsitako datuek adierazten duten ildotik, egoera zibilaren aldagaiak dakartza diferentzia edo alde handienak indarkeria-mota honetan. Hori horrela, emakume dibortziatuak eta bananduak dira, bikotea dutela (formala izan ala ez) adierazten duten emakumeekin batera, prebalentzia-tasa handienak dituztenak (% 28,1 eta % 21,1).
- Atzerriko herritarrei buruzko datuak tentuz aztertzeak badira ere, badirudi atzerriko emakumeek bertakoek baino zertxobait gehiago pairatzen dutela indarkeria bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik. Estatuan egindako Makroinkestak ere ildo horretako datuak ematen ditu.

69. Taula.

Bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeen banaketa adinare arabera (%)

	OROKORRA	16 - 29 URTE	30 - 39 URTE	40 - 49 URTE	50 - 64 URTE	65 URTE EDO GEH.
Behin edo behin	7,5	7,1	9,8	5,8	7,2	7,4
Gaur egun	1,19	0,9	0,8	1,3	1,0	1,8

70. Taula.

Bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeak udalerraren tamainaren arabera (%)

	OROKORRA	< 10.000 BIZ.	10.000-120.000 BIZ.	CAPITAL
Behin edo behin	7,5	7,9	7,4	7,3

71. Taula.

Bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeak ikasketa-mailaren arabera (%)

	OROKORRA	ALFABETATU GABE / LEHEN HEZKUNTZARIK GABE	LEHEN MAILAKOAK/ ESKOLA GRADUATUA	LH (I - II)	BIGARREN MAILAKOAK	UNIBERTSITATE TITULUDUNAK
Behin edo behin	7,5	6,6	6,7	11,1	8,3	5,6

72. Taula.

Indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeak haien jarduera-egoeraren arabera (%)

	OROKORRA	LANEAN	ORDAINDU GABEKO ETXEKO LANAK	IKASLEAK	LANGA-BEZIAN	PENTSIO-DUNA EDO ERRERITATUA
Behin edo behin	7,5	8,7	3,5	2,4	12,2	6,9

73. Taula.

Bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeak maila sozioekonomikoaren arabera (%)

	OROKORRA	1.000 € BAINO GUTXIAGO	1.000 € ETA 3.000 € BITARTEAN	3.000 € BAINO GEHIAGO
Behin edo behin	7,5	13,2	6,5	2,6

74. Taula.

Bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeak egoera zibilaren arabera (%)

	OROKORRA	EZKONDUA	DIBORTZIATUA / BANANDUA	EZKONGA-BEA	ADOSTATU BIKOTE ERREGISTRATUA EDO GABEA	ALAR-GUNA
Behin edo behin	7,5	5,0	28,1	7,2	21,1	9,2

75. Taula.

Bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatu duten edo pairatzen ari diren emakumeak nazionalitatearen arabera (%)

	OROKORRA	EZ ATZERRITARRAK	ATZERRITARRAK
Alguna vez	7,5	6,8	16,7

Genero-indarkeriako zer egoera bizi dituzte emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoan?

Aintzat hartuta gertakari horiek erdi ezkutuan gertatzen direla eta gizarteak ez dituela ikusten, emakume batzuek berariaz aitortu dutenaz haragoko ikerketa bat egin nahi izan dugu. Aurresuposatu dugu emakumeak indarkeria-egoerak pairatzen ari daitezkeela, baina ez dutela beti aitortzen indarkeria hori bizi dutenik; beraz, haiei egindako galderetako batzuek emakumeen aurka esparru anitzetan erabiltzen den indarkeria matxista hautemateko adierazle zuzen eta zeharkakoak jasotzen dituzte.

Hori horrela, emakumeek galdera horiei emandako erantzunen arabera, ondoriozta daiteke haien aurka indarkeria erabiltzen den ala ez, alde batera utzita haiek indarkeriaren biktima diren aitortzen duten ala ez duten aitortzen. Aurrez egin diren azterlan ugari indarkeria "teknikoa" deritzote indarkeria aitortu gabeko horri, eta bereizi egin dituzte kasu horiek "ageriko" edo "adierazitako" indarkeria-kasuetatik (aurreko atalean zehaztasun handiz aztertu dira azken kasu horiek).

Guztira, 25 indarkeria-kasu⁷⁵ planteatu dira (indarkeria fisikoaren esparrukoak dira lau; indarkeria psikologikoaren esparrukoak dira 11; sexu-indarkeriaren esparrukoak dira zazpi; eta beste hiru bestelako indarkeria-mota batzuen esparrukoak, hala nola, ekonomikoa, soziala...⁷⁶). Azterketa-lana egiteko oinarritzat

75 Esparruaren arabera, adierazleak elkar baztertzen dira; hala, familia-esparruan 23 item galdetu dira, lan-esparruan 18 item eta esparru sozialean, berriz, 17 item aztertzen dira.

76 Itemak esparrutan sailkatzeko, geuk egindako sailkapen bat erabili dugu, aurretik egindako ikerlanak ez baitira ados jartzen horren inguruan.

hartu den adierazle-multzoa prestatzeko, orain arte argitaratu diren azterlanei erreparatu zaie, eta, horietan oinarrituta, zenbait konparaketa egin ahal izan dira Euskal Autonomia Erkidegoko emaitzen eta inguruko lurraldeetako emaitzen artean. Alderdi horri buruzko kontsulten xede izan dira emakumeek azken urtean bizi izan dituzten indarkeria-egoerak, eta haien maiztasunari erreparatu zaie, une edo egoera puntaletatik haragoko egoerak hautemateko.

Horrez gainera, familia-esparrua aztertzeko, indarkeria-egoerak sailkatu dira, bereziki larriak edo serioak direnak bereizteko⁷⁷.

Datuen hastapeneko azterketa orokorra eginez gero (esparru guztiak aintzat hartuta), ikusten da galdetuak izan diren emakumeen % 29,6k adierazi dutela planteatu zaizkien indarkeria-egoeretakoren bat azken urtean, eta % 18,2k bizi izan duela egoera horietako bat gutxienez nolabaiteko maiztasunez (sarri edo batzuetan kategorietako emaitzak). Halaber, adierazi behar da galdetutako emakumeen % 2,9k aitortu duela egoera horietako hiru edo gehiago bizi izan dituztela sarritan edo batzuetan, eta % 1,6k esan du bost egoera baino gehiago bizi izan dituztela.

Alde argi eta nabarmena dago emakumeek kanpora adierazten dutenaren eta horren atzetik dagoen errealitatearen artean. Galdera zuzenak egin ondoren, emakumeen % 2k aitortu dute indarkeria matxistaren biktima sentitzen direla gaur egun, baina, planteatutako egoerei emandako erantzunekin ondorioztatze-lana egin ondoren, ikusi da emakumeen % 18,2k bizi duela, usu, indarkeria-egoeraren bat. Aurrez egin-dako beste azterlan batzuek ere egiaztatu dute alde edo diferentzia hori.

76. Taula.

Azken urtean indarkeria matxistako egoerak bizi izan dituzten emakumeak, maiztasunaren eta egoeren kopuruaren arabera. Guztizko zenbatetsiak eta (%)

OROKORRA (EDOZEIN ESPARRUTAN)	BEHIN EDO BEHIN	SARRITAN EDO BATZUETAN	EGOERA HORRETAN DAUDEN EMAKUMEAK ZENBATETSIJA
Egoera bat gutxienez (1/25 edo gehiago)	29,6	18,2	337.146
Hiru egoera baino gehiago (3/25 edo gehiago)	5,1	2,9	53.721
Bost egoera baino gehiago (5/25 edo gehiago)	2,6	1,6	29.639

Oharra: Egoera horretan dauden emakumeen zenbatespena egiteko, sarritan edo batzuetan erantzun duten emakumeen ehunekoei erreparatu zaie.

Esparrukako datuak aztertu ondoren, hau ikusten da: *galdetuak izan diren emakumeen % 8,5ek bizi izan du azken urtean planteatu zaizkien indarkeria-egoeretakoren bat beren bikotekidearen edo bikotekide ohiarengandik. Egoerak sarritan gertatzen zaiela erantzun du emakumeen % 6,3k.*

Indize edo ehunekoak apalagoak dira familia barruko genero-indarkeriaren kasuan, hau da, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria kontuan hartu gabe familian ematen den indarkerian kasuan; izan ere, galdetuak izan diren emakumeen % 6,1ek esaten du behin edo behin pairatu duela indarkeria hori azken urtean eta % 4,5ek aitortzen du batzuetan pairatzen duela.

Batera aztertzen baditugu bi esparru horiek (bikotekideak eta bikotekide ohiak eragindako indarkeria + familia barruko genero-indarkeria), ikusten da galdetuak izan diren emakumeen % 9k bizi izan dutela sarritan genero-indarkeriako egoerak familiaren esparruan, eta portzentaje hori % 8,1ekoa da baldin eta egoera larrienak soilik kontuan hartzen badira.

⁷⁷ Bereizketa hori egiteko, goian adierazi ditugun erreferentziazko azterlanek baliatu dituzten adierazle-multzoak baliatu ditugu. Dena den, adierazi beharrekoa da kontsultatu ditugun adierazle-multzoak ez zirela gainerakoek berdin-berdinak, beraz, horri jarraituta egindako konparazioak ere erlatiboak dira.

Zenbateko horiek bat datoz, oro har, Estatuan egindako azken Makroinkestak⁷⁸ argitaratutako datuekin; izan ere, datu-mota horiek aztertzen ditu Makroinkesta horrek. Zehazki, azterlan horrek dio 2006an Espainian bizi ziren emakumeen % 9,6k bizi izan zutela, beren etxeetan, indarkeria-egoera larriak zentzu "teknikoan". Ehuneko horiek nabarmen apalagoak dira 2009an Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratu zuen *Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria*⁷⁹ azterlanak adierazitakoak baino; izan ere, azterlan horrek adierazi zuen egoera horretan zeudela emakumeen % 22,1. Hala ere, azterlan horrek berak eman zuen beste datu bat askoz gehiago gerturatzen da gure datuetara, adierazi baitu zentzu hertsian tratu teknikoak direnak⁸⁰ emakumeen % 11,2rengan duela eragina.

Bestalde, nabarmendu behar da *eremu sozial edo esparru publikoan sarritan edo batzuetan indarkeria-egoerak bizi izan dituztela adierazten duten emakumeen ehunekoa (% 9,3), lan-esparruan ematen dena baino handiagoa baita (% 7,2)*. Indarkeria hori familiatik kanpoko pertsonen eragindakoa da, ezagunak izan ala ez. Deigarria da hori horrela izatea, berariaz aitortutako indarkeria aztertu denean, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria izan baita indarkeria-kasuen ehuneko handienak bildu dituen esparrua. Dena den, pentsatzekoa da kontzientziazio-maila apalagoa dela eremu sozialean emakumeek pairatzen duten indarkeria-motarekiko dagoen kontzientziazio-mailarena baino.

77. Taula.

Azken urtean indarkeria matxistako egoerak bizi izan dituzten emakumeak, maiztasunaren eta esparruaren arabera. Guztizko zenbatetsiak eta (%)

	BEHIN EDO BEHIN	SARRITAN EDO BATZUETAN	EGOERA HORRETAN DAUDEN EMAKUMEA, ZENBATETSIA
Bikotekideak edo ohiak (1/23 edo gehiago)	8,5	6,3	116.704
Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoak izan ezik) (1/23 edo gehiago)	6,1	4,5	83.360
<i>Familian (bikotekidea edo ohiak + familiako genero-indarkeria) (1/23 edo gehiago)</i> ⁸¹	12,5	9,0	166.720
<i>Egoera larriak familian (bikotekidea edo ohiak + familiako genero-indarkeria) (1/15 edo gehiago)</i>	10,9	8,1	150.048
Lan-esparrua (1/19 edo gehiago) (*)	11,1	7,2	30.407
Esparru sozial/publikoa (1/17 edo gehiago)	19,9	9,3	172.278

Oharra: Egoera horretan dauden emakumeen zenbatespena egiteko, sarritan edo batzuetan erantzun duten emakumeen ehunekoei erreparatu zaie.

(*) lan-esparruan indarkeria pairatzen duten emakumeen zenbatespena egiteko, lanean dauden emakumeei buruzko datuak hartu dira erreferentzia moduan, Jardueraren arabera Lanean ari diren Herritarren Inkestak 2011n argitaratu dituen datuei erreparatuta.

Indarkeria aztertzen bada aintzat hartu gabe zer esparrutan gertatzen den, ikusten da indarkeria psikologikoaren adierazpenak direla gehien erabiltzen direnak. Aitzitik, indarkeria fisiko edo sexualeko egoerei buruzko item edo galderak izaten dira ehuneko apalenak jasotzen dituztenak erantzunetan.

78 Op. Cit.

79 Op. Cit.

80 Lanaren balorazioaz diharduen itema salbuesten dute.

81 Batera kalkulatu dira bikotekideak eta bikotekideak egindako indarkeria eta familia barruko genero-indarkeria adierazten duten datuak, banaketa hori egiten ez duten azterlanetik konparatze-lana errazteko.

78. Taula.

Azken urtean indarkeria matxistako egoerak bizi izan dituzten emakumeak, maiztasunaren arabera galdetuta (%)

		PERTSONAREN BAT	
		Behin edo behin	Sarritan edo batzuetan
INDAKERIA FISIKOA	Haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserrea (13. itema)	1,6	1,6
	Bultza egiten dizu, kolpatu edo objektuak botatzen dizkizu. (16. itema)	1,2	0,7
	Kaletik jarraitu zaitu. (19. itema)	3,4	0,7
	Arma, aizto edo bestelako objektuekin eraso egin dizu. (20. itema)	0,7	0,4
INDAKERIA PSIKOLOGIKOA	Ironia baliatzen du edo ez ditu zure sinesmenak balioesten (elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea. etab.). (1. itema)	7,7	4,5
	Oihu egiten dizu, laidotu edo mehatxatu egiten zaitu. (2. itema)	6,6	4,1
	Lotsagarri uzten zaitu (iraindu, irrigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideak, lagunak, senideak, etab.). (3. itema)	5,8	3,7
	Ez du zure lana balioesten. (4. itema)	8,8	6,8
	Ordutegiak kontrolatzen dizkizu. (7. itema)	1,8	1,2
	Janzten duzun arropa kontrolatzen dizu (zer arropa jantzi behar duzun esaten dizu). (9. itema)	0,7	0,7
	Zenbaitetan beldurra ematen dizu. (10. itema)	3,0	2,2
	Etengabe gizonak erakarri nahian zabiltzala esaten dizu edo, bestela, ez duzula zure burua zaintzen, itxura txarra duzula. (12. itema)	1,6	1,1
	Dena gaizki egiten duzula esaten dizu, traketsa zarela. (14. itema)	2,4	1,9
	Errudun sentiarazten zaitu ez duzulako behar bezala zaintzen/ulertzen. (15. itema)	2,3	1,8
SEXU-INDAKERIA	Heriotzarekin mehatxatu zaitu edo mehatxu larriren bat egin dizu. (21. itema)	1,0	0,6
	Presio egiten dizu sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez duzula nahi edo ez duzula gogorik. (8. itema)	0,4	0,3
	Mezu pornografikoak edo zakarrak bidali dizkizu paperean, ordenagailura edo telefonora. (17. itema)	2,1	1,0
	Hitz edo keinu erasokorrak zuzendu dizkizu kalean. (18. itema)	6,6	3,1
	Zu bortxatzen saiatu da. (22. itema)	0,4	0,4
	Bortxatu egin zaitu. (23. itema)	0,2	0,2
	Exhibizionismo-ekintzak ikusi dituzu kalean. (24. itema)	5,7	1,0
BESTE BATZUK	Jazarpenak, ukituak edo nahi gabeko igurtziak izan dituzu taberna edo dantzalekuren batean, kalean... (25. itema)	4,5	2,3
	Ez dizu familia ikusten uzten edo harremanak izatea lagunekin, auzokoekin eta bestelako jendearekin. (5. itema)	1,0	0,7
	Telefona, posta eta/edo sare sozialetan egiten dituzunak kontrolatzen ditu. (11. itema)	1,3	1,0
	Irabazten duzu dirua kentzen dizu edo ez dizu ematen autonomiaz bizitzeko behar duzun adina. (6. itema)	0,8	0,8

Oharra: taulan, beltzez adierazi dira larrientzat jo ditugun egoerak.

Azttertze-lanean sakontzeko, lau esparruetako datuak modu berezitan aztertzea erabaki da, egoerak beren testuinguruan ulertzeko.

Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria

Oro har adierazi den moduan, *indarkeria psikologikoaren erabilera da ugariena* familia-esparruan. Hori horrela, emakumeari balioa kentzea edo mespretxatzea dakarten egoerei buruzko itemek hartzen dute gailena esparru horretan, bai emakumeek beraiek egiten dutenarekiko, bai beste pertsona batzuekin duten harremanekiko (“ez du zuk egindako lana balioesten”, “oihu egiten dizu, iraindu edo mehatxatu” edo “lotsagarri uzten zaitu beste pertsona batzuen aurrean”).

Esparru horretan aztertu diren indarkeria-adierazpen guztien artean, “ez du baloratzen egiten duzun lana” izan da emakumeek beren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik gehien pairatu dutena. Galdetuak izan diren emakumeen % 4,1ek adierazi du hori eta galdetuak izan diren emakumeen % 3,5ek aitortzen du *sarritan edo batzuetan* gertatzen zaiela hori.

Hala ere, nabarmentzekoak dira beren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik azken urtean sarritan edo batzuetan hauek pairatu dituztela adierazi duten emakumeen ehunekoak: *oihuak, mehatxuak edo irainak* (% 1,6), *beste pertsona batzuen aurrean lotsagarri uztea* (% 1,6) edo *ironia baliatzen du edo ez ditu zure sinesmenak balioesten, hala nola, elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea. etab.* (% 1,5).

Deigarria da, halaber, emakumeen % 1,1ek aitortzea bere bikotekideak edo bikotekide ohiak *askotan esaten diola gauza guztiak gaizki egiten dituela eta traketsa dela*. Prebalentzia-ehunekoak % 1aren ingurukoak dira egoera hauetan: *Errudun sentiarazten zaitu ez duzulako behar bezala zaintzen/ulertzen; haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserrea; etengabe gizonak erakarri nahian zabiltzala esaten dizu edo, bestela, ez duzula zure burua zaintzen, itxura txarra duzula; eta ordutegiak kontrolatzen dizkizu.*

79. Taula.

Azken urtean beren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria matxistako egoerak bizi izan dituzten emakumeak, maiztasunaren arabera (%)

		BIKOTEKIDEA EDO OHIA	
		Behin edo behin	Sarritan edo batzuetan
INDARKERIA FISIKOA	Haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserrea. (13. itema)	1,0	1,0
	Bultza egiten dizu, kolpatu edo objektuak botatzen dizkizu. (16. itema)	0,7	0,5
	Kaletik jarraitu zaitu. (19. itema)	0,1	0,1
	Arma, aizto edo bestelako objektuekin eraso egin dizu. (20. itema)	0,1	0,1
INDARKERIA PSIKOLOGIKO ETA ESPIRITUALA	Ironia baliatzen du edo ez ditu zure sinesmenak balioesten (elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea. etab.). (1. itema)	1,9	1,5
	Oihu egiten dizu, laidotu edo mehatxatu egiten zaitu. (2. itema)	2,2	1,6
	Lotsagarri uzten zaitu (iraindu, irrigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideak, lagunak, senideak, etab.). (3. itema)	1,9	1,6
	Ez du zure lana balioesten. (4. itema)	4,1	3,5
	Ordutegiak kontrolatzen dizkizu. (7. itema)	1,1	0,9
	Janzen duzun arropa kontrolatzen dizu (zer arropa jantzi behar duzun esaten dizu). (9. itema)	0,7	0,7
	Zenbaitetan beldurra ematen dizu. (10. itema)	1,0	0,8
	Etengabe gizonak erakarri nahian zabiltzala esaten dizu edo, bestela, ez duzula zure burua zaintzen, itxura txarra duzula. (12. itema)	1,0	0,9

		BIKOTEKIDEA EDO OHIA	
		Behin edo behin	Sarritan edo batzuetan
VIOLENCIA SEXUAL	Dena gaizki egiten duzula esaten dizu, traketsa zarela. (14. itema)	1,4	1,1
	Errudun sentiarazten zaitu ez duzulako behar bezala zaintzen/ulertzen. (15. itema)	1,3	1,0
	Heriotzarekin mehatxatu zaitu edo mehatxu larriren bat egin dizu. (21. itema)	0,3	0,3
	Presio egiten dizu sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez duzula nahi edo ez duzula gogorik. (8. itema)	0,3	0,3
	Mezu pornografikoak edo zakarrak bidali dizkizu paperean, ordenagailura edo telefonora. (17. itema)	0,2	0,1
OTRAS	Hitz edo keinu erasokorrak zuzendu dizkizu kalean. (18. itema)	0,2	0,1
	Zu bortxatzen saiatu da. (22. itema)	0,1	–
	Bortxatu egin zaitu. (23. itema)	0,1	–
	Ez dizu familia ikusten uzten edo harremanak izatea lagunekin, auzokoekin eta bestelako jendearekin. (5. itema)	0,7	0,7
	Telefonoa, posta eta/edo sare sozialetan egiten dituzunak kontrolatzen ditu. (11. itema)	1,0	0,7
	Irabazten duzu dirua kentzen dizu edo ez dizu ematen autonomiaz bizitzeko behar duzun adina. (6. itema)	0,7	0,7

Oharra: taulan, beltzez adierazi dira larrientzat jo ditugun egoerak.

Aitortutako indarkeriaren atalean gertatzen zen moduan, *ondorioztatutako tratu txarren datuek adierazten dute 30 eta 39 urte bitarteko emakumeak direla prebalentzia handiena dutenak arlo horretan, eta haien atzetik datoz 50 eta 64 urte bitartekoak*. Galdetuak izan diren 30 eta 39 urte bitarteko emakumeen % 8,6k bizi izan du azken urtean planteatu zaizkien 23 indarkeria-egoeretatik gutxienez bat (% 7k bizi izan du larri edo adierazgarrienekotzat jo diren 15 egoeretatik bat gutxienez). Galdetuak izan diren 50 eta 64 urte bitarteko emakumeen % 7,2k sarritan bizi izan du horietatik bat gutxienez eta % 6,2k adierazgarrienetako bat.

80. Taula.

Azken urtean beren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria matxistako gutxienez egoera bat bizi izan dituzten emakumeak, maiztasunaren arabera. Emaizak adinaren arabera (%)

	OROKORRA	16 - 29 URTE	30 - 39 URTE	40 - 49 URTE	50 - 64 URTE	65 URTE EDO GEH.
Gutxienez egoeraren bat behin edo behin (1/23 edo gehiago)	8,5	11,8	10,2	7,5	8,2	6,2
Gutxienez egoera bat sarritan edo batzuetan (1/23 edo gehiago)	6,3	6,1	8,6	5,0	7,2	5,0
Gutxienez egoera larri bat sarritan edo batzuetan (1/15 edo gehiago)	5,7	5,7	7,0	4,6	6,2	5,0

Indarkeria-egoera hauek pairatzen dituzten gehien 30 eta 39 urte bitarteko emakumeek beren bikotekidea-rengandik edo bikotekide ohiarengandik: oihukatu, iraindu edo mehatxatu egiten zaitu (% 2) edo ironiaz hitz egiten dizu (% 1,2).

Kasuen prebalentzia batez besteko orokorretik goragokoa da 29 urte baino gutxiago dituzten emakumeengan, honako egoera hauetan: irainak, oihuak eta mehatxuak, lotsagarri uzten zaitu beste pertsona batzuen aurrean, eta, haserretzen denean, maite dutenek pairatzen dute haren haserre. Horrez gainera, ehunekoak handiak dira emakume-talde horrengan honako alderdi hauetan: Zenbaitetan beldurra ematen dizu; Errudun sentiarazten zaitu ez duzulako behar bezala zaintzen/ulertzen; Ez dizu familia ikusten uzten edo harremanak izatea lagunekin, auzokoekin eta bestelako jendearekin; ordutegiak kontrolatzen dizkizu; eta telefonoa, posta eta/edo sare sozialetan egiten dituzunak kontrolatzen ditu.

Bestalde, 65 urtetik gorako emakumeen kasuan, hauek dira ehuneko handienak dituzten indarkeria-egoerak: presio egiten dizu sexu-harremanak izateko; dirua kentzen dizu edo ez dizu autonomiaz bizitzeko behar adina ematen eta sarritan edo batzuetan esaten dizute traketsa zarela.

81. Taula.

Azken urtean indarkeria matxistako egoerak bizi izan dituzten emakumeak, sarritan edo batzuetan gertatuak familian. Emaita orokorrak eta adinaren arabera (%)

		BIKOTEA EDO OHIA			
		OROKORRA	16-29 urte	30-39 urte	>65 urte
INDARKERIA FISIKOA	Haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserre. (13. itema)	1,0	2,4	0,4	0,9
	Bultza egiten dizu, kolpatu edo objektuak botatzen dizkizu. (16. itema)	0,5	0,9	0,0	0,6
	Kaletik jarraitu zaitu. (19. itema)	0,1	0,5	0,4	0,0
	Arma, aizto edo bestelako objektuekin eraso egin dizu. (20. itema)	0,1	0,0	0,0	0,0
INDARKERIA PSIKOLOGIKOA	Ironia baliatzen du edo ez ditu zure sinesmenak balioesten (elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea. etab.). (1. itema)	1,5	1,9	1,2	1,8
	Oihu egiten dizu, laidotu edo mehatxatu egiten zaitu. (2. itema)	1,6	3,3	2,0	1,2
	Lotsagarri uzten zaitu (iraindu, irigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideak, lagunak, senideak, etab.). (3. itema)	1,6	2,8	0,8	1,8
	Ez du zure lana balioesten. (4. itema)	3,5	3,3	3,3	3,3
	Ordutegiak kontrolatzen dizkizu. (7. itema)	0,9	1,4	0,4	0,9
	Jantzten duzun arropa kontrolatzen dizu (zer arropa jantzi behar duzun esaten dizu). (9. itema)	0,7	0,5	0,0	0,9
	Zenbaitetan beldurra ematen dizu. (10. itema)	0,8	1,9	0,4	0,9
	Etengabe gizonak erakarri nahian zabiltzala esaten dizu edo, bestela, ez duzula zure burua zaintzen, itxura txarra duzula. (12. itema)	0,9	0,9	0,8	1,2
	Dena gaizki egiten duzula esaten dizu, traketsa zarela. (14. itema)	1,1	1,4	0,4	2,1
	Errudun sentiarazten zaitu ez duzulako behar bezala zaintzen/ulertzen. (15. itema)	1,0	1,9	0,4	0,6
	Heriotzarekin mehatxatu zaitu edo mehatxu larriren bat egin dizu. (21. itema)	0,3	0,5	0,0	0,3

		BIKOTEA EDO OHIA			
		OROKORRA	16-29 urte	30-39 urte	>65 urte
SEXU-INDARKERIA	Presio egiten dizu sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez duzula nahi edo ez duzula gogorik. (8. itema)	0,3	0,0	0,0	1,2
	Mezu pornografikoak edo zakarrak bidali dizkizu paperean, ordenagailura edo telefonora. (17. itema)	0,1	0,5	0,0	0,0
	Hitz edo keinu erasokorrak zuzendu dizkizu kalean. (18. itema)	0,1	0,0	0,0	0,0
BESTE BATZUK	Ez dizu familia ikusten uzten edo harremanak izatea lagunekin, auzokoekin eta bestelako jendearekin. (5. itema)	0,7	1,4	0,4	0,9
	Telefona, posta eta/edo sare sozialetan egiten dituzunak kontrolatzen ditu. (11. itema)	0,7	1,4	0,0	0,9
	Irabazten duzu dirua kentzen dizu edo ez dizu ematen autonomiaz bizitzeko behar duzun adina. (6. itema)	0,7	0,5	0,4	1,8

Oharra: taulan, beltzez adierazi dira larrirentzat jo ditugun egoerak. Hiru adin-talde horiek aukeratu dira muturreko taldeak konparatzeko eta ehuneko orokor handiena duen taldearen datuak jasotzeko.

Emitza horiek aintzat hartuta, berriro aztertzeakoak dira gazteen taldeek aurreko atalean eman dituzten indarkeria adieraziko ehunekoak. Azalpen bat baino gehiago izan daitezke egoera hori azaltzeko, baina berriki egin diren azterlanetako batzuek adierazten dute gazteen artean zabaldua dagoen “itxurazko” berdintasunaren pertzepzioa arriskutsua izan daitekeela.

Zenbait azterlanek⁸² ohartarazten dute oraindik ere zurruna dela genero-rolen bereizketa gazteen eta nerabeen artean, eta gizonen eta emakumeen artean berdintasun-egoera bat bizi denaren ustea zabaldua izateak nahasmendua sortzen diela neskei, azken horiek ez baitituzten erasoak eta jokabide sexistak identifikatzen eta, ondorioz, ez dute beren burua defendatzen jokabide horien aurrean.

Horrez gain, adierazten dute neska eta mutil nerabeen arteko harremanetan eragin handia dutela komunikabideetatik jasotzen dituzten ideiak eta balioak, eta horiek izaera sexista nabarmena izaten dutela. Alde horretatik, adierazten dute berdinen arteko harremanetan, eta, batik bat, nerabeen arteko harremanetan, komunikazio-modu zakarrak ikusten direla, adinekoen mundutik hartutako modu txarrekin.

Berariaz, emakume gazteen aurkako indarkeria aztertzen duen lan batek⁸³ gogorarazten digu emakume gazteek, adineko emakumeen moduan, zailtasunak izan ditzaketela indarkeria-egoera batean daudela konturatzeko (mendetasun afektibo bat bizi badute, egoera ukatzen badute, errua beren buruari botatzen badiote, etab.). Hala ere, emakume gazteek bizi dituzten zailtasun horiek emakume gazteentzat lehen baino berdintasun-maila handiagokoa den gizarte batean ematen dira, eskubideei eta askatasunei dagokienez.

Emakumeen aurkako indarkeria arbuiatzen duen gizarte batean bizi dira neska gazteak, eta, ondorioz, “beti arbuiatu izan duten egoeraren baten protagonista direla ikusten badute, lotsa eta nahasmendu handiak bizitzen dituzte”. Emakumeen aurkako indarkeria eta diskriminazio-egoerak arbuiatzen badira ere, arbuiatze hori nahiko abstraktua da eta beste pertsona batzuei gertatzen zaienean agertzen da; izan ere, “gazteek zailtasun handiak dituzte indarkeria-adierazpenak hautemateko beren jokabideetan, bai berdinen arteko taldeetan, bai beren harreman afektiboetan”.

82 Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. *EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila, 2011.

83 Cantera, Estébanez, Vázquez *Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2009.

Haien aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeen interbentzioetan adinak zer-nolako eragina duen modu kualitatibo batean aztertuz gero⁸⁴, ikusten da tratatu txarren pertzepzioa eta justifikazioa, hau da, egoera horiek bere horretan jarraitzea ahalbidetzen dutenak, ez dutela aldaketa handirik erakusten adinaren arabera, haien jatorria sozializazio-prozesuak direlako eta prozesu horiek ez direlako modu adierazgarri batean aldatu denboran zehar. “Adineko emakumeek eta emakume gazteek jarrera diferenteak dituzte pairatzen dituzten tratatu txarrekiko, haiek bizi dituzten sozializazio-prozesuen diskurtsoak ezberdinak baitira, baina, izatez, ez dira ezberdinak sakoneko edukietan”.

Emakundek ikerlan bat egin zuen 2001ean⁸⁵ euskal gazteriak berdintasunari buruz zuen ideia ikertu, eta jakiteko aldaketa hori egiazkoa ote zen ala “berdintasun-berniz bat ote den, neska eta mutil gazteen arteko desberdintasunak ezkututzen dituen”. Ikerlan horrek ikusi zuen bikote gazteek errepikatu egiten dituztela estereotipo tradizionalak, eta nesken gainean jartzen dutela harremanaren pisu afektiboa eramaten ardura, eta seme-alabak amarekiko harremanean lotzen dituztela; horrez gain, ikusi zen bikote bat osatzeko proiektuak ikuspegi ezberdina zekarrela sexuaren arabera, hau da, “bikotearen antolamenduak errepikatu egiten du gizartearen inertzia”.

Alde horretatik, txosten honek herritarren pertzepzioei eta iritziei buruz jasotzen duen atalean bertan ikusi ahal izan da ez direla gazteen iruditeria edo ideietatik desagertu emakumeen aurkako indarkeriari buruzko mito guztiak.

Bestalde, nabarmendu beharrekoa da *bigarren mailako ikasketak eta lanbide-heziketako ikasketak dituzten* emakumeak direla maiztasun sarrienaz pairatzen dutenak beren bikotekideengandik edo bikotekide ohiengandik egoera-mota hori. Bigarren mailako ikasketan dituzten emakumeen % 7,5ek aitortzen du sarritan pairatzen duela egoera horietatik bat gutxienez, eta ehunekoa % 7,3koa da Lanbide Heziketako ikasketak dituzten emakumeen kasuan. Datu horiek bat datoz aitortutako indarkeriaren ataleko datuekin.

82. Taula.

Azken urtean beren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria matxistako gutxienez egoera bat bizi izan dituzten emakumeak, maiztasunaren arabera. Emaizak ikasketa-mailaren arabera (%)

	OKO- RRA	ALFABETATU GABEAK / L.H. EGIN GABEAK	L.H. / ESKO- LA GRADUA- TUA	LH (I - II)	BIGARREN HEZKUN- TZA	UNIBERTSI- TATE TITULU- DUNAK
Gutxienez egoeraren bat behin edo behin (1/23 edo gehiago)	8,5	7,1	7,6	8,5	13,3	8,4
Gutxienez egoera bat <i>sarritan</i> edo batzuetan (1/23 edo gehiago)	6,3	5,6	6,3	7,3	7,5	5,6
Gutxienez egoera <i>larri</i> bat <i>sarritan</i> edo batzuetan (1/15 edo gehiago)	5,7	5,6	5,9	6,0	7,5	4,4

Lanik gabeko emakumeak dira, zalantzarik gabe, indarkeria “teknikoaren” prebalentzia-tasa handienak pairatzen dituztenak. Aitortutako indarkeriaren atalean bestelakorik ikus zitekeen arren –bigarren postuan zeuden lan bat duten emakumeak–, nahiko antzekoak dira lana duten eta aktibo ez dauden emakumeen indizeak.

84 EDE fundazioa. Gizarte Ikerketako Zerbitzua. *Adinaren aldagaia genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeen interbentzioan*. Bilbo, 2011.

85 Op. cit.

83. Taula.

Azken urtean beren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria matxistako gutxienez egoera bat bizi izan dituzten emakumeak, maiztasunaren arabera. Emaizak egiten duten jardueraren arabera (%)

	OROKORRA	LANEAN	LANGABEZIAN	EZ AKTIBOAK
Gutxienez egoeraren bat behin edo behin (1/23 edo gehiago) (*)	8,5	9,1	13,7	7,5
Gutxienez egoera bat <i>sarritan</i> edo batzuetan (1/23 edo gehiago)	6,3	6,1	10,2	6,2
Gutxienez egoera <i>larri</i> bat <i>sarritan</i> edo batzuetan (1/15 edo gehiago) (*)	5,7	4,6	9,6	6,0

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Espero zitekeen moduan, *indarkeria-mota horretan askoz handiagoa da bikotekidea duten emakumeen artean*, bikotekiderik ez duten emakumeen artean baino. Hala ere, ez dirudi datu adierazgarria denik bikotekide horrekin bizitzea edo ez bizitzea.

84. Taula.

Azken urtean beren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria matxistako gutxienez egoera bat bizi izan dituzten emakumeak, maiztasunaren arabera. Emaizak bikotekidea izatearen arabera (%)

	OROKORRA	BIKOTEKIDEA DU BAINA EZ DA HAREKIN BIZI	BIKOTEKIDEA DU ETA HAREKIN BIZI DA	EZ DU BIKOTEKIDERIK
Al menos una situación alguna vez (1/23 o más) (*)	8,5	9,9	10,6	5,2
Al menos una situación <i>frecuentemente</i> o a veces (1/23 o más)	6,3	7,5	6,5	4,0
Al menos una situación <i>grave frecuentemente</i> o a veces (1/15 o más)	5,7	6,7	6,5	3,5

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Datuek adierazten dute *tratu txar "teknikoaren" edo ondorioztatuaren prebalentzia handiagoa dutela adingabeko seme-alabak dituzten emakumeek*. Adingabeko seme-alabarik ez duten emakumeen tasa bikoitzak erakusten dituzte 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten emakumeen tasak.

85. Taula.

Azken urtean beren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria matxistako gutxienez egoera bat bizi izan dituzten emakumeak, maiztasunaren arabera. Emaizak adingabeko seme-alabak izatearen ala ez izatearen arabera (%)

	OROKORRA	ADINGABEKO SEME-ALABAK DITU	EZ DU ADIN- GABEKO SEME- ALABARIK
Gutxienez egoeraren bat behin edo behin (1/23 edo gehiago)	12,5	13,1	7,0
Gutxienez egoera bat <i>sarritan</i> edo batzuetan (1/23 edo gehiago)	9,0	10,3	5,4
Gutxienez egoera <i>larri</i> bat <i>sarritan</i> edo batzuetan (1/15 edo gehiago)	8,1	9,0	5,1

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Familia barruko genero-indarkeria

Nabarmentzekoa da familia barruko genero-indarkeriaren alorrean ematen diren *indarkeria psikologikoko egoeren artean*, bikotekidea edo bikotekidea ez den senideren batek eragindako indarkeria gailentzen dela ehunekotan. Indarkeria-esparru horretan, nabarmentzekoa da, halaber, emakumei balioa kendu edo haiek mespretxatzeko jardueren gailentasun estatistikoa.

Esparru horretan aztertu diren indarkeria-adierazpen guztien artean, “ez du baloratzen egiten duzun lana” izan da, aitortza-kopuruen arabera, emakumeek gehien pairatu dutena (% 2,8k behin edo behin eta % 1,9k sarritan azken urtean).

Horrez gain, esparru horretan sarri ematen diren beste alderdi batzuek nabarmentzen dira: *oihu, irain eta mehatxu egiten dizu* (emakumeen % 1,3k pairatu du sarri azken urtean); *ironia erabiltzen du edo ez du zure sinesmenik baloratzen* (% 1,2); *lotsagarri uzten zaitu lagunen edo senideen aurrean* (% 1,2); eta *errudun sentiarazten zaitu ez duzulako behar bezala zaintzen edo ulertzen* (% 0,9).

86. Taula.

Azken urtean familia-esparruan indarkeria matxistako egoerak bizi izan dituzten emakumeak, maiztasunaren arabera galdetuta. Emaizak erasotzailearen arabera (%)

		FAMILIA BARRUKO ERASOTZAILEA (Bbikotekidea edo ohi izan ezik)	
		Behin edo behin	Sarritan edo batzuetan
INDARKERIA FISIKOA	Haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserre. (13. itema)	0,4	0,4
	Bultza egiten dizu, kolpatu edo objektuak botatzen dizkizu. (16. itema)	0,1	0,0
	Kaletik jarraitu zaitu. (19. itema)	0,0	0,0
	Arma, aizto edo bestelako objektuekin eraso egin dizu. (20. itema)	0,0	0,0

FAMILIA BARRUKO ERASOTZAILEA (Bbikotekidea edo ohia izan ezik)			
	Behin edo behin	Sarritan edo batzuetan	
INDARKERIA PSIKOLOGIKOA ETA ESPIRITUALA	Ironia baliatzen du edo ez ditu zure sinesmenak balioesten (elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea. etab.). (1. itema)	2,0	1,2
	Oihu egiten dizu, laidotu edo mehatxatu egiten zaitu. (2. itema)	1,6	1,3
	Lotsagarri uzten zaitu (iraindu, irrigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideak, lagunak, senideak, etab.). (3. itema)	1,2	1,2
	Ez du zure lana balioesten. (4. itema)	2,8	1,9
	Ordutegiak kontrolatzen dizkizu. (7. itema)	0,5	0,3
	Janzten duzun arropa kontrolatzen dizu (zer arropa jantzi behar duzun esaten dizu). (9. itema)	0,0	0,0
	Zenbaitetan beldurra ematen dizu. (10. itema)	0,2	0,2
	Etengabe gizonak erakarri nahian zabiltzala esaten dizu edo, bestela, ez duzula zure burua zaintzen, itxura txarra duzula. (12. itema)	0,6	0,2
	Dena gaizki egiten duzula esaten dizu, traketsa zarela. (14. itema)	0,7	0,5
	Errudun sentiarazten zaitu ez duzulako behar bezala zaintzen/ulertzen. (15. itema)	1,2	0,9
SEXU-INDARKERIA	Heriotzarekin mehatxatu zaitu edo mehatxu larriren bat egin dizu. (21. itema)	0,0	0,0
	Presio egiten dizu sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez duzula nahi edo ez duzula gogorik. (8. itema)	0,0	0,0
	Mezu pornografikoak edo zakarrak bidali dizkizu paperean, ordenagailura edo telefonora. (17. itema)	0,0	0,0
	Hitz edo keinu erasokorrak zuzendu dizkizu kalean. (18. itema)	0,0	0,0
	Zu bortxatzen saiatu da. (22. itema)	0,0	–
BESTE BATZUK	Bortxatu egin zaitu. (23. itema)	0,0	–
	Ez dizu familia ikusten uzten edo harremanak izatea lagunekin, auzokoekin eta bestelako jendearekin. (5. itema)	0,3	0,2
	Telefonoa, posta eta/edo sare sozialetan egiten dituzunak kontrolatzen ditu. (11. itema)	0,1	0,1
	Irabazten duzu dirua kentzen dizu edo ez dizu ematen autonomiaz bizitzeko behar duzun adina. (6. itema)	0,1	0,1

Oharra: taulan, beltzez adierazi dira larrientzat jo ditugun egoerak.

Datuak bananduta aztertzea komeni da, diferentzia edo alderen bat topa baitaiteke aldagai soziodemografikoei erreparatuta:

Sarritan gertatzen diren egoerak aztertuz gero, ikusten da prebalentzia handiena 50 eta 64 urte bitarteko emakumeengan ematen dela.

87. Taula.

Azken urtean familia-esparruan indarkeria matxistako gutxienez egoera bat bizi izan duten emakumeak, maiztasunaren arabera. Emaizak adinaren arabera (%)

	OROKORRA	16 - 29 URTE	30 - 39 URTE	40 - 49 URTE	50 - 64 URTE	65 URTE EDO GEH.
Gutxienez egoeraren bat behin edo behin (1/23 edo gehiago)	6,1	8,0	2,5	5,8	6,9	7,1
Gutxienez egoera bat sarritan edo batzuetan (1/23 edo gehiago)	4,5	5,2	2,5	4,6	6,2	3,8

Indarkeria-kasu horien prebalentzia indize orokorrak baino handiagoa da 50 eta 64 urte bitarteko emakumeengan, honako item edo galdera hauetan: *ironia erabiltzen du edo ez du zure sinesmenik baloratzen (elizara joatea, alderdi politikoren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea, etab.); oihu, irain eta mehatxu egiten dizu; lotsagarri uzten zaitu (iraindu eta irrigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideen, lagunaren edo senideen aurrean); ez du zure lana balioesten; gauza guztiak gaizki egiten dituzula eta traketsa zarela esaten dizu.*

Bestalde, alderdi hauetan dute orokorra baino prebalentzia handiagoa 16 eta 29 urte bitarteko emakumeek: *lotsagarri uzten zaitu (iraindu eta irrigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideen, lagunaren edo senideen aurrean); ez du zure lana balioesten, ordutegiak kontrolatzen dizkizu; etengabe gizonak erakarri nahian zabiltzala esaten dizu edo, bestela, ez duzula zure burua zaintzen, itxura txarra duzula.*

65 urtetik gorako emakumeen artean emakume gazteagoen artean baino eragin handiagoa dute egoera hauek: ez du baloratzen egiten duen lana, ironiaz hitz egiten du edo haren sinesmenak ez ditu baloratzen; agiraka, irain edo mehatxu egiten dio.

88. Taula.

Azken urtean indarkeria matxistako egoerak bizi izan dituzten emakumeak, sarritan edo batzuetan gertatuak familian. Emaizta orokorrak eta adinaren arabera (%)

		FAMILIAKO EDOZEIN ERASOTZAILE (bikotekidea edo ohia izan ezik)			
		Orokorra	16-29 urte	50-64 urte	>65 urte
INDARKERIA FISIKOA	Haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserrea (13. itema)	0,4	0,5	0,3	0,3
	Bultza egiten dizu, kolpatu edo objektuak botatzen dizkizu. (16. itema)	0,0	0,0	0,0	0,0
	Kaletik jarraitu zaitu. (19. itema)	0,0	0,0	0,0	0,0
	Arma, aizto edo bestelako objektuekin erasota zaitu. (20. itema)	0,0	0,0	0,0	0,0

		FAMILIAKO EDOZEIN ERASOTZAILE (bikotekidea edo ohia izan ezik)			
		Orokorra	16-29 urte	50-64 urte	>65 urte
INDARKERIA FISIKOA	Ironia baliatzen du edo ez ditu zure sinesmenak balioesten (elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea. etab.). (1. itema)	1,2	0,5	2,0	1,2
	Oihu egiten dizu, laidotu edo mehatxatu egiten zaitu. (2. itema)	1,3	0,0	2,6	1,2
	Lotsagarri uzten zaitu (iraindu, irrigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideak, lagunak, senideak, etab.). (3. itema)	1,2	2,4	1,6	0,3
	Ez du zure lana balioesten. (4. itema)	1,9	2,4	2,3	2,7
	Ordutegiak kontrolatzen dizkizu. (7. itema)	0,3	1,4	0,3	0,0
	Jantzen duzun arropa kontrolatzen dizu (zer arropa jantzi behar duzun esaten dizu). (9. itema)	0,0	0,0	0,0	0,0
	Zenbaitetan beldurra ematen dizu. (10. itema)	0,2	0,5	0,3	0,0
	Etengabe gizonak erakarri nahian zabiltzala esaten dizu edo, bestela, ez duzula zure burua zaintzen, itxura txarra duzula. (12. itema)	0,2	0,9	0,0	0,3
	Dena gaizki egiten duzula esaten dizu, traketsa zarela. (14. itema)	0,5	0,5	1,0	0,3
	Errudun sentiarazten zaitu ez duzulako behar bezala zaintzen/ulertzen. (15. itema)	0,9	1,4	0,7	0,9
SEXU-INDARKERIA	Heriotzarekin mehatxatu zaitu edo mehatxu larriren bat egin dizu. (21. itema)	0,0	0,0	0,0	0,0
	Presio egiten dizu sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez duzula nahi edo ez duzula gogorik. (8. itema)	0,0	0,0	0,0	0,0
	Mezu pornografikoak edo zakarrak bidali dizkizu paperean, ordenagailura edo telefonora. (17. itema)	0,0	0,0	0,0	0,0
BESTE BATZUK	Hitz edo keinu erasokorrak zuzendu dizkizu kalean. (18. itema)	0,0	0,0	0,0	0,0
	Ez dizu familia ikusten uzten edo harremanak izatea lagunekin, auzokoekin eta bestelako jendearekin. (5. itema)	0,2	0,0	0,3	0,3
	Telefonoa, posta eta/edo sare sozialetan egiten dituzunak kontrolatzen ditu. (11. itema)	0,1	0,0	0,3	0,0
	Irabazten duzu dirua kentzen dizu edo ez dizu ematen autonomiaz bizitzeko behar duzun adina. (6. itema)	0,1	0,5	0,0	0,0

Oharra: Hiru adin-talde horiek aukeratu dira muturreko taldeak konparatzeko eta ehuneko orokor handiena duen taldearen datuak jasotzeko.

Ikasketa-maila da taldeen artean diferentziak erakusten dituen beste aldagaietako bat oro har indarkeriaren biktima izan direla aitortu duten emakumeen artean (nahiz eta joera argirik ez adierazi). *Familia-esparruko indarkeriaren kasuan, unibertsitete-ikasketak dituzten emakumeak dira prebalentzia-tasa apalenak dituztenak.*

89. Taula.

Azken urtean familia-esparruan indarkeria matxistako gutxienez egoera bat bizi izan duten emakumeak, maiztasunaren arabera. Emaizak ikasketa-mailaren arabera (%)

	OROKORRA	ALFABETATU GABEAK / L.H. EGIN GABEAK	L.H. / ESKOLA GRADUATUA	LH (I - II)	BIGARREN HEZKUNTZA	UNIBERTSITATE TITULUDUNAK
Gutxienez egoeraren bat behin edo behin (1/23 edo gehiago)	6,1	6,1	7,2	6,0	6,7	4,4
Gutxienez egoera bat <i>sarritan</i> edo batzuetan (1/23 edo gehiago)	4,5	4,6	5,0	4,7	5,0	3,4

Aktiboan ez dauden emakumeak dira, argi eta garbi, familia barruan indarkeria "tekniko" gehien pairatzen dutenak.

90. Taula.

Azken urtean familia-esparruan indarkeria matxistako gutxienez egoera bat bizi izan duten emakumeak, maiztasunaren arabera. Emaizak egiten duten jardueraren arabera (%)

	OROKORRA	LANEAN	LANGABEZIAN	EZ AKTIBOAK
Gutxienez egoeraren bat behin edo behin (1/23 edo gehiago) (*)	6,1	4,0	3,6	9,3
Gutxienez egoera bat <i>sarritan</i> edo batzuetan (1/23 edo gehiago) (*)	4,5	3,6	2,0	6,4

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Bikotekideak eta bikotekide ohiak eragindako indarkeriarekin ez bezala, familia barruko indarkeriak ez du lotura hain esturik bikotekidea izatearekin edo ez izatearekin, baina bikotekidea duten emakumeak dira indarkeria-mota hori gehien pairatzen dutenak.

91. Taula.

Azken urtean familia-esparruan indarkeria matxistako gutxienez egoera bat bizi izan duten emakumeak, maiztasunaren arabera. Emaizak bikotekidea izatearen arabera (%)

	OROKORRA	BAKOTEKIDEA DU BAINA EZ DA HAREKIN BIZI	BIKOTEKIDEA DU ETA HAREKIN BIZI DA	EZ DU BIKOTEDIRIK
Gutxienez egoeraren bat behin edo behin (1/23 edo gehiago)	6,1	5,2	5,7	8,0
Gutxienez egoera bat <i>sarritan</i> edo batzuetan (1/23 edo gehiago)	4,5	4,3	5,7	4,2

Ez da alde adierazgarririk ikusten indarkeria-mota horren prebalentzia-tasetan, adingabeko seme-alabak izatearen edo alderdiei erreparatuta.

92. Taula.

Azken urtean familia-esparruan indarkeria matxistako gutxienez egoera bat bizi izan duten emakumeak, maiztasunaren arabera. Emaizak adingabeko seme-alabak izatearen ala ez izatearen arabera (%)

	OROKORRA	ADINGABEKO SEME- ALABAK DITU	EZ DU ADINGABEKO SEME-ALABARIK
Gutxienez egoeraren bat behin edo behin (1/23 edo gehiago)	6,1	5,0	6,4
Gutxienez egoera bat <i>sarritan</i> edo batzuetan (1/23 edo gehiago)	4,5	4,4	4,4

Lan-esparrua

Lan-esparruan, indarkeria psikologikoa da indarkeria-adierazpen erabiliena. Zehazki, lanean ari diren emakumeen % 5,5ek adierazi du azken urtean sarritan edo batzuetan bizi izan dituztela beren lana gutxiesten dituzten jokabideak; emakumeen % 1,9 izan da lantokian hirugarren pertsonen aurrean lotsarazia eta % 1,6k entzun behar izan dituzte nahiko sarri oihuak, irainak edo mehatxuak. Datuen irakurketa egiteko, azken urtean egoera horietakoren bat behin edo behin pairatu duten emakumeei erreparatzen badiegu, ehunekoak % 7,8koa, % 2,9koa eta % 2,9koa dira, hurrenez hurren.

Indarkeria matxistari buruz Katalunian egindako azterlanak⁸⁶ adierazten du emakumeen % 9,2k sentitu duela bere lanaren gutxietsia izan dela eta % 5,3k pairatu duela harekiko errespetu falta lan-esparruan.

Azterlan horrek berak adierazten du Kataluniako emakumeen % 3k jasan dituztela lan-esparruan hitzeko komentario edo keinu erasokorrak. Aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoan, lanean ari diren emakumeen % 6k onartu du egoera hori pairatzen ari direla. Azterlan biek ikusi dute behin edo behin sexu-harremanak izateko presioak jasan dituztela azken urtean halakoak bizi izan dituzten emakumeen % 0,2k.

Euskal Autonomia Erkidegoan lan-esparruko sexu-jazarpenari buruz egin zen 2007ko⁸⁷ azterlanak ikusi zuen emakumeen % 0,4k *presioak jasan zituztela sexu-faboreak eskuratzeko* eta % 8k *piropo iraingarriak* entzun behar izan zituztela lan-esparruan.

86 Op. Cit.

87 Op. Cit.

93. Taula.

Azken urtean lan-esparruan indarkeria matxistako egoerak bizi izan dituzten emakume okupatuak,
maiztasunaren arabera galdetuta. Emaizta orokorrak (%)

		LAN-ESPARRUKO ERASOTZAILEA (Nagusia, lankideak, etab...)	
		Behin edo behin	Sarritan edo batzuetan
INDARKERIA FISIKOA	Haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserre. (13. itema)	0,0	0,0
	Bultza egiten dizu, kolpatu edo objektuak botatzen dizkizu. (16. itema)	0,0	0,0
	Kaletik jarraitu zaitu. (19. itema)	0,0	0,0
	Arma, aizto edo bestelako objektuekin erasota zaitu. (20. itema)	0,0	0,0
INDARKERIA PSIKOLOGIKO ETA ESPIRITUALA	Ironia baliatzen du edo ez ditu zure sinesmenak balioesten (elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea. etab.). (1. itema)	1,9	0,2
	Oihu egiten dizu, laidotu edo mehatxatu egiten zaitu. (2. itema)	2,9	1,6
	Lotsagarri uzten zaitu (iraindu, irrigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideak, lagunak, senideak, etab.). (3. itema)	2,9	1,9
	Ez du zure lana balioesten. (4. itema)	7,8	5,5
	Zenbaitetan beldurra ematen dizu. (10. itema)	0,2	0,2
	Etengabe gizonak erakarri nahian zabiltzala esaten dizu edo, bestela, ez duzula zure burua zaintzen, itxura txarra duzula. (12. itema)	0,0	0,0
	Dena gaizki egiten duzula esaten dizu, traketsa zarela. (14. itema)	0,6	0,4
	Heriotzarekin mehatxatu zaitu edo mehatxu larriren bat egin dizu. (21. itema)	0,0	0,0
SEXU-INDARKERIA	Presio egiten dizu sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez duzula nahi edo ez duzula gogorik. (8. itema)	0,2	0,0
	Mezu pornografikoak edo zakarrak bidali dizkizu paperean, ordenagailura edo telefonora. (17. itema)	0,0	0,0
	Hitz edo keinu erasokorrak zuzendu dizkizu kalean. (18. itema)	0,6	0,4
	Zu bortxatzen saiatu da. (22. itema)	0,2	–
	Bortxatu egin zaitu. (23. itema)	0,0	–
	Telefonoa, posta eta/edo sare sozialetan egiten dituzunak kontrolatzen ditu. (11. itema)	0,0	0,0

Oharra: kasu honetan, beltzez adierazi dira prebalentzia-indize handieneko adierazleak. Egun okupazio-egoeran dauden emakumeen kopuruaren arabera kalkulatu dira ehunekoak

Datuak adinaren arabera banakatuta aztertzen baditugu, 40 urte baino gutxiago dituzten emakumeak dira, gehien bat, egoera horiek bizi izan dituztenak lan-esparruan azken urtean.

94. Taula.

Azken urtean lan-esparruan indarkeria matxistako gutxienez egoera bat bizi izan duten emakume okupatuak, maiztasunaren arabera. Emaitzak adinaren arabera (%)

	OROKORRA	16 - 29 URTE	30 - 39 URTE	40 - 49 URTE	50 - 64 URTE
Gutxienez egoeraren bat behin edo behin (1/23 edo gehiago)	11,1	13,8	13,8	8,6	8,8
Gutxienez egoera bat <i>sarritan</i> edo batzuetan (1/23 edo gehiago)	7,2	8,8	9,6	4,6	6,1

95. Taula.

Azken urtean indarkeria matxistako egoera planteatuak bizi izan dituzten emakume okupatuak, sarritan edo batzuetan gertatuak lan-esparruan. Emaizta orokorrak eta adinaren arabera. Emakume okupatu guztiekiko (%)

		LAN-ESPARRUKO ERASOTZAILEA (Nagusia, lankideak, etab...)		
		Orokorra	30-39 urte	50-64 urte
INDARKERIA FISIKOA	Haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserrea. (13. itema)	0,0	0,0	0,0
	Bultza egiten dizu, kolpatu edo objektuak botatzen dizkizu. (16. itema)	0,0	0,0	0,0
	Kaletik jarraitu zaitu. (19. itema)	0,0	0,0	0,0
	Arma, aizto edo bestelako objektuekin erasota zaitu. (20. itema)	0,0	0,0	0,0
INDARKERIA PSIKOLOGIKO ETA ESPIRITUALA	Ironia baliatzen du edo ez ditu zure sinesmenak balioesten (elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea. etab.). (1. itema)	0,2	0,0	0,0
	Oihu egiten dizu, laidotu edo mehatxatu egiten zaitu. (2. itema)	1,6	0,6	0,9
	Lotsagarri uzten zaitu (iraindu, irrigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideak, lagunak, senideak, etab.). (3. itema)	2,0	1,8	2,6
	Ez du zure lana balioesten. (4. itema)	5,5	8,4	2,6
	Zenbaitetan beldurra ematen dizu. (10. itema)	0,2	0,0	
	Etengabe gizonak erakarri nahian zabiltzala esaten dizu edo, bestela, ez duzula zure burua zaintzen, itxura txarra duzula. (12. itema)	0,0	0,0	0,0
	Dena gaizki egiten duzula esaten dizu, traketsa zarela. (14. itema)	0,4	0,0	0,9
	Heriotzarekin mehatxatu zaitu edo mehatxu larriren bat egin dizu. (21. itema)	0,0	0,0	0,0

(.../...)

(.../...)

		LAN-ESPARRUKO ERASOTZAILEA (Nagusia, lankideak, etab...)		
		Orokorra	30-39 urte	50-64 urte
SEXU-INDARKERIA	Presio egiten dizu sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez duzula nahi edo ez duzula gogorik. (8. itema)	0,0	0,0	0,0
	Mezu pornografikoak edo zakarrak bidali dizkizu paperean, ordenagailura edo telefonora. (17. itema)	0,0	0,0	0,0
	Hitz edo keinu erasokorrak zuzendu dizkizu kalean. (18. itema)	0,4	0,0	0,9
	Telefonoa, posta eta/edo sare sozialetan egiten dituzunak kontrolatzen ditu. (11. itema)	0,0	0,0	0,0

Oharra: Kasu honetan, ez dira muturreko adinen kategoriak hautatu, oso kasu gutxi zeudelako kategoria horietan; izan ere, lan-merkatutik irtendako pertsonak ziren gehienak kasu batean, eta bestean, berriz, gehienak ikasleak ziren. Kasu honetan, beltzez adierazi dira prebalentzia-indize handieneko adierazleak.

Esparru sozial/publikoa

Esparru sozial edo eremu publikoan, oro har, adierazpen hauek izaten ditu emakumeen aurka eragindako indarkeriak:

- *Izaera sexualeko komentario edo keinu iraingarrien xede izatea.* Euskal Autonomia Erkidegoan galdetuak izan diren emakumeen % 6,1ek esan du horrelako egoera bat gutxienez pairatu duela azken urtean. Konparazioak egiteko datuak Kataluniakoak dira kasu honetan, eta emakumeen % 11,3an kokatzen du hango azterlanak indarkeria-mota hori pairatu duten emakumeen ehunekoa.
- *Exhibizionismo-ekintzak ikustea kalean.* EAEko emakumeen % 5,7k esaten du horrelako egoeraren bat bizi izan duela eta Kataluniako % 2,4k.
- *Jazarpenak, ukituak edo nahi gabeko igurtziak jasan izana taberna edo dantzalekuren batean edo antzeko lekuren batean.* EAEn emakumeen % 4,5ek adierazi du horrelako egoeraren bat bizi izan duela berriki eta Katalunian emakumeen % 6,1ek.
- *Gure inguruko pertsonen (familiakoak ez diren ezagunak edo beste pertsona batzuek) ironia balia-tzen dutela edo gure sinesmenak ez dituztela baloratzen sentitzea.* Azterlaneko datuek diote EAEko emakumeen % 3,7k hori bizi dutela.
- *Kalean jarraitua izatea.* Emakumeen % 3,2k hauteman du hori behin edo behin, eta ehuneko hori Katalunian 2009an bildutakoaren berdina da.

96. Taula.

Azken urtean esparru sozialean indarkeria matxistako egoerak bizi izan dituzten emakumeak, maiztasunaren arabera galdetuta. Emaitzak erasotzailearen arabera (%)

		FAMILIAKOA EZ DEN EZAGUN BAT ERASOTZAILE		EDOZEIN ERASOTZAILE (familiakoa ez den eza- gun edo ezezaguna	
		Behin edo behin	Sarritan edo batzuetan	Behin edo behin	Sarritan edo batzuetan
INDARKERIA FISIKOA	Haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserrea. (13. itema)	0,3	0,3	0,3	0,3
	Bultza egiten dizu, kolpatu edo objektuak botatzen dizkizu. (16. itema)	0,3	0,1	0,3	0,1
	Kaletik jarraitu zaitu. (19. itema)	0,1	0,0	3,2	0,6
	Arma, aizto edo bestelako objektuekin erasota zaitu. (20. itema)	0,0	0,0	0,6	0,3
INDARKERIA PSIKOLOGIKO ETA ESPIRITUALA	Ironia baliatzen du edo ez ditu zure sinesmenak balioesten (elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea. etab.). (1. itema)	2,8	1,7	3,7	2,1
	Oihu egiten dizu, laidotu edo mehatxatu egiten zaitu. (2. itema)	1,3	0,6	2,4	0,9
	Lotsagarri uzten zaitu (iraindu, irrigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideak, lagunak, senideak, etab.). (3. itema)	1,3	0,7	1,9	0,9
	Zenbaitetan beldurra ematen dizu. (10. itema)	0,4	0,4	1,6	1,1
	Dena gaizki egiten duzula esaten dizu, traketsa zarela. (14. itema)	0,1	0,1	0,1	0,1
	Heriotzarekin mehatxatu zaitu edo mehatxu larriren bat egin dizu. (21. itema)	0,4	0,2	0,7	0,4
SEXU-INDARKERIA	Presio egiten dizu sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez duzula nahi edo ez duzula gogorik. (8. itema)	0,1	0,0	0,1	0,0
	Mezu pornografikoak edo zakarrak bidali dizkizu paperean, ordenagailura edo telefonora. (17. itema)	0,2	0,1	1,9	0,8
	Hitz edo keinu erasokorrak zuzendu dizkizu kalean. (18. itema)	0,5	0,3	6,1	2,8
	Zu bortxatzen saiatu da. (22. itema)	0,1	–	0,1	–
	Bortxatu egin zaitu. (23. itema)	0,0	–	0,1	–
	Exhibizionismo-ekintzak ikustea kalean. (24. itema)	0,4	0,1	5,7	1,0
	Jazarpenak, ukituak edo nahi gabeko igurtziak izan dituzu taberna edo dantzalekuren batean, kalean... (25. itema)	0,2	0,1	4,5	2,3

Oharra: kasu honetan, beltzez adierazi dira prebalentzia-indize handieneko adierazleak.

Adinak diferentzia adierazgarriak ezartzen ditu berriro ere, eta, horrela, *gainerako adin-taldeek baino gehiagotan bizi izan dituzte emakume gazteek (16-29 urte) genero-indarkeriako adierazpenak azken urtean esparru sozial edo eremu publikoan.*

97. Taula.

Azken urtean esparru sozialean indarkeria matxistako gutxienez egoera bat bizi izan duten emakumeak, maiztasunaren arabera. Emaizak adinaren arabera (%)

	OROKORRA	16 - 29 URTE	30 - 39 URTE	40 - 49 URTE	50 - 64 URTE	65 URTE EDO GEH.
Gutxienez egoeraren bat behin edo behin (1/23 edo gehiago) (*)	19,9	42,5	28,3	13,3	12,1	11,2
Gutxienez egoera bat <i>sarritan edo batzuetan</i> (1/23 edo gehiago) (*)	9,3	17,9	11,9	7,5	6,2	5,9

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Deigarria da muturreko adin-taldeek datuak konparatuz gero ikusten diren aldeetako batzuk.

Askoz handiagoa da gaueko eremuetan eta leku bakandu edo ilunetan pasatzean sexu-izaerako indarkeria-egoerak bizi izan dituzten emakumeen ehunekoa 30 urtetik beherako emakumeen artean gainerako adin-tarteetako emakumeen artean baino. Zehazki, kaletik jarraituak izatea (% 11,3), sexu-exhibizionismoko egoerak ikustea (% 13,7) eta jazarpena edo nahi gabeko igurtziak pairatzea lokaletan (% 13,2). Adin-talde horretako emakumeek pairatzen dute gehien, halaber, Internet bidez eta informazioaren eta komunikazioaren beste teknologia batzuetatik eragiten den indarkeria (mezu iraingarriak edo pornografikoak, etab.).

Horren harian, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta emateko Zuzendaritzak argitaratu dituen estatistikek⁸⁸ adierazten dute sexu-askatasunaren aurkako delituen biktime diren 10 emakumetatik 7 direla, batez beste, 30 urtetik beherakoak.

Baina, gainera, adierazgarria da ikustea emakume gazteak direla indarkeria-indize handienak dituztenak familiakoak ez diren pertsonekin harremanetan jartzean gertatzen diren indarkeria-kasuetan. Emakume gazteen % 5,7 izan da oihukatua, iraindua edo mehatxatua; % 3,8k esaten du norbaitek beldurrazia sentitu dela inoiz; eta % 3,3k adierazi du lotsagarri utzi dutela beste pertsona batzuen aurrean.

Adin handieneko emakumeen kolektiboak erakusten dituen ehunekoei erreparatuta, nabarmentzekoa da % 5,9k adierazi duela ironia erabiltzen dela haien aurka edo ez direla haien sinesmenak baloratzen eremu sozialean.

88 Op. Cit.

98. Taula.

Azken urtean esparru sozialean behin edo behin indarkeria matxistako egoeraren bat bizi izan duten emakumeak.
Emaita orokorrak eta adinaren arabera (%)

EDOZEIN ERASOTZAILE				
		Orokorra	16-29 urte	>65 urte
INDARKERIA FISIKOA	Haserretzen denean, maite dutenek edo animaliek pairatzen dute haren haserrea. (13. itema)	0,3	0,9	0,3
	Bultza egiten dizu, kolpatu edo objektuak botatzen dizkizu. (16. itema)	0,3	1,4	0,0
	Kaletik jarraitu zaitu. (19. itema)	3,2	11,3	0,6
	Arma, aizto edo bestelako objektuekin erasota zaitu. (20. itema)	0,6	0,9	0,3
INDARKERIA PSIKOLOGIKO ETA ESPIRTUALA	Ironia baliatzen du edo ez ditu zure sinesmenak balioesten (elizara joatea, alderdiren bati botoa ematea, elkarteren bateko kide izatea. etab.). (1. itema)	3,7	2,8	5,9
	Oihu egiten dizu, laidotu edo mehatxatu egiten zaitu. (2. itema)	2,4	5,7	0,0
	Lotsagarri uzten zaitu (iraindu, irrigarri uzten) beste pertsona batzuen aurrean (lankideak, lagunak, senideak, etab.). (3. itema)	1,9	3,3	1,5
	Zenbaitetan beldurra ematen dizu. (10. itema)	1,6	3,8	0,6
	Dena gaizki egiten duzula esaten dizu, traketsa zarela. (14. itema)	0,1	0,5	0,0
	Heriotzarekin mehatxatu zaitu edo mehatxu larriren bat egin dizu. (21. itema)	0,7	1,4	0,3
SEXU-INDARKERIA	Presio egiten dizu sexu-harremanak izateko, nahiz eta jakin ez duzula nahi edo ez duzula gogorik. (8. itema)	0,1	0,5	0,0
	Mezu pornografikoak edo zakarrak bidali dizkizu paperean, ordenagailura edo telefonora. (17. itema)	1,9	3,3	1,5
	Hitz edo keinu erasokorrak zuzendu dizkizu kalean. (18. itema)	6,1	15,6	1,2
	Zu bortxatzen saiatu da. (22. itema)	0,1	0,0	0,3
	Bortxatu egin zaitu. (23. itema)	0,1	0,5	0,3
	Exhibizionismo-ekintzak ikustea kalean. (24. itema)	5,7	13,7	3,3
	Jazarpenak, ukituak edo nahi gabeko igurtziak izan dituzu taberna edo dantzalekuren batean, kalean... (25. itema)	4,5	13,2	0,0

Oharra: kasu honetan, beltzez adierazi dira prebalentzia-indize handieneko adierazleak.

6.3.

EAE-KO HERRITARREK SEGURTASUNARI BURUZ DUTEN IRITZI EDO PERTZEPZIOA

Segurtasuna nola sentitzen den edo horren pertzepzioa oso baldintzatua dago beldurraren sentsazioarengatik ("arrisku bat hautematean izaten den sentsazio ezatsegina"). Gai-alor horretako bibliografia berariazkoak ez du aho bateko adostasunik topatu, baina, hasiera batean, delituarekiko beldurraren definizio bat emateko moduan geundeke, baldin eta erreferentzia moduan hartzen badugu Kriminologiaren Euskal Institutuak argitaratutako *Segurtasun gabeziaren pertzepzioa ikertzeko eta kriminalitate-mapak egiteko programa*⁸⁹; izan ere, definizio hau ematen da lan horretan: "biktimizazio zuzen eta/edo zeharkako bat pairatzeko arriskuaren balorazio subjektiboak dakarren emozioa".

Delituarekiko beldurraren baita, *egitatea* eta *egitatearen pertzepzioa* bereiz daitezke. Lehenak kriminalitate egiazkoa adierazten du (errealitatean oinarritutako beldurra) eta bigarrena subjektiboa da (errealitatean oinarritu gabeko beldurra); beraz, egitate edo gertakari beraren aurrean, beldurra handia, txikia edo ezdeusa izan daiteke. Kriminalitate handi bat izateak ez du esan nahi, derrigorrean, delituarekiko beldur baxua dagoenik, norbera eraso baten biktima izan daitekeenaren pertzepzioak lotura estua baitu zenbait faktoreekin: norberak izan dituen bizipenak, ingurunearen pertzepzioa, erakundeekiko konfiantza, inguruan gertatzen diren istilu edo gatazkak, etab.

Segurtasun gabeziaren pertzepzioa oso lotuta dago beste pertsona batzuek edo komunikabideek emandako informazioarekin. Horregatik, norberaren bizipenak, maiz, gizarte-diskurtsoarekin kontradikzioan izan daitezke. Horrez gainera, delituarekiko beldurrean bada elementu pertsonalik ere (afektiboak, kognitiboak, portaerari dagozkionak), behar bezala aztertu beharrekoak direnak, behar bezala interpretatzeko beldurra eta segurtasun-pertzepzioa.

Beldurraren paradoxak, hau da, beldurraren eta arrisku egiazkoaren arteko kontrasteak, agerian uzten du, delituarekiko beldurra eragiten duen faktore nagusia egin diren delituak diren arren, badirela beste faktore asko beldurra izatean edo ez izatean eragiten dutenak; hala ere, ez da erraza faktore horien arteko harremanei buruzko teoria sendoak osatzea.

Guztiaren abiapuntua da segurtasuna oinarizko eskubide bat izan behar duela, adierazpenerako, erabakiak hartzeko eta mugitzeko askatasunekin lotua. Eskubide horrek egituratze kolektiboa du eta emakumeek egiteko garrantzitsua izan behar dute egituratze-lan horretan.

89 Op. Cit.

Herritar guztiek pairatzen dituzte indarkeria eta segurtasun gabeziako egoerak, baina gizonek eta emakumeek modu ezberdinean bizi eta hautematen dituzte. Bada gizartean *“segurtasun gabezia ikusezinik edo ikusezin bihurturik”* herritarren talde jakin batzuei eragiten diena bereziki –sexuaren edo adinaren arabera bereizitako taldeak dira–, eta talde horiek gainerakoek baino arrisku handia dute erasoak pairatzeko, eta, ondorioz, babesgabetasun handiagoa. Genero-ikuspegitik egiten bada azterketa, indarkeriaren edo segurtasun gabeziaren modu ezkutatuak agertzen dira, gizonek eta emakumeek pairatzen dituztenak.

Aurretik egindako azterlan batzuek adierazten dutenaren arabera, gizonek baino segurtasun gabeziako sentrazio handiagoa bizi dutela diote emakumeek, eta azken horiek dira beren bizitza gehien mugatzen dutenak, leku jakin batzuetatik pasatzeko edo ordu jakin batzuetan ibiltzeko beldurra dutelako.

Arazoi batzuk eman daitezke azaltzeko zergatik duen generoak eragin hori arriskuaren pertzepzioa erabakitzerakoan: eraso, jazarpen edo gehiegikeria sexual bat pairatzeko beldur egiazkoa; nortasun femeninoa hauskortasunaren, ahultasunaren sinonimo moduan eraikitzea, etab. Beste arrazoi bat da emakumeek gaztetatik jasotzen dutela eremu publikoa haientzat arriskutsua izan daitekeenaren mezu edo ideia.

Sozializazio-modu hori gazte-garaitik gertatzen denez, segurtasun gabeziaren edo beldur egiazkoaren pertzepzioak beren burua eta portaerak etengabe kontrolatzera daramatza emakumeak (nola janzten diren, zer lekutan ibil daitezkeen eta zeinetan ez, seguruak ez diren orduak zaintzea, etab.) eta, horrela jokotuta, uko egiten diote, neurri batean, espazio publikoari, eta horrek mugatu egiten du haien autonomia.


Kapitulu honetan ez dugu segurtasun-pertzepzioaren edo segurtasunari buruzko iritzia inguruko elementu guztietan sakondu nahi, eta, halaber, ez da kapitulu honen asmoa kriminalitate-azterketa bat egitea, ikerlan honen mugak gaindituko baikenituzke. Kapitulu honek labur *eta modu orokor batean aztertuko du euskal herritarrek beren bizi-ingurune*ko segurtasunari buruz duten iritzi edo pertzepzioa, eta, horrez gain, emakumeei segurtasun gabezia handiena eragiten dieten *leku zehatzei* (puntu beltzei) buruzko informazioa emango du.

Galdera hauek erantzuteko ahalegina egingo da kapituluari zehar:



Seguru sentitzen al dira herritarrek bizi diren zonaldean?

Euskal herritar gehienak seguru sentitzen dira bizi diren zonaldean. Galdetuak izan diren hamar pertsona-tatik bederatzik bizi du bere bizilekuko zonaldea oso edo nahikoa segurua dela, baina herritarren % 12k iritzi dio bere ingurunea ez dela batere segurua edo segurtasun urrikoa dela.



26. Grafikoa.

Segurtasun-pertzepzioa norbera bizi den zonaldean. Emaita orokorrak (%)

Diferentzia edo alde adierazgarriak ikusten dira hiru lurraldeen artean segurtasun-pertzepzioari dagokionez. Gipuzkoan bizi diren pertsonak dira segurtasun-pertzepzio handiena dutenak, herenak baino gehiagok (% 27,2k) uste baitu oso zonalde seguru batean bizi dela. Horren ifrentzuan, Arabako herritarrek dute ehuneko apalena (% 22koa), zonalde oso seguruan bizi dela uste duen herritar-portzentajeari dagokionez.

99. Taula.


Segurtasun-pertzepzioa norbera bizi den zonaldean. Emaitzak Lurralde Historikoen arabera (%)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Oso segura	22,0	23,9	27,2
Nahiko segurua	61,0	64,7	63,2
Segurtasun urrikoa	15,6	10,2	9,2
Ez da batere segurua	1,3	1,2	0,5
Guztira	100,0	100,0	100,0

Segurtasun-pertzepzio orokorra okertu egiten da gauez bakarrik ibiltzeko gaiari buruz galdetuz gero. Adierazle hori bera aztertu zuen 2005ean egin zen *EAEko biztanleen segurtasun-pertzepzioa*⁹⁰ azterlanak. Eusko Jaurlaritzako Azterlan eta Araubide Juridikoko Zuzendaritzak egin zuen azterlan hori, eta bertan adierazten zen EAEko herritarren % 84, urte horretan, seguru edo oso seguru sentitzen zela gauez ibiltzen beren bizilekuko zonaldean. Konparazio hori zuhurtasunez egin beharrekoa da, bi azterlan horien helburuak eta laginak ezberdina baitira; hala, orientazio moduko ildo bat adieraztearren, esan daiteke 2011. urtean segurtasun-pertzepzioa okertu egin zitekeela, azterlan honen emaitzek esaten baitute portzentaje hori % 77,6koa izan dela urte horretan.

90 Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. *EAEko herritarrek segurtasunari buruz duten iritzi edo pertzepzioa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza, 2006.

Norbera bizi den zonaldeak gaez bakarrik ibiltzean sentitzen den segurtasun gabezia galdetuta, herri-tarren % 22,4k esan du ez dela sentitzen seguru edo segurtasun urria sentitzen duela.



27. Grafikoa.

Segurtasun-pertzepzioa norbera bizi den zonaldean gaez bakarrik ibiltzean. Emaita orokorrak (%)

Horrez gainera, *diferentzia adierazgarriak ikusten dira gaez ibiltzen diren pertsonen segurtasun-pertzepzioaren alorrean, pertsonak bizi diren Lurralde Historikoei erreparatuz gero*. Gipuzkoa da, berriro ere, seguru sentitzen den lurraldea (% 26,7k sentitzen du bere burua oso seguru gaez ibiltzean), eta Araba da atal horretan emaitza apalena eman duen probintzia (% 15,2k sentitzen du bere burua oso seguru). Bi lurraldeen arteko diferentziak, arlo horretan, nabarmen handiagoak dira segurtasun-pertzepzio orokorraren alorrean ikusten direnak baino.

Gaez ibiltzean herritarrek bizi duten segurtasun-pertzepzioa okertu egin dela dirudi azken urteetan, eta joera hori herrialde historiko guztietan ikusten da. Distantzia handienak, 2005eko azterlanak ematen dituen datuen eta 2011n egindako azterlan honetako datuen artean, Gipuzkoan eta Araban ikusten dira.

100. Taula.

Segurtasun-pertzepzioa norbera bizi den zonaldean gaez bakarrik ibiltzean.
Emaitzak Lurralde Historikoen arabera (%)


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Oso seguru	15,2	21,3	26,7
Nahiko seguru	56,8	56,3	53,6
Segurtasun urrikoa	21,1	17,5	14,3
Ez da batere seguru	6,9	4,9	5,4
Guztira	100,0	100,0	100,0

Segurtasun orokorrari buruzko pertzepzioaren datuei erreparatuz gero, ez da alde adierazgarriarik ikusten gizonen eta emakumeen artean; hala ere, gizonak joera nabarmen handiagoa dute beren udalerria oso *seguru* dela esateko (gizonen % 31,4k esaten du hori eta emakumeen % 18,1ek), eta emakumeek, berriz, jarrera zurrargoa adierazten dute, gehienek (% 68,1ek) esaten baitute beren udalerria *nahiko seguru* dela.

Diferentzia nabarmenak ikusten dira, ordea, *bizi diren lekuan gaez ibiltzean bizi duten segurtasun-sentazioaz galdetzean gizonen eta emakumeen*. Bildu diren datuek esaten dute emakumeek % 31k esaten


duela ez dela seguru sentitzen edo segurtasun urria sentitzen duela bizi den lekuan gauez ibiltzean, eta gizonen kasuan, berriz, ehuneko hori % 13raino jaisten da.

Aurrez adierazi dugun txosten horren datuei erreparatuz gero, ikusten da beren burua egoera horretan ikusten duten emakumeen segurtasun gabetasuneko pertzepzioa handitu egin dela azken urteetan; izan ere, lehen ehunekoa % 21ekoa zen 2006. urtean. Gizonen kasuan ez da aldaketarik handirik ikusten (% 11koa zen 2005ean eta % 13koa izan da 2011n).



28. Grafikoa.

Segurtasun-pertzepzioa norbera bizi den zonaldean. Emaizak sexuaren arabera (%)



29. Grafikoa.

Segurtasun-pertzepzioa norbera bizi den zonaldean gauez bakarrik ibiltzean. Emaizak sexuaren arabera (%)

Datuak adinaren arabera banakatuta aztertuz gero, aldagai horren eta segurtasun-pertzepzioaren arteko harreman edo lutura ikusten da, bai segurtasun-pertzepzio orokorrari dagokionez, bai gaez ibiltzean izaten den pertzepzioari dagokionez. Adin handieneko pertsonak adierazten dute, irmotasun handienaz, beren auzoa oso segurua dela, baina haiek dira, hain justu, sarrien esaten dutenak beren auzoa ez dela segurua edo segurtasun urrikoa dela gaez bakarrik ibiltzean. Datuak adinaren eta sexuaren arabera banakaturik gero, gehiago nabartzen dira konklusioak.

Emakume gazteak dira gauean segurtasun gabetasuneko indize handienak erakusten dituen adin-taldea (% 40k ikusten du bere burua segurtasunik gabe edo segurtasun urriz gauean), adineko emakumeen taldearen aurretik. Horren arrazoia izan daiteke adineko emakumeak ez direla gazteak bezain beste ibiltzen gaez. Modu nabarmenean adierazten dute beren auzoaren segurtasunari buruzko iritzi ona 65 urtetik gorako pertsonak ("oso segurua" ikusten duten pertsonen ehunekoak handiagoak dira orokorrean eta gaez ibiltzeko kategorian).

Bestalde, iritzi orokorrean ikusten ziren diferentziak –gizonek irmotasun handiagoz adierazten dute beren auzoa oso segurua dela– bere horretan errepikatzen dira gizonen eta emakumeen artean. *Emakume gazteen soilik % 18,1ek esaten du oso seguru sentitzen dela*, baina ehuneko hori nabarmen handiagoa da gizon gazteen kasuan, % 31,4 baitira iritzi hori dutenak.

Gizon gazteek baino segurtasun gutxiagoz ikusten dute emakume gazteek beren burua gaez ibiltzean. Emakume gazteen % 40,1ek esaten du ez dela seguru sentitzen edo segurtasun urria sentitzen duela, eta segurtasun gabeziako sentipen hori nabarmen jaisten da gizon gazteen kasuan, harik eta % 9ra iritsi arte. Gaez bakarrik ibiltzea, datuen arabera, aldagai garrantzitsua da emakume gazteentzat beren segurtasun gabeziako pertzepzioa erabakitzeko. Emakume gazteen % 13,8k esaten du segurtasun gabezia handia edo nahikoa sentitzen duela bizi den zonaldean, baina ehuneko hori % 40,1era igotzen da zonalde horretan bertan gaez ibiltzeko garaian.

101. Taula.

Segurtasun-pertzepzioa norbera bizi den zonaldean eta gaez bakarrik ibiltzean izaten den segurtasun-pertzepzioa. Emaizak sexuaren eta adinaren arabera (%)

	SEGURTASUN-PERTZEPZIO OROKORRA				SEGURTASUN-PERTZEPZIO GAUEZ BAKARRIK IBILTZEAN			
	Handia	Nahikoa	Urria	Segurtasunik ez	Handia	Nahikoa	Urria	Segurtasunik ez
Sexua	(*)							
Emakumeak	24,5	62,9	11,5	1,1	18,2	50,4	22,9	8,5
Gizonak	24,9	64,5	9,8	0,8	26,3	60,8	10,8	2,1
Adina	(*)							
16 - 29 urte	24,9	63,5	10,2	1,4	22,3	53,6	20,0	4,1
30 - 39 urte	20,9	65,1	13,5	0,4	19,3	58,6	17,7	4,4
40 - 49 urte	23,1	65,9	10,2	0,8	24,4	59,6	11,3	4,8
50 - 64 urte	21,4	68,7	8,9	1,0	20,8	57,9	15,8	5,5
65 urte edo gehiago	32,5	55,5	10,8	1,2	24,1	48,0	20,3	7,6

	SEGURTASUN-PERTZEPZIO OROKORRA				SEGURTASUN-PERTZEPZIO GAUEZ BAKARRIK IBILTZEAN			
	Handia	Nahikoa	Urria	Segurta-sunik ez	Handia	Nahikoa	Urria	Segurta-sunik ez
Emakumeak	(*)				(*)			
16 - 29 urte	18,1	68,1	11,9	1,9	10,8	49,1	32,1	8,0
30 - 39 urte	23,8	62,7	12,7	0,8	15,6	52,5	23,8	8,2
40 - 49 urte	22,2	66,1	10,9	0,8	19,3	55,9	16,4	8,4
50 - 64 urte	21,7	67,8	9,5	1,0	18,6	50,8	23,1	7,5
65 urte edo gehiago	33,2	53,0	12,6	1,2	23,8	45,1	21,0	10,0
Gizonak	(*)				(*)			
16 - 29 urte	31,4	59,2	8,5	0,9	33,2	57,8	8,5	0,4
30 - 39 urte	18,2	67,4	14,3	0,0	22,8	64,5	12,0	0,8
40 - 49 urte	24,0	65,7	9,5	0,8	29,3	63,2	6,2	1,2
50 - 64 urte	21,1	69,7	8,2	1,0	22,9	65,1	8,6	3,4
65 urte edo gehiago	31,5	58,9	8,3	1,2	24,5	51,9	19,3	4,3

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Beste lan-hipotesi batzuek landuta, galdetuak izan diren pertsonen bizilekuko udalerriaren tamainaren arabera aztertu ditugu datuak. Emaitzek adierazten dute badela loturarik aldagai horren eta segurtasun-pertzepzioaren artean.

Jendeak, oro har, pentsatzen du bere bizilekuko auzo edo zonaldea nahiko segurua dela, *baina udalerri txikietan bizi diren pertsonak joera handiagoa dute beren ingurunea oso segurua dela esateko, eta hiri-buruetan bizi direnak, berriz, joera handiagoa dute beren ingurunea segurtasun urrikoa dela adierazteko*. Joera hori segurtasun-pertzepzio orokorrean eta gauez bakarrik ibiltzeko alor espezifikoan hautematen da.

102. Taula.

Segurtasun-pertzepzioa norbera bizi den zonaldean. Emaitzak udalerriaren tamainaren arabera (%)

(*)	< 10.000 BIZ.	10.000-120.000 BIZ.	HIRIBURUA
Oso segura	31,7	25,1	20,9
Nahiko segurua	60,5	65,5	63,5
Segurtasun urrikoa	7,6	8,7	14,0
Ez da batere segurua	0,2	0,7	1,6
Guztira	100,0	100,0	100,0

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakutsitako aldagaien gurutzatzeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$). Kasu honetan, diferentziak adierazgarriak dira nahiko larria eta oso larria kategoriak soilik konparatzen direnean.

103. Taula.

Segurtasun-pertzepzioa norbera bizi den zonaldean, gauez bakarrik ibiltzean.
Emaizak udalerraren tamainaren arabera (%)

(*)	< 10.000 BIZ.	10.000-120.000 BIZ.	HIRIBURUA
Oso segura	30,5	22,2	18,2
Nahiko segurua	51,5	58,0	54,9
Segurtasun urrikoa	12,9	15,2	20,8
Ez da batere segurua	5,1	4,7	6,2
Guztira	100,0	100,0	100,0

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakutsitako aldagaien gurutzatzeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$). Kasu honetan, diferentziak adierazgarriak dira nahiko larria eta oso larria kategoriak soilik konparatzen direnean.

Gizartean oro har ikusten diren diferentzia horiek bere horretan errepikatzen dira emakumeen kasuan. Alde horretatik, *ikusten da askoz gehiago direla beren burua oso seguru ikusten duten emakumeak udalerritik, udalerritik ertainetan (10.000-120.000 biztanleko udalerrietan) eta, batik bat, hiriburuetan baino*. Gizonen artean ere ikusten dira aldeak segurtasun-pertzepzioari dagokionez, baina, azken horien kasuan, alde horiek adierazgarriak dira gauez bakarrik ibiltzearen alorrean.

104. Taula.

Segurtasun-pertzepzioa norbera bizi den zonaldean eta gauez bakarrik ibiltzean izaten den segurtasun-pertzepzioa.
Emaizak sexuaren eta udalerraren tamainaren arabera (%)


	< 10.000 BIZ.	10.000-120.000 BIZ.	HIRIBURUA	< 10.000 BIZ.	10.000-120.000 BIZ.	HIRIBURUA
Emakumeak	(*)			(*)		
Oso segura	32,3	24,2	19,8	27,0	18,3	12,6
Nahiko segurua	58,8	66,2	62,3	49,1	52,3	49,4
Segurtasun urrikoa	8,5	9,0	15,7	16,4	21,0	28,9
Ez da batere segurua	0,3	0,6	2,1	7,5	8,5	9,1
Gizonak				(*)		
Oso segura	30,6	26,0	21,9	36,8	25,6	23,5
Nahiko segurua	63,6	64,8	64,6	56,1	63,0	60,2
Segurtasun urrikoa	5,8	8,4	12,4	6,4	10,1	13,0
Ez da batere segurua	0	0,7	1,1	0,6	1,3	3,4

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakutsitako aldagaien gurutzatzeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$). Kasu honetan, diferentziak adierazgarriak dira nahiko larria eta oso larria kategoriak soilik konparatzen direnean.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek beren bizi-ingurunean duten segurtasun-pertzepzioa aztertzea interesgarria den moduan, interesgarria izan daiteke, era berean, delitu zehatzen (lapurreten, eraso fisikoen eta bestelako delituen) biktima izateko beldur diren ala ez aztertzea.

Hasiera batean, lapurretak dira, 2011. urtean, euskal herritarrek beren zonaldean arriskugarrien ikusten duten delituetako bat. Berariaz, herritarren % 35,2k uste du nahikoa edo oso gertagarria dela lapurretaren

baten biktima izatea bizi diren lekuko etxebizitzaren edo lokalen batean, eta hamar pertsonatik ia hiruk uste dute lapurretaren baten biktima izan daitezkeela ibilian (poltsa lapurtzea, diru-zorroa, etab.). Herritarren % 13,8k uste du eraso fisikoren edo indarkeriaz edo mehatxuz egindako lapurretaren baten biktima izan daitekeela, eta % 10,2k adierazten du sexu-erasoren baten biktima izateko beldurra duela.



30. Grafikoa.

Bizi diren lekuan gertakari batzuek gertatzeko aukera nahiko edo oso handia dela uste duten pertsonen ehunekoak.
Emaitza orokorrak (%)

Lurralde Historikoak aztertuz gero, ikusten da arabarrek dutela joera handiena pentsatzeko beren bizilekuzonaldean aukera nahiko edo oso handiak dituztela gertakari horiek eman daitezen.

105. Taula.

Bizi diren lekuan gertakari batzuek gertatzeko aukera nahiko edo oso handia dela uste duten pertsonen ehunekoak.
Emaitzak Lurralde Historikoen arabera (%)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Lapurreta etxebizitzan edo lokalean	36,1	34,7	35,5
Lapurreta ibilian (poltsa, diru-zorroa, telefonoa)	30,6	29,1	26,0
Eraso fisikoa	16,1	15,3	10,3
Indarkeriaz edo mehatxupear egindako lapurreta	17,4	14,5	14,5
Sexu-erasoa	11,9	10,4	9,0

Aurrez adierazitako txosteneko datuei erreparatu ondoren, 2005. urtetik hona delitu horien biktima izateko arriskuaren sentzazioa handitu egin dela dirudi; izan ere, nabarmen jaitsi da urte hauetan guztietan delitu horietakoren baten biktima izateko batere aukerarik ez dutela uste duten pertsonen ehunekoa⁹¹.

91 Op. Cit.

Gizonek eta emakumeek ez dituzte berdin ikusten delitu baten biktima izateko aukera edo probabilitateak; hala, *gizonek baino probabilitate nabarmen handiagoak ikusten dituzte emakumeek*. Alde horiek nabarmen ikusten dira Eusko Jaurlaritzak 2005ean egindako azterlanean ere.

Datuak adinaren arabera banakatzen baditugu, ikusten da estatistikaren ikuspegitik adierazgarriak diren aldeak ematen direla galdetutako bost delituetatik hirutan: etxebizitzan edo lokalean egindako lapurretan, ibilian egindako lapurretan eta eraso fisikoetan. *Gazteen adin-taldea da eraso fisiko baten biktima izateko probabilitate handienak ikusten dituena, eta talde hori da, era berean, etxebizitzan edo lokalean lapurreta bat izateko arrisku gutxiena ikusten duena*. Adineko gizonak dira azken delitu hori pairatzeko arrisku handiena ikusten dutenak.

Bestalde, datuek argitasunez adierazten dute *adinak gora egin ahala handitu egiten dela ibilian lapurreta bat* (poltsa, diru-zorroa, etab.) *pairatzeko arriskuaren pertzepzioa*, 40-49 urte bitarteko adin-taldearen salbuespenarekin.

106. Taula.

Bizi diren lekuan gertakari batzuek gertatzeko aukera nahiko edo oso handia dela uste duten pertsonen ehunekoak.
Emaizak sexuaren eta adinaren arabera (%)

	LAPURRETA ETXEBIZITZAN EDO LOKALEAN	IBILIAN EGINDAKO LAPURRETA	ERASO FISIKOA	ATRAKOA	SEXU-ERASOA
Sexua	(*)	(*)	(*)	(*)	(*)
Emakumeak	37,6	31,4	15,5	15,9	11,7
Gizonak	32,7	25,1	12	11,5	8,6
Adina	(*)	(*)	(*)		
16 - 29 urte	28,3	24,6	18,6	11,7	14,9
30 - 39 urte	35,4	26,2	12,9	9,7	11,3
40 - 49 urte	36,7	24,1	12,9	11,9	14,1
50 - 64 urte	36,4	29,9	13,2	9,2	14,9
65 urte edo geh.	37,8	35,0	12,3	9,0	13,6
Emakumeak					
16 - 29 urte	31,6	27,8	21,1	15,6	18,4
30 - 39 urte	38,1	29,9	16,8	13,9	14,8
40 - 49 urte	40,4	29,2	15,1	13,4	15,0
50 - 64 urte	40,3	32,1	12,8	8,9	18,4
65 urte edo geh.	36,4	35,8	13,6	8,9	13,6
Gizonak	(*)	(*)			
16 - 29 urte	25,1	21,5	16,1	8,1	11,7
30 - 39 urte	32,8	22,8	9,3	5,8	8,1
40 - 49 urte	33,1	19,0	10,8	10,3	13,2
50 - 64 urte	32,3	27,6	13,6	9,5	11,3
65 urte edo geh.	39,7	33,9	10,3	9,1	13,6

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Delitu baten biktima izateko aukeren pertzepzioa nabarmen handiagoa da hiriburuetan herri txikietan baino, delitu honen kasuan izan ezik: etxebizitzan edo lokalean lapurreta egitea.

107. Taula.

Bizi diren lekuan gertakari batzuek gertatzeko aukera nahiko edo oso handia dela uste duten emakumeen ehunekoak. Emaitzak udalerrriaren tamainaren arabera (%)

	< 10.000 BIZ.	10.000-120.000 BIZ.	HIRIBURUA
Lapurreta etxebizitzan edo lokalean (*)	40,8	32,2	35,5
Lapurreta ibilian (poltsa, diru-zorroa, telefonoa) (*)	23,3	24,7	34,4
Eraso fisikoa (*)	10,3	10,5	18,6
Indarkeriaz edo mehatxupearan egindako lapurreta (*)	7,6	12,4	18,1
Sexu-erasoa (*)	5,2	8,3	14,4

Oharra: (*) ikurrak adierazten du aldagaiak gurutzatu ondoren erakusten diren aldeak adierazgarriak direla estatistikaren ikuspegitik ($X^2 < 0,05$).

Nolakoak dira emakumeei segurtasun gabeziako sentsazio handiena sortzen dieten lekuak?

Nazioarteko erakunde batzuek lan egin dute emakumeek hiri seguruetan bizitzeko duten eskubidea aldarrikatzeko, eta programa ugari abiarazi dituzte emakumearen aurkako indarkeriarik gabeko hiri seguruak eraikitzeko.

Genero-ikuspegi batek eta emakumeen partaidetza gogotsu batek soilik lor dezakete hirigintza gizabanako bakoitzaren errealitateari egokitzea eta pertsonen premia askotarikoak aintzat hartzea. Seguruak ez diren lekuak badaude, joan-etorriak egiteko aukerak eta askatasuna murrizten zaizkie emakumeei; hala, horrelako lekurik ez izatea izan behar du hiri handietako hirigintza-planen helburu nagusietako bat. Helburu hori bera bete behar dute halako lekuak dituzten udalerrri txikiek ere, eta beharrezkoa da, horietan guztietan, haien egoera berrikustea eta emakumeen eta gizonen beharretara egokitzea.

Idea horren harian, proiektu ugari egin dira azken urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan, udalerrietan beldurra edo segurtasun gabezia eragiten duten lekuak zehazteko, eta, arrisku objektiboa alde batera utzita, arrisku horiek minimizatu eta leku horiek genero-ikuspegitik urbanizatzeko. Besteak beste, nabarmentzekoak dira *Beldurraren mapak edo Hiri debekatuaren mapak*⁹², udalerrri askotan egin baitira antzeko metodologia bat erabilita. Gainera, gidaliburu bat⁹³ ere egin da udalerrientzat, gaiarekiko interesa duten udalerriek zenbait tresna izan ditzaten diagnostiko horiek egiteko.

Ikerlan honen baitan, (<http://opinionmujerescapv.wordpress.com/identificacion-de-puntos-negros-en-tu-municipio/>) bloga sortu da, eta, haren bidez, gaiari buruz argitaratu den informazio guztia izan da eskuragarri. Horrez gainera, informazio hori ematen duten azterlanekin partekatu du "zulo beltzei" buruz hausnartzeko helburua.

92 Kontzeptu-esparruari buruzko kapituluari aurki daiteke proiektu-mota horri buruzko informazio orokorra.

93 Hiri Kolektiboa. *Hirigintza-azterketako mapak egiteko gidaliburu metodologikoa, genero-ikuspegia eta herritarren eguneroko bizitza aintzat hartuta. Hiri Debekatuaren Mapak EAEko udalerrietan*. 2010.

Ikerlana egin bitartean blog horretan egin diren ekarpenak adierazi nahi izan ditugu atal honetan, eta, horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan orain arte egin diren azterlanek atera dituzten konklusio nagusiak bildu nahi izan ditugu.

Emakumeen segurtasunean eragiten duten faktoreak

Partaidetza-ekimenen baitan, emakumeek faktore hauek adierazi dituzte, besteak beste, leku bat segurua ote den jakiteko:

- Ingurunea erraz ezagutzea, erraz jakitea non zauden eta nora joan behar duzun.
- Ikustea eta ikusia izatea.
- Entzutea eta entzuna izatea.
- Beti ikustea irteeraren bat edo laguntza eskatzeko lekuren bat.
- Ingurua garbia eta zaindua egotea.
- Espazio publikoetan taldean egitea gauzak.
- Komunitate baten partaide izatearen sentimendua.

Emakumeen mugikortasuna eragotzi eta mugatzen duten lekuak

“Beti dut gogoan, emakume naizen aldetik, ez dela komeni kale jakin batzuetatik bakarrik ibiltzea ordu jakin batzuetan, lapurreta bat baino zerbait larriagoa pairatzeko arriskua izan dezakezulako”.

“Bilbokoa naiz eta, normalean, ez dut beldurrik izaten, baina aitortzen dut gauez etxera bueltatzen naizenean beti izaten dudala paranoiazko unetxoren bat”.

“Emakumeak, teoriarik, aske gara nahi dugun lekura joateko nahi dugunean, baina eguneroko bizitzako gertaerek (gehiegikeriek, lapurretek, hilketek...) erakusten digute hori ez dela horrela. Gauez ibiltzeko joera zabaldua amesgaiztoa da familia ugarirentzat, eta, bereziki, neska gazteak dituzten familientzat”.

Dentsitate apaleko auzoak, joan-etorrian jende gutxi izaten dituzten lekuek eta ikusteko zailak diren eremuek dakarten arriskuaren jakitun, emakumeek mugatu egiten dituzte beren ibilerak, batik bat, gauetan, eraso-aren bat pairatzeko beldurrez. Berariaz sortzen dute segurtasun falta handia argiztapen nahikorik ez duten lekuek, hiri-altzari gutxi dutenek eta ondo zainduta ez daudenek (polizia-zaintza apala dutenek), hala nola:

- Ezkaratzak.
- Eskailerak.
- Tunelak.
- Zuloak (edukiontzien artekoak, ezkaratzen artekoak, bazterrak, eskailerak, tunelak, arkupeak, lurpeko pasabideak, etab.).
- Erasoak isilik eta ezer entzun gabe egiteko aukera ematen duten lekuak (metroa oso gertu igarotzen delako, kotxe ugari pasatzen direlako, haietatik jende gutxi ibiltzen delako, etab.).
- Leku eta zabalgu berdeak (parkeak, zelaiak, etab.) eta bi herriren artekoak (batik bat, landa-eremuetan).

Oso bestelakoak dira jende asko ibiltzen edo denda ugari pilatzen dituzten lekuak, jendeak leku seguruak direla uste baitu, erdiguneetatik zertxobait aparte izan badaitezke ere. Alde horretatik, berariaz aipatzen dira gauez edo asteburuetan irekita izaten diren dendak, lasaitasuna ematen baitute, batik bat, jende askorik ibiltzen ez den lekuetan.

Seguruak ez diren egoerak bizitzeko arriskua ikusten badute, neurri hauek hartu ohi dituzte emakumeek:

- Ordu jakin batetik aurrera norbaitekin bueltatzen dira etxera edo norbaiti eskatzen diote haien zain egoteko.
- Kale jendetsuenetatik ibiltzen dira.
- Korrika edo pausu bizkorrean ibiltzen dira.
- Eskuan eramaten dituzte giltzak etxera iristen ari direla, lehenbailehen iristeko ezkaratzera.
- Taxia hartzen dute etxera itzultzeko.
- Ezkaratzean sartu arte itxaroteko eskatzen diote taxilariari.
- Gurasoei, bikotekideari edo lagunari bati eskatzen diote metroaren irteeran, geltokian edo bestelako lekuetan jasotzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalerritan egin diren Hiri Debekatuko Mapen laburpenak erakusten dira atal honetan. Udalerrietan zehaztu diren puntu beltzen kokapena jakiteko aukera ematen dute estekek.

Hurrengo zerrendan adierazten dira Euskal Autonomia Erkidegoan azken urteetan argitaratu diren udal-diagnostikoak, eta horietan kontsulta daiteke gaiari buruzko informazio zehatza, udalerrri bakoitzeko puntu beltzak adierazten baitituzte:

BASAURI

- *Urtea*: 2002.
- *Saila*: Basauriko Udaleko Berdintasun Saila.
- *Helburuak*: Genero-ikluspegitik aztertzea hirigintza.
- *Zer kolektiborekin lan egin da*: Aurretiazko lan batean, emakume gazteen talde batek 8 puntu gatazkatsu zehaztu zituzten, eta haiek baliatu ziren mapa bat editatzeko. Helburua izan da Basaurin ikasketa ertainak egiten dituzten ikasleei jakinaraztea neskek egindako gogoetak eta mapan editatutako emaitzak.
- *Esteka*: <http://berdintasuna.basauri.net/es/content/mapa-de-la-ciudad-prohibida>

BARAKALDO

- *Urtea*: 2009.
- *Saila*: Argitan. Emakumeari Aholku emateko Zentroa.
- *Esteka*: <http://www.herrikolore.org/index.php/herri-mugimendua/emakumea/789-argitan-presenta-el-informe-mapa-de-la-ciudad-perdida?.layout=default&date=2011-09-01>

ERMUA

- *Urtea*: 2003.
- *Saila*: Berdintasunerako Udal Kontseilua.
- *Helburuak*: Herriko jendearen bizitzak hartzen dituen agertokiari buruz hausnartzea.
- *Zer kolektiborekin lan egin da*: Herria ikasketa ertainak irakasten dituzten ikastetxeetako ikasleak.
- *Esteka*: http://www.ermua.es/pags/igualdad/documentos_interes/Mapa_Ciudad_Prohibida_IGUALDAD_02_09_06_2011_9_51_05.pdf

HERNANI

- *Urtea*: 2006-2007.
- *Helburuak*: Genero-ikuspegitik aztertzea herriko espazio publikoa.
- *Zer kolektiborekin lan egin da*: Hernanin DBHko 3. eta 4. maila egiten duten gazte guztiak.
- *Esteka*: <http://www.hirakolektiboa.org/blog/proyectos/mapa-de-la-ciudad-prohibida-de-hernani/>

GETXO

- *Urtea*: 2009.
- *Saila*: Getxoko Udaleko Berdintasun Zerbitzua.
- *Zer kolektiborekin lan egin da*: Getxoko emakume-taldeak.
- *Esteka*: http://www.getxo.net/castellano/noticias/igualdad/getxo_igualdad003.asp?MNU_Id=251

BILBAO

- *Urtea*: 2010-11.
- *Saila*: Berdintasunaren aldeko Bilboko Emakumeen Kontseilua.
- *Helburuak*: Emakumeen mugikortasuna eta askatasun-sentsazio handitzea Bilboko kaleetan. Emakumeen partaidetza, presentzia eta haiek ikusteko aukerak indartzen badira, kontseiluetako eragile guztiekin ados daiteke seguruak ez diren lekuen zerrenda, mugikortasuna eta askatasuna murrizten duten aldetik. Lekuen zerrenda adostu ondoren, barrutietako hirigintza-planen helburua izan behar du leku horiek eraldatzea.
- *Esteka*: http://www.bilbao.net/cs/Satellite?c=Page&cid=3000082641&language=es&pagelId=3000082641&pagename=Bilbaonet_%2FPage_%2FBIO_contenidoFinal

URIBE KOSTA

- *Urtea*: –
- *Saila*: Uribe Kosta Mankomunitateko Berdintasun eta Iraunkortasunerako Sailak.
- *Helburuak*: Herritar guztien iritzia eta ikuspuntuak batzea hirigintza-plangintzaren baitan, udalerrietan bizi diren pertsonen eguneroko bizitza erraztu eta haien bizi-kalitatea handitzeko: 1. Genero-ikuspegitik aztertzea hirigintza udalerrietan emakumeen taldeekin. Ekipamenduen, espazio publikoen, garraioen eta gainerako elementuen sareak aztertzea. 2. Web mapa elkarreragile baten bidez zabaltzea azterketa edo diagnostiko hori
- *Zer kolektiborekin lan egin da*: Mapa elektronikoa (EMUK), Uribe Kostako biztanle orok balia dezakeena ekarpenak egin eta arazoak berri emateko.
- *Esteka*: <http://www.emuk.uribekosta.org>

ONDARROA

- *Urtea*: 2004-2006.
- *Saila*: Ondarroako Udaleko Berdintasun Saila.
- *Helburuak*: Genero ikuspegitik azaltzea Ondarroako herritan guztiei inguruneari buruzko diagnostiko parte hartzaile bat. Emakumeen talde anitza batek 2004-2005 urteetan egindako tailerretan ateratako konklusioak biltzen ditu diagnostikoak.
- *Zer kolektiborekin lan egin da*: Herriko emakume askotarikoekin.
- *Esteka*: <http://www.hirakolektiboa.org/blog/proyectos/mapa-de-la-ciudad-prohibida-de-ondarroa/>

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

- *Esteka*: <http://www.euskalnet.net/plazandreok/castellano/principal/granportal.htm>

EIBAR

- *Esteka*: http://www.ekintenthinking.org/documents/67_hiria_kolektiboa.pdf

LAUDIO

- *Esteka*: <http://meipi.org/neskateka.meipi.php>

VITORIA-GASTEIZ

- *Esteka*: http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41430/es/contenidos/evento/urbanismo_inclusivo/es_urbincl/adjuntos/AnaOregi_%20y_%20ZuriñeElordi.pdf

Aurrera egiteko proposamenak

Espazio edo eremu publikoetan esku hartu behar da, erreferentziazko azterlanek adierazten duten moduan, alderdi fisikoan eraginez (egiaz eta modu eraginkorrean eraldatu behar dira espazio fisikoak, obra-proiektuak idatzi behar dira, lekuak garbitu, etab.), baina baita alderdi edo dimentsio sozialean ere (herritarren segurtasuna zaindu behar da, emakumeen presentzia ikusarazi, etab.).

Hauek dira, laburtuta, emakumeen proposamen batzuk:

- Azterlanak egitea puntu beltzak zehaztu eta haien segurtasuna indartzeko.
- Emakumeen iritzia aintzat hartzea hirian espazioak sortzean, haiek pairatzen baitituzte gehien argitasun gutxiko, seinaleztapen txarreko edo zaintzarik gabeko espazio edo eremuek dakartzaten arriskuak.
- Kristalez inguratutako igogailu publikoak jartzea malda handiko eta irisgarritasun zaileko lekuetan. Kristalezko leihoek lasaitasun-sentsazio handiagoa ematen dute, erasotzaileek atzera egiten baitute beren asmoetan.

- Gaueko argiztapena hobetzea eta gutxi ikusten diren zulo edo tarteak kentzea.
- Lurpeko tunelak ken daitezen sustatzea, pasabide argitsu eta seguruak jartzeko.
- Leku edo eremu gatazkatsuen argiztapena handitzea eta aldiro berrikustea instalazioak.
- Auzoetara joaten diren garraio publikoen orduak maiztea, gau-orduetan batik bat.
- Alarma-txirrinak jartzea lurpeko aparkalekuetako zutabeetan eta haien argiztapena hobetzea.
- Hirien erdiguneetako erabilera eta jarduerak dibertsifikatzea, ez daitezen izan lanaldiaren ondorez husten diren denden eta bulegoen eremuak.

7

KONKLUSIOAK

Txosten honetan adierazi diren ideia nagusiak azalduko ditugu atal honetan, emaitzak aurkeztean baliatu diren hiru ardatzak aintzat hartuta: indarkeriaren pertzepzioa eta hari buruzko ideia edo iritziak, indarkeriaren eragina eta segurtasun-pertzepzioa.

7.1.

EAE-KO HERRITARREK GENERO-INDARKERIARI BURUZ DUTEN PERTZEPZIOA ETA IRITZIA

Larritzat hartzen al dute herritarrek genero-indarkeriaren arazoa?

Galdetuak izan diren pertsona gehien gehienek (% 82,2k) uste dute gizarte-arazo oso handia (oso larria) dela genero-indarkeria, eta arazoa larria dela uste duten pertsonen ehunekoa ere aintzat hartzen badugu, portzentajea % 98,1ekoa da.

- Galdetuak izan diren *emakumeek* joera handiagoa dute gizonek baino arazoa oso larria dela adierazteko (emakumeen % 85,1ek irizten dio horrela eta gizonen % 79,2k).
- Adinak ez du alde adierazgarririk erakusten emaitzetan, baina gazteek (16-29 urte bitarteko pertsonen) gizarte-arazo horren larritasuna erlatibizatzeko joera dute (arazoa oso larritzat jotzen dute gazteen % 80,4k eta 65 urtetik gorako pertsonen % 84,2k).
- Sexuaren arabera oro har ikusten diren alde edo diferentziak –emakumeek irmotasun handiagoz adierazten dute arazoaren larritasuna– handigoak eta adierazgarriagoak dira 65 urtetik gorako emakume eta gizonen artean (emakumeen % 89k uste du arazoa oso larria dela eta gizonen % 77,6k).
- Galdetuak izan diren gizonen kasuan, bikotekidea izateak badu eraginik arazoaren larritasunari buruzko iritzian, larritasun handiagoa ematen baitiote arazoari egun bikotekidea dutenek (% 81,1ek iritzi dio oso larria eta % 74,2k, hurrenez hurren).
- Pertsonen ideologiak ere alde adierazgarriak erakusten ditu gaiari buruz herritarrek duten iritzia adierazterakoan. Alde hori nabarmenagoa da gizonen kasuan. Beren burua ezkerreko ideologiaren baitan jartzen duten gizonek joera handiagoa dute gainerako ideologiakoek baino arazoa oso larritzat ikusteko.

Galdetutako jendearen ustez, zer-nolako bilakaera izan dute indarkeria-mota horretako kasuek?

Galdetuak izan diren hiru pertsonetatik bik uste du handitu egin dela azken urteetan emakumeen aurkako indarkeria, % 30ek uste du mantendu egin dela eta % 3,7k uste du gutxiago dagoela gaur egun.

- Gizonek eta emakumeek modu ezberdinean ikusten dute gaia, eta azken horiek uste dute, batik bat, handitu egin dela emakumeen aurkako indarkeria (% 75,4 eta % 57,8 hurrenez hurren).
- Sexuaren arabera aldeak errepikatzen dira gazteen artean, baina alde horiek, alderdi kuantitatiboan, apalagoak dira herritar guztiei batez besteko datuen aldean (emakume gazteen % 58,1ek uste du handitu egin dela indarkeria eta gizon gazteen % 48,6k du iritzi hori bera).

- Pertsonen adina zahartu ahala, handitu egiten da azken urteetan indarkeria-kasuen kopurua handitu egiten dela pentsatzeko joera (16 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 53,2k esaten du handitu egin dela eta % 77,7 dira hori pentsatzen dutenak 65 urtetik gorako pertsonen artean).
- Zenbat eta handiagoa izan pertsonak genero-indarkeriari ematen dion larritasuna, orduan eta nabarmenagoa izaten da pertsona horiengan azken urteetan kasuen kopurua handitu egin dela pentsatzeko joera.

EAEko herritarren iritziz, gizonek zer-nolako sentsibilizazio-maila dute genero-indarkeriarekiko?

Euskal gizarteak uste du gizonek genero-indarkeriarekiko duten sentsibilizazio-maila 6,2 puntukoa dela Otik 10erako eskala batean.

- Emakumeen iritzia nabarmen kritikoagoa da gizonena baino (emakumeen 5,8 puntuko balorazioa egiten dute eta gizonen 6,6koa).
- Alde adierazgarriak ikusten dira adinaren arabera: 65 urtetik gorako pertsonen uste dute gizonen sentsibilizazio-maila apalagoa dela genero-indarkeriarekiko (5,7 puntu). Alde hori azaltzen duen arrazoiak *65 urtetik gorako emakumeek* puntuazio apalak ematen dituztela (65 urtetik gorako emakumeek 5,2 puntu ematen dituzte batez beste, eta adin-talde horretako gizonen, berriz, 6,4 puntu ematen dituzte).
- Emakume gazteak ez dira gizon *gazteak* bezain baikorrak, baina puntuazio-aldeak txikiagoak dira (6,0 puntu ematen dituzte emakume gazteek eta 6,5 puntu gizon gazteek).

Nola ikusten du gizarteak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaia?

Euskal herritarrek uste dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasun maila 5,6 puntukoa dela Otik 10erako eskala batean.

- Berrirori ere, *emakumeen* iritzia nabarmen kritikoagoa da gizonena baino (emakume gehienek 5 puntuko balorazioa egiten dute eta gizonen 7koa).
- Kasu honetan, *adinak* ez dakar alde adierazgaririk, eta puntuazioak nahiko antzekoak dira adin-tarte guztietan.
- Gai honetan, gizonen kasuan, *seme-alabak izateak* aldeak dakartza berdintasun-mailari buruzko pertzepzioei dagokionez; izan ere, seme-alabak dituzten gizonen berdintasun-maila handiago bat hautematen dute (5,89 puntu azken hauek eta 5,67 seme-alabarik ez dutenak).
- Aldeak ikusten dira, halaber, galdetuak izan diren pertsonen etxeko *maila sozioekonomikoaren* arabera. Oro har, diru-sarrera handiak dituzten etxeetan (3.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituztenak hilean), baikorrak izaten dira berdintasun-maila baloratzean. Ezaugarri hori bereziki da nabarmena gizonen kasuan.

Zer mito eta sinesmen daude emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean?

Herritarrei galdetu zaie hamaika **mito** edo iritzi faltsuri buruz, eta emaitzek adierazten dute hauek direla euskal herritarren artean zabalduen daudenak: "Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa dago emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintza gehien atzean" (% 51,6 ados edo oso ados dago ideia horrekin); "Erasotzaileek arazo psikologikoak izan ohi dituzte" (% 47,8); "eraso gehienak estres han-

diko egoeretan edo momentuko kontrol-galeren ondorioz gertatzen dira” (% 46,6); “Etxean erasokorra den pertsona bat erasokorra izango da lanean edo lagunekin” (% 40).

Horrekin batera, zabalduenak ez badira ere, nabarmentzekoa da zenbat jende dagoen ados edo oso ados beste bi ideia hauekin: “emakumeek beraiek bultzatutakoak dira indarkeria-kasu batzuk” (% 27,9) eta “salaketa faltsu ugari jartzen dira emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan” (% 22).

- Mito horiek egiazkotzat hartzeko joera handiagoa erakusten dute *gizonek* emakumeek baino; hala ere, planteatu diren hamaika mitoetatik bitan soilik dira aldeak adierazgarriak.
- Gehien bat, *65 urtetik gorako pertsonak* dira mito eta uste faltsu horiek sinesten dituztenak; hala, aztertutako hamaika mitoetatik bederatzitan adierazten dute onarpen-indize nabarmen handiagoak.
- *Udalerri txikietan* (10.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan) joera handiagoa dago topiko horiek egiazkotzat jotzeko, udalerri handietan baino (alde nabarmenak ikusi dira hamaika itemetatik bostetan).
- Ikasketa-mailak, egiten den jarduerak eta diru-sarrerek badute mito horien pertzepzioarekiko eraginik. Oro har, *ikasketa-maila apalak* dituzten pertsonak, *erretiratura* dauden pertsonak eta *diru-sarrera apalak* dituztenak joera handiagoa dute topiko eta ideia faltsu horiek sinesteko. Hala ere, kontuan izan behar da hiru aldagai horiek adinarekin lotuta daudela (ezaugarri horiek dituzten adineko pertsonen ehunekoak herritar guztien batez bestekoetatik gorakoak izaten dira).
- Ikerlan honen laginak ez du baieztapen zorrotzik egiteko aukerarik ematen, baina badirudi *atzerri-tarrek* joera handiagoa izan dezaketela mitoak bere egiteko.
- Badirudi, halaber, *eskuineko ideologia izatea adierazten duten pertsonen* joera nabarmen handiagoa dutela adierazi zaizkien topikoak eta iritzi faltsuak bere egiteko. Badirudi ezaugarri horrek emakumeengan duela eragin handiena.

Euskal biztanleen ustez, nola jokatuko lukete indarkeria-mota horretako egoera jakin batzuen aurrean?

Herritarren % 7,8k adierazten du ez lukeela ezer egingo kalean bortxaketa bat ikusiko balu, beldurragatik, beren kontua ez dela uste dutelako edo zer egin ez dakitelako. Arrazoi horiek ematen ditu galdetutako biztanleriaren % 11,9k aldameneko etxebizitzan bizi den bikotea kolpeka eta oihuka entzunez gero ez luketela erreakzionatuko esateko, eta % 5,7k esateko ez luketela erreakzionatuko beren emakumezko lankide bateko edo emakumezko lagun on batek sexu-jazarpena pairatuko balu.

Bada egoera horien aurrean zer egin ez dakienik (% 4,7 kalean ikusitako bortxaketen kasuan, % 5 aldameneko bikotea kolpeka eta oihuka entzundakoan, eta % 4,2 lanean sexu-jazarpenerako kasuren baten berri izatean). Ez dira ehuneko adierazgarriak guztirakoekin alderatuta, baina badirudi pertsona horiek informazioa falta dutela (ez dakite zer baliabide dauden, zer urrats eman behar diren, etab.).

Euskal gizartearen ustez, zer-nolako lana egiten ari da Administrazioa arazo honi aurre egiteko?

Administrazioak genero-indarkeriaren arazoarekiko egiten duen lanaren balorazioa ez da aho batekoa herritarren artean: herritarren erdiaren ustez (% 54,9), administrazioak inplikazio txikia duela genero-indarkeriako kasuekiko, baina, era berean, herritarren ehuneko handi batek (% 45,1ek) uste du inplikazio nahikoa edo handia duela haiekiko.

- *Emakumeek* dute iritzi kritikoena (emakumeen % 58,4k uste du erakunde publikoek inplikazio txikia duela edo ez dela ezer ere inplikatzeko, eta iritzi horretakoa da gizoneen % 51,3).

- *Gazteek* (16-29 urte bitartekoak) dute Administrazioaren lanari buruzko iritzi onena; aitzitik, 65 urtetik gorako herritarrek dute iritzi txarra lan horri buruz (gazteen % 51,1ek uste du ez dela ezer ere inplikatzeko edo oso gutxi inplikatzeko dela eta adineko pertsonen % 61ek du iritzi hori bera).

Herritarren gehiengoak (% 85ek) dio ez duela Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza ezagutzen.

Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza ezagutzen duten pertsonen 6,6 puntuko balorazioa ematen diote, batez beste, 10 puntuko eskala batean.

- Ez da alde adierazgarririk *gizon eta emakumeen artean*, ez Zuzendaritzari buruzko ezagutza-mailan (% 14,1 eta % 15,5 hurrenez hurrez), ez hura ezagutzen dutenek egiten duten balorazioan (6,5 eta 6,7).
- Herritar gazteak dira Zuzendaritza gehien ezagutzen dutenak (29 urtetik beherako herritarren % 17,6k ezagutzen du, eta, horren ifrentzuan, 65 urtetik gorako herritarrak, haien % 9,0k ezagutzen baitu), baina adin-taldeek ez dute alde handirik erakusten hark egiten dituen ekintzak baloratzeko garaian.
- Nabarmen gehiago ezagutzen dute Zuzendaritza genero-indarkeriaren biktimea izan direla aitortu duten emakumeen artean (emakume horien % 28,5 ezagutzen du eta indarkeria pairatzerik aitortzen ez dutenen % 13,5ek ezagutzen du). Emakume horiek, beren aldetik, balio handiagoa ematen diote Zuzendaritzaren lanari (7 puntu ematen diote eta besteek 6,69 puntu).
- Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza ezagutzen duten pertsonen ehunekoa handitu egiten da emakumeen aurkako indarkeria-kasuen bat gertu bizi dutenen artean (ezaugarri hori dutenen % 25ek ezagutzen dute eta ezaugarri hori ez dutenen % 13k ezagutzen dute). Antzeko balorazioa egiten dute batzuek zein besteek (6,60 eta 6,67).
- Datuak orientazio-moduan soilik hartzekoak badira ere, *50 urte baino gutxiago dituzten emakume atzerriarrek* Zuzendaritza gehixeago ezagutzen dutela eta haren lana hobetu baloratzen dutela dirudi.

Nola baloratzen du euskal gizarteak komunikabideek genero-indarkeriako kasuei ematen dien tratamendua?

Iritziak ez dira aho batekoak komunikabideek genero-indarkeriako kasuak nola azaltzen dituzten baloratzeko garaian: galdetuak izan diren pertsonen % 42,9k uste du indarkeria-kasuen tratamendua nahiko edo oso egokia dela, eta % 57,1ek uste du egokitasun urrikoa dela edo ez dela batere egokia.

- Biztanleria osoaren ikuspegia hartuta, sexuak eta adinak ez dute alde adierazgarririk ezartzen gaiari buruz, baina, *emakumeen erantzunak* modu berezitan aztertuz gero, alde adierazgarriak ikusten dira *adin-taldeetan*. Zehazki, 16 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 48,3k uste du komunikabideen tratamendua egokitasun urrikoa dela edo ez dela batere egokia, eta ehuneko hori, berriz, % 60tik gorakoa da 50 urtetik gorako emakumeen kasuan.

7.2.

GENERO-INDARKERIAREN ERAGINA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Euskal gizarteak zer neurritan ezagutzen ditu genero-indarkeriako kasuak?

Galdetuak izan diren pertsonen % 9 inguruk esan du gaur egun genero-indarkeriaren biktima den gutxie-nez emakumeren bat ezagutzen duela bere inguruan, eta ehuneko hori % 10ekoa da, baldin eta, ziurtasun erabatekorik ez izan arren, kasuren baten susmoa hartzen duten pertsonak zenbatuz gero.

Biktima gehien-gehienak *ezagunak* (% 42,5) edo *lagunak* (% 38,9) dira. Kasu guztien % 2 soilik dira *familiako emakumeren bati* eragiten diotenak.

- Gizonek baino indarkeria-kasu gehiago ezagutzen dituzte *emakumeek* (emakumeen % 11,2 eta gizonen % 8,6).
- *Gazteek* (16-29 urte bitartekoek) ezagutzen dituzte indarkeria matxistako kasu gehien (% 12,2k). Adinak gora egin ahala, jaitsi egiten da, pixkanaka, kasuen ezagutza.
- Indarkeria-kasuen ezagutzak modu adierazgarrian egiten du gora *genero-indarkeriaren biktimak izan direla edo gaur egun direla adierazten duten* emakumeen artean.

Zenbat emakumek pairatu dute noizbait genero-indarkeria? Zenbatek pairatzen du horrelako egoeraren bat gaur egun? (Indarkeria adierazia)

EAEn 16 urte edo gehiago dituzten emakumeen % 12,5ek –kalkuluen arabera, 231.556 emakumek, gutxi gorabehera– pairatu du bere bizitzan emakumearen aurkako indarkeria matxistako motaren bat, zehaztu ditugun lau eremu edo esparruetakoren batean. Horietatik, % 2k (37.049 emakumek) esaten du gaur egun ari dela egoera hori pairatzen.

Oro har, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria da; izan ere, galdetuak izan diren emakumeen % 7,5ek adierazi baitu indarkeria pairatu izan duela eremu horretan bere bizitzan. Gaur egun, EAEn 16 urte baino gehiago dituzten emakumeen % 1,2k pairatzen du indarkeria esparru horretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen % 1,79k pairatu du inoiz familia barruan genero-indarkeria –bikotekidea edo bikotekide ohi ez diren senideek eragindakoa–, eta gaur egun emakumeen % 0,67k pairatzen du, gutxi gorabehera.

Bestalde, kontsultako datuek esaten dute lan ordaindua duten edo izan duten emakumeen % 1,8k indarkeria pairatu dutela lan-esparruan, hau da, emakume guztien % 1,42k pairatu du inoiz indarkeria esparru horretan. Gaur egun, lanean ari diren emakumeen % 0,4k paira dezakete indarkeria esparru horretan.

Horrez gainera, emakumeen % 2,7k pairatu du bizitzan inoiz emakumearen aurkako indarkeria eremu sozialean edo espazio publikoan (ezagunak ez diren pertsonen eragindako indarkeria edo familiakoak ez diren ezagunek eragindakoa).

Indarkeria psikologikoa da gehien erabiltzen den indarkeria-mota, eta haren atzetik dago, oso urrun, indarkeria fisikoa. Genero-indarkeriaren biktima izan direla adierazi duten emakumeen % 78,4k –emakume guztien % 9,8k– aitortu du indarkeria psikologikoa pairatu duela behin edo behin bere bizitzan.

Indarkeria-eremua alde batera utzita, indarkeria-egoerak pairatzen dituzten emakumeen % 23,1ek egoera hori pairatzen du duela urtebete baino gutxiagotik, eta % 30,8k pairatzen du duela urte 1 eta 5 urte bitarteko epe batean. Bestalde, % 30,8 dira egoera horretan 10 urte baino gehiago daramatzatenak.

Oro har, genero-indarkeria pairatu dutela aitortzen duten emakumeen % 75ek ez du egoera salatu, eta indarkeriaren biktima izan direla aitortzen duten emakumeen soilik % 17,2k adierazten du kasu horiei arreta emateko baliabide espezializaturen bat erabili duela.

Indarkeria pairatzen duten emakumeek askotariko ezaugarriak dituzte beren adinari, lan-egoerari, baliabide ekonomikoei eta bestelako ezaugarriei dagokienez, baina indarkeria matxistako kasuen prebalentzia handiagoak topatu dira zenbait taldetan:

- Oro har, indize edo ehunekoak handiagoak dira *30 eta 39 urte bitarteko emakumeen artean* (emakume horien % 18,9k pairatu du behin edo behin indarkeria eremu edo esparruren batean). Hala ere, familia barruko genero-indarkeriaren esparruan, bikotekidea eta bikotekide ohiak eragindako indarkeria kontuan hartzen ez duen eremuan, 40 eta 64 urte bitarteko emakumeek dute prebalentzia handiena.
- Oro har, prebalentzia handiagoa da Lanbide Heziketako ikasketak, bigarren hezkuntzakoak eta unibertsitate-tituluak dituzten emakumeengan, baina azken horien tasa ez da nabarmentzen bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren esparruan. Edonola ere, ez da lotura edo harreman argirik ikusten *ikasketa-maila* handiagoa edo txikiagoa izatearen eta indarkeria jasatearen edo ez jasatearen artean.
- Indarkeriaren biktima diren emakumeen tasa nabarmen handiagoa da *lanik ez duten emakumeen* taldean (% 21,6 da lanik gabeko emakumeen tasa, eta % 12,5 batez bestekoa), eta haien atzetik dator lanean ari diren emakumeen taldea.
- Prebalentzia handiagoa ikusten da, halaber, *1.000 € baino gutxiago* irabazten duten etxeetan bizi diren emakumeen artean.
- *Egoera zibila* da, ziur asko, alde handienak erakusten dituen aldagaia indarkeria-matxistaren gailorrean. Genero-indarkeria pairatu duten edo pairatzen duten emakumeen ehunekoak handiagoak dira emakume dibortziatu eta bananduen artean.
- Familia-esparruko indarkeriaren biktima diren emakumeen gehiengoa ez da atzeritarra, baina emakume atzeritarrek oro har biztanlerian duten ordezkapenari dagokiona baino handiagoa da *atzerriko emakumeek* indarkeria-kasuetan suposatzen duten ehunekoa.

Zer ezaugarri ditu bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriak?

Galdetuak izan diren emakumeen % 7,5ek adierazi du indarkeria-mota hori pairatu duela bizitzan behin edo behin. Gaur egun, EAEn 16 urte baino gehiago dituzten emakumeen % 1,2k, gutxi gorabehera, pairatzen du indarkeria esparru horretan.

Beren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatzen ari direla dioten emakumeen % 68,8k ditu seme-alabak. Emakume horiek 2 seme-alaba dituzten batez beste; beraz, 30.413 seme eta alabak bizi ditzakete egoera horiek etxean. Horrez gainera, gaur egun indarkeria-mota hori pairatzen

dutela uste duten emakumeen % 27,3k du adingabeko seme-alabaren bat (emakume bakoitzak 2 seme-alaba ditu batez beste); hori horrela, 13.708 haur (hau da, 18 urtetik beherako herritarren % 4,11) izan daitezke EAEn tratu txarren lekuko, eta, ondorioz, indarkeria horren biktima.

Gaur egun egoera horretan dauden emakumeen ia erdiak (% 46,7) 10 urte baino gehiago darama egoera horretan.

Bikotekideak eragindako genero-indarkeria pairatzen ari direla edo pairatu dutela dioten emakumeen % 57,5ek hautsi du bikote-harremana. Salaketa aurkeztu dute emakumeen % 27,3k eta % 21,2 dira arreta-baliabide espezializaturen bat erabili dutenak.

Indarkeria-mota horretako prebalentzia-tasak batez bestekotik gora daude emakume hauen artean:

- 30 eta 39 urte bitarteko emakumeak.
- Lanbide heziketa eta bigarren mailako ikasketak dituztenak.
- Langabezian dauden emakumeak.
- Maila sozioekonomiko apaleko emakumeak.
- Emakume dibortziatu eta bananduak.
- Atzerriko herritartasuna duten emakumeak.

Genero-indarkeriako zer egoera bizi dituzte emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoan? (Indarkeria ondorioztatua/teknikoa)

Galdera jakin batzuei ematen dieten erantzunei erreparatuta, emakumeen aurka indarkeria erabiltzen den ala ez ondoriozta daiteke, alde batera utzita haiek indarkeriaren biktima diren aitortzen duten ala ez duten aitortzen. Galdera horiek adierazle zuzen eta zeharkakoak baliatzen dituzte, esparru anitzetan emakumeen aurka ematen diren indarkeria matxistako kasuak hautemateko.

Emakumeen % 18,2k bizi izan du azken urtean nolabaiteko maiztasunez galdetu zaizkien indarkeria-egoeretako gutxienez bat (esparru guztiak aintzat hartuta). Hori horrela, ikusten da diferentzia nabarmena dagoela adierazitako indarkeriaren (emakumeen % 2k aitortu du gaur egun biktima sentitzen dela) eta adierazpen horien atzean dagoen indarkeriaren artean (pentsatzekoa da, kalkuluaren arabera, emakumeen % 18,2 pairatzen duela nolabaiteko maiztasunez genero-indarkeriako egoeraren bat).

Zer esparru edo eremutan gertatzen den alde batera utzita, indarkeria psikologikoa da gehien erabiltzen dena. Beste zenbait egoera batzuen artean, nabarmentzekoa da emakumeen % 6,8k dioela sarri edo batzuetan ez dela baloratzen egiten duten lana; emakumeen % 4,5ek esaten du azken urtean ironia baliatu dela haien aurka eta ez direla baloratuak izan beren sinesmenak; eta emakumeen % 4,1ek oihuak, irainak eta mehatxuak jasan behar izan ditu.

Galdetuak izan diren emakumeen % 8,5ek bizi izan du azken urtean planteatu zaizkien indarkeria-egoeretakoren bat beren bikotekidearen edo bikotekide ohiarengandik. Egoerak sarritan gertatzen zaiela erantzun du emakumeen % 6,3k.

Indize edo ehunekoak apalagoak dira familia barruko genero-indarkeriaren kasuan, hau da, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria kontuan hartu gabe familian ematen den indarkerian kasuan; izan ere, galdetuak izan diren emakumeen % 4,5ek aitortzen du indarkeria-mota hori pairatu izan duela azken urtean nolabaiteko maiztasunez.

Eremu sozial edo esparru publikoan sarritan edo batzuetan indarkeria-egoerak –indarkeria-egoera horiek familiatik kanpoko pertsonen eragindakoa da, ezagunak izan ala ez– bizi izan dituztela adierazten duten emakumeen ehunekoak % 9,3koa da, eta lan-esparruan halakoak pairatu dituztela adierazi dute emakumeen % 7,2k.

Ehuneko horiek nabarmen handiagoak dira emakumeek beraiek adierazitako indarkeria-kasuetan biltzen direnak baino; beraz, pentsa daiteke kontzientziazio-maila apalagoa dela emakumeek eremu horietan pairatzen dituzten indarkeria-motetik.

Ondorioztatutako indarkeriaren indize handiak hauteman dira 40 urtetik beherako emakumeen artean, eta horrek adierazten digu oso kontuan izan behar dela zer-nolako arriskuak dakartzan gazteen artean zabaldua dagoen "itxurazko" berdintasuna.

- Ondorioztatutako tratu txarren datuek adierazten dute 30 eta 39 urte bitarteko emakumeak di-rela prebalentzia handiena dutenak *bikotekideak* edo *bikotekide ohiak* eragindako indarkeriaren esparruan, eta haien atzetik datoz 50 eta 64 urte bitartekoak. Galdetuak izan diren 30 eta 39 urte bitarteko emakumeen % 8,6k bizi izan du azken urtean planteatu zaizkien 23 indarkeria-egoeretatik gutxienez bat. Halaber, 30 eta 39 urte bitartean dituzten emakumeen % 9,8k bizi izan du gutxienez bat nolabaiteko maiztasunez eta horixe bera gertatu zaie 50 eta 64 urte bitarteko emakumeei.

Kasuen prebalentzia batez besteko orokorretik goragokoa da 29 urte baino gutxiago dituzten emakumeengan, honako egoera hauetan: "irainak, oihuak eta mehatxuak", "lotsagarri uzten zaitu beste pertsona batzuen aurrean", eta, "haserretzen denean, maite dutenek pairatzen dute haren haserrea". Horrez gainera, ehunekoak handiak dira emakume-talde horrengan honako alderdi hauetan: "zenbaitetan beldurra ematen dizu"; "errudun sentiarazten zaitu ez duzulako behar bezala zaintzen/ulertzen"; "ez dizu familia ikusten uzten edo harremanak izatea lagunekin, auzokoekin eta bestelako jendearekin"; "ordutegiak kontrolatzen dizkizu; eta telefonoa, posta eta/edo sare sozialetan egiten dituzunak kontrolatzen ditu".

- Aintzat hartzen badira *familian gertatzen diren genero-indarkeriako* kasuak (ez da hor sartzen bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria), 50 eta 54 urte bitarteko emakumeak dira kasuen prebalentzia handiena erakusten dutenak.
- Azken urtean, 40 urtetik beherako emakumeak izan dira *lan-esparruan* indarkeria-egoera gehien pairatu dituztenak.
- Halaber, eremu sozial edo publikoari erreparatuz gero, askoz ugariagoak dira izan dira azken urtean genero-indarkeriako kasuak gazteen artean (16-29 urte bitartekoak); izan ere, % 42,5ek bizi izan du gutxienez indarkeria-egoeraren bat. Ehuneko hori % 11,2koa da 65 urtetik gorako emakumeen artean.

Askoz handiagoa da gaueko eremuetan eta leku bakandu edo ilunetan pasatzean sexu-izaerako indarkeria-egoerak bizi izan dituzten emakumeen ehunekoa 30 urtetik beherako emakumeen artean gainerako adin-tarteetako emakumeen artean baino. Zehazki, kaletik jarraituak izatea (% 11,3), sexu-exhibizionismoko egoerak ikustea (% 13,7) eta jazarpena edo nahi gabeko igurtziak pairatzea lokaletan (% 13,2). Adin-talde horretako emakumeek pairatzen dute gehien, halaber, Internet bidez eta informazioaren eta komunikazioaren beste teknologia batzuetatik eragiten den indarkeria (mezu iraingarriak edo pornografikoak, etab.).

7.3.

EAE-KO HERRITARREK SEGURTASUNARI BURUZ DUTEN IRITZI EDO PERTZEPZIOA

Seguru sentitzen al dira herritarrek bizi diren zonaldean?

Euskal herritar gehienak seguru sentitzen dira bizi diren zonaldean. Galdetuak izan diren hamar pertsonatik bederatzik uste du bere bizilekua oso edo nahiko segurua dela. Segurtasun-pertzepzio orokorra okertu egiten da gauez bakarrik ibiltzeko gaiari buruz galdetuz gero. Izan ere, kasu horretan, % 22,4 dira ez direla batere seguru sentitzen edo segurtasun gutxi sentitzen dutela.

- Kasu bietan aldeak ikusten dira Lurralde Historikoaren arabera; izan ere, Gipuzkoa sentitzen da seguru bi kasuetan eta Araba da segurtasun gutxien sentitzen duena.
- Segurtasun orokorrari buruzko pertzepzioaren datuei erreparatuz gero, ez da alde adierazgarririk ikusten gizonen eta emakumeen artean; hala ere, gizonek joera nabarmen handiagoa dute beren udalerrira *oso segurua* dela esateko (gizonen % 31,4k esaten du hori eta emakumeen % 18,1ek), Diferentzia nabarmenak ikusten dira, ordea, bizi diren lekuan *gauez bakarrik* ibiltzean bizi duten segurtasun-sentsazioaz galdetzean gizonen eta emakumeen. Hala, *emakumeen* % 31 ez da batere seguru sentitzen edo segurtasun gutxiarekin sentitzen da egoera horretan, eta gizonen % 13 sentitzen da horrela ataka berean. Bere horretan diraute kasu honetan ere sexuen arteko aldeak, eta horiek bereziki dira nabarmenak *gazteen artean*.
- Adinaren arabera irakurritz gero estatistikak, alde adierazgarriak ikusten dira. *Adin handieneko pertsonak* adierazten dute, irmotasun handienaz, beren auzoa oso segurua dela, baina haiek dira, hain justu, sarrien esaten dutenak beren auzoa ez dela segurua edo segurtasun urrikoa dela gauez bakarrik ibiltzean. Hala ere, *emakume gazteen* taldeak erakusten ditu segurtasun gabeziako indize handienak gauez (% 40k esaten du ez dela batere seguru sentitzen edo segurtasun gutxi sentitzen duela), adineko emakumeen gainetik.
- *Herri txikietan* bizi diren pertsonak dute beren gertuko ingurunea oso segurua sentitzeko joera handiena (bai oro har, bai gauez) eta sentipen hori bereziki da azpimarragarria emakumeen artean.

Hasiera batean, lapurretak dira euskal herritarrek beren zonaldean arriskugarrien ikusten duten delituetako bat. Herritarren % 35,2k uste du nahikoa edo oso gertagarria dela lapurretaren baten biktima izatea bizi diren lekuko etxebizitzaren edo lokalen batean, eta hamar pertsonatik ia hiruk uste du lapurretaren baten biktima izan daitekeela ibilian (poltsa lapurtzea, diru-zorroa, etab.). Herritarren % 13,8k uste du eraso fisikoren edo indarkeriaz edo mehatxuz egindako lapurretaren baten biktima izan daitekeela, eta % 10,2k adierazten du sexu-erasoren baten biktima izateko beldurra duela.

- Lurralde Historikoak aztertuz gero, ikusten da *arabarrek* dute joera handiena pentsatzeko beren bizileku-zonaldean aukera nahiko edo oso handiak dituztela gertakari horiek eman daitezen.
- Delitu baten biktima izateko aukeren pertzepzioa nabarmen handiagoa da *hiriburuetan* herri txiki-tan baino, delitu honen kasuan izan ezik: etxebizitzan edo lokalean lapurreta egitea.
- *Gizonek eta emakumeek* ez dituzte berdin ikusten delitu baten biktima izateko aukera edo probabilitateak; hala, gizonek baino probabilitate nabarmen handiagoak ikusten dituzte emakumeek.
- Gazteen adin-taldea da eraso fisiko baten biktima izateko probabilitate handienak ikusten dituenak, eta talde hori da, era berean, etxebizitzan edo lokalean lapurreta bat izateko arrisku gutxiena ikusten duena. Adineko gizonak dira azken delitu hori pairatzeko arrisku handiena ikusten dutenak. Adinak gora egin ahala, handitu egiten da ibilian lapurretaren baten (poltsa, diru-zorroa edo bestelakoak kentzeko lapurretaren baten) biktima izateko arriskuaren pertzepzioa; hala ere, 40-49 urte bitarteko pertsonak dira horren salbuespena.

Nolakoak dira emakumeei segurtasun gabeziako sentsazio handiena sortzen dieten lekuak?

Zenbait lekutara ez joateko ahalegina egiten dutela aitortzen dute emakumeek, batik bat gauez, ez direlako seguru sentitzen horietan. Horrenbestez, murriztu edo mugatu egin zaie mugikortasuna eta askatasuna. Emakumeen ustez, hauek dira *lekuek seguru izateko bete behar dituzten baldintzetako batzuk*:

- Ingurunea erraz ezagutzea, erraz jakitea non zauden eta nora joan behar duzun.
- Ikustea eta ikusia izatea.
- Entzutea eta entzuna izatea.
- Beti ikustea irteeraren bat edo laguntza eskatzeko lekuren bat.
- Ingurua garbia eta zaindua egotea.
- Espazio publikoetan taldean egitea gauzak.
- Komunitate baten partaide izatearen sentimendua.

Seguruak ez diren egoerak bizitzeko arriskua ikusten badute, neurri hauek hartu ohi dituzte emakumeek:

- Ordu jakin batetik aurrera norbaitekin bueltatzen dira etxera edo norbaiti eskatzen diote haien zain egoteko.
- Kale jendetsuenetatik ibiltzen dira.
- Korrika edo pausu bizkorrean ibiltzen dira.
- Eskuan eramaten dituzte giltzak etxera iristen ari direla, lehenbailehen iristeko ezkaratzera.
- Eskura izatea sakelako telefonoa.
- Taxia hartzen dute etxera itzultzeko.
- Ezkaratzean sartu arte itxaroteko eskatzen diote taxilariari.
- Gurasoei, bikotekideari edo lagunari bati eskatzen diote metroaren irteeran, geltokian edo bestelako lekuetan jasotzeko.

8

BIBLIOGRAFÍA

- ALBERDI, I.; MATAS, N. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. Bartzelona: La Caixa Fundazioa, Gizarte-ikasketen bilduma. 10. zk., 2002.
- ARARTEKOA. *Erantzun instituzionala EAE emakumeen aurkako indarkeriari. Txosten berezia Eusko Legebiltzarrari*. Vitoria-Gasteiz: Arartekoa, 2003.
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. Gizartekintza Departamentua. *Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. 2009ko emaitzak eta 2005-2009 epeko emaitzen konparaketa Bizkaiko Lurralde Historikoan*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, Gizarte Ekintzako Saila, 2009.
- *Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. Bizkaian egindako ikerketa baten emaitzak*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, Gizarte Ekintzako Saila, 2006.
- BONINO, L. *Los micromachismos. La Cibeles*, 2004, 2. zk., 1-4 or.
- CIS. SOZIOLOGIA IKERKETEN ZENTROA. *Macroencuesta de violencia de género 2011*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Estatu Idazkaritza, Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza, 2012.
- *Barómetro 2011*. [linean] [Madril, Espainia] CIS, 2011 [2012ko martxoak 3]. Web-orri honetan eskuragarri: < http://www.cis.es/cis/opencm/ES/11_barometros/index.jsp>.
- DURÁN, M^a. A. *La ciudad compartida. Conocimiento, afecto y uso*. Santiago. Txile. SUR edizioak, 2008.
- EDE FUNDAZIOA. GIZARTE-IKERKETAKO ZERBITZUA. *Adinaren aldagaia genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeen interbentzioan*. Bilbo, 2011.
- EDE FUNDAZIOA. GIZARTE-AZTERKETARAKO ZERBITZUA. *EAEn bakarrik dauden emakumeen gizarte-bazterketako prozesuak*. Bilbao: Emakunde, 2004.
- EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA. *IV Informe Anual del Observatorio estatal de violencia sobre la mujer*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Estatu Idazkaritza, Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza, 2011.
- EMAKUMEAREN INSTITUTUA. *Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko III makroinkesta. Emaitzen txostena. Madril*. Madril: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, Berdintasun Politiken Idazkaritza Nagusia, 2006.
- *Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko III makroinkesta*. Madril: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, Berdintasun Politiken Idazkaritza Nagusia, 2002.
 - *Las violencias cotidianas cuando las víctimas son mujeres*. Madril: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, 2001.
 - *Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko makroinkesta*. Madril: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, Berdintasun Politiken Idazkaritza Nagusia, 1999.
- EMAKUNDE. *Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako EAEko V. Plana - IX. Legegintzaldiko irizpideak*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2010.
- *Emakumeen aurkako indarkeria 2009*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2009.

- *Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako EAEko IV. Plana - VIII. Legegintzaldiko irizpideak*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2006.
- EUROPAKO BATZORDEA. ENPLEGU, LAN-HARREMAN ETA GIZARTE-GAIETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA. *Cien palabras para la igualdad. Glosario de términos relativos a la igualdad entre hombres y mujeres*. Brusela: Europako Batzordea, 1998.
- EUROPAKO BATZORDEA. CITY&SHELTER, FOPA, PRAXIS ETA SEIROVNIROV. *Hirian bizi den Emakumearen Europako Gutuna*. Brusela: Europako Batzordea, Gizarte Gaietako eta Aukera Berdintasunerako Zuzendaritza, Emakumeen Lobby Europarra, 1994-95.
- EUROPAKO PARLAMENTUA. KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA NAGUSIA. Flash Eurobarometro, 341. Genero-desberdintasunak Europar Batasunaren (linean) (Brusela, Belgika) . Erabilgari web honetan: <http://www.europarl.es/ressource/static/files/PDF/eb_flash_341_analytical_synthesis_es.pdf>.
- EUSKO JAURLARITZA. *Genero-indarkeriaren aurka egiteko Jaurlaritzaren I. Jarduera Plana 2011-2013*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritza, 2011.
- *Sexu-erasoak. Nola bizitzen diren, nola ulertzen diren, eta nolako arreta ematen zaien*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritza, 2011.
 - *Genero Indarkeriak EAEn 2011ko lehen sei hilekoan erakutsitako Balantzea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritza, 2011.
 - *Genero Indarkeriak EAEn 2010ean erakutsitako Balantzea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritza, 2011.
 - *Genero Indarkeriaren biktime diren emakumeak: bizipenak eta eskariak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saila, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, 2012.
 - *Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeak EAEn. 2010. urteko txostena*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritza, 2011.
 - *Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeak EAEn. 2009. urteko txostena*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritza, 2010.
- EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. *EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa*. Vitoria-Gasteiz: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2011.
- EUSTAT. *Udal biztanleriaren eguneraketa (APM) 2009/12/31ean* [linean] [Vitoria-Gasteiz, EAE] EUSTAT, 2010 [erref. 2012ko otsailak 15]. Web-orri honetan eskuragarri: <http://www.eustat.es/estadisticas/tema_159/opt_0/ti_Poblacion/temas.html#axzz1pAsqOPOL>.
- *Biztanleria eta Etxebizitza Estatistika*. [linean] [Vitoria-Gasteiz, EAE] EUSTAT, 2006 [Erref. 2012ko otsaila]. Web-orri honetan eskuragarri: <http://www.eustat.es/estadisticas/tema_159/opt_0/ti_Poblacion/temas.html#axzz1pAsqOPOL>.
 - *Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta*. [linean] [Vitoria-Gasteiz, EAE] EUSTAT, 2011 [Erref. 2012ko urtarilak 19]. Web-orri honetan eskuragarri: <http://www.eustat.es/elementos/ele0000200/tbl0000215_c.html#axzz1pvZaGQVC>
- FALCÓN, L. *La razón feminista*. Madril: Reivindicación Feminista, 1994.

- GENERO-INDARKERIAREN BIZKAIKO BEHATOKIA. *Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologia alorreko proposamenak. Erakunde arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, 2005.
- HIRI KOLEKTIBOA. *Hirigintza-azterketako mapak egiteko gidaliburu metodologikoa, genero-ikuspegia eta herritarren eguneroko bizitza aintzat hartuta Hiri Debekatuaren Mapak EAEko udalerrietan*. Vitoria-Gasteiz: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, 2010.
- IBAÑEZ, M.; LEZAUN, Z.; SERRANO, M; TOMAS, G. *Sexu-jazarpena lan-esparruan. Eragina EAEn*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 2007.
- INDARKERIA IKERTZEKO UNIBERTSITATE INSTITUTUA-ICRS. *Txostena. Mujeres asesinadas por su pareja. España (2000-2009)*. Madril: Valentziako Nazioarteko Unibertsitatea, Reina Sofía zentroa, Institutua, 2010.
- INTERNATIONAL AMNESTY. *Informe Anual 2011. El estado de los derechos humanos en el mundo*. Madril: Amnesty International (EDAI), 2011.
- *La trampa del género: mujeres, violencia y pobreza*. Madril: Amnesty International (EDAI), 2009.
- KATALUNIAKO EMAKUMEEN INSTITUTUA; BARTZELONAKO UDALEKO EMAKUMEEN ZINEGOTZIGOA. *Indarkeria matxistari buruzko inkesta Katalunian*. Bartzelona: Herrizaingo, Harreman Institutuzional eta Partaidetza Saila, 2010.
- MUXÍ MARTÍNEZ, Z. Ciudad Próxima. *Urbanismo sin género. IT*, 2006, 75. zk.
- PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA. *Euskal Soziometroa 47. Gizarte desberdintasunak (2011ko abendua)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Lehendakaritza, 2011.
- *EAEko herritarrek segurtasunari buruz duten iritzi edo pertzepzioa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza, 2006.
- SAN JUAN, C. *Mapas de Criminalidad y percepción de seguridad*. Bilbao: Kriminologiaren Euskal Institutua, 2010.
- VARONA MARTÍNEZ, G. *Programa de investigación sobre percepción de inseguridad y mapas de criminalidad*. Bilbao: Kriminologiaren Euskal Institutua, 2010.
- VÁZQUEZ, N.; ESTEBANEZ, I. eta CANTERA, I. *Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2009.
- Zenbait autore. *Mujeres víctimas de la violencia doméstica. Programa de actuación*. Madril: Pirámide, 2004.
- Zenbait autore. *Mujeres pobres, indicadores de empobrecimiento en la España de hoy*. Madril: Foessa fundazioa eta Caritas, 2002.
- Zenbait autore. *Actas del Primer Seminario Internacional sobre la Seguridad de las Mujeres: 9-11 de mayo de 2002*. Montreal: CAFSU, Kanadako Batzordea, Nazioarteko Batzordea, 2002.

ARAUAK

Espainia. 1/2004 Lege Organikoa, 2004ko abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes oso-rako neurriei buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE)*, 2004ko abenduak 29, 313. zk., 4216. or.

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. *Beijingo deklarazioa. Emakumeei buruzko IV Mundu Konferentzia*. Beijing: Nazio Batuak, 1995.

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA. *Giza Eskubideen Batzordearen 1997/44 Ebazpena, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzkoa*. Geneva: Nazio Batuak, 1997.

Euskal Autonomia Erkidegoa. 264/2001 Dekretua, abenduaren 13koa, Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Euskal. Behatokia sortzeko eta bere funtzionamendua eta osaera arautzekoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA)*, 2011ko abenduak 28, 245. zk., 6268. or.

Euskal Autonomia Erkidegoa. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA)*, 2005eko martxoak 2, 42. zk., 3217. or.

